# Goienkaria

2009ko abenduaren 18a > Egubakoitza > X. urtea > 402. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Emakume baserritarrak izateagatik oztopoak bikoiztu egiten zaizkigu"



**Amelia Jauregi**
Baserritarra > 09

**G2a** **Bertsolaritza oinarri Altunaren lan berrian** > 37

**ANTZUOLA**
**Eliza guztiz hustu dute barruko berritze lanak hasteko** > 13

**ARRASATE**
**Eguaztenean Santamas feria handia ospatuko dute** > 14

**BERGARA**
**Gabonetako kontzertua izango da bihar, 22:30ean, pilotalekuan** > 22

**JENDARTEA** > KULTUREN FESTA

## Mundumira jaialdia Antzuolan egingo dute

**TXIKIAGOA** Herriaren tamainara egokitutako jaialdia izango da

**GASTUA** %20 gutxiago bideratu du jaialdira Mankomunitateak > 04



**ZULOA** Luis Zabala Garai, Cuatro Vientosko baserritarra, apurtutako bidea erakusten. JULEN IRIONDO

## Etxerako bidea moztu diote AHTko lanek

Luis Zabala aramaioarrak salatu du etxera joateko duten bide bakarra 24 cm hondoratu dela AHTren lanen erruz. 4x4 ibilgailuan egin behar du etxetik zulorainoko tramua eta beste ibilgailu baten zulotik aurrerakoa. Mendia guztiz zartatuta dagoela salatu du, eta halako baten lur-jausi larria gerta daitekeela. Desbideratzea egin dezaten eskatzen du, baina obren arduradunek esan diote ezin daitekeela. > 06

**KIROLA** > DKS'09 SARIAK

### Bailarako Kirol Sariak gaur Oñatin

Finalisten izenak barruan > 36

**JENDARTEA** > OMENALDIA

### Unda, Aramaioko alaba kutun

Domekan izendatuko dute > 32

### Egutegia astelehenean

*Asteleheneko Goienkaria*-rekin batera, Goienaren 10. urteurreneko egutegia jasoko duzue harpidedunok.



**POLITIKA** > PRESOAK

### 160 bisita barik geratu dira preso eta senideak

Biluzik miatuak izatera ukatzeagatik gertatu da eta hori salatu egin dute bailarako presoen senideek. Urtarrilaren 2an Bilbon egingo den agerraldirako dei ere egin dute. > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47

-%10 -%15 -%20
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Deskontuak**
Goiena Klubeko txartelarekin, deskontu eta abantailak izango dituzu. > Zoaz 26. eta 36. orrialdera
Goiena kluba

dks '09 debagoieneko II. kirolsariak
Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia
Eguna: Abenduak 18 ostirala
Lekua: Santa Ana aretoa (Oñati)
Ordua: 19:00etan
www.kirolsariak.com

**INGURUMENA** > EKODISEINU GELA

# Produktu iraunkorragoen sortzaileak

**ARRASATEN** Euskadin bi ekodiseinu gela daude, eta bat Arrasaten dago, MUren barruan; aurten, bost ikaslek dihardute hor espezializatzen

**ENPRESAK** Ahalik eta ingurumen eragin txikien duten produktuak sortzen laguntzen diete enpresei, produktuen bizi-ziklo osoan


Mondragon Unibertsitateko ekodiseinu gelako aurtengo ikasle eta irakasleetako batzuk.

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Lapiko azkar batek ez du $CO_2$ ez eta bestelako emari kutsatzailerik botatzen; baina lapikoaren diseinua aldatuta, emari horiek murriztu egin daitezke: lapikoaren tapak espazio txikiagoa har dezan aldatzen da, eta, horrela, lapiko horiek lantegitik dendara eramaten dituen kamioiak lapiko gehiago eraman ahal izango ditu bidaia bakoitzeko, eta bidaia gutxiago –eta $CO_2$ gutxiago– izango dira.

Bada, adibide hori egiazkoa da, eta Arrasaten dagoen ekodiseinu gelako –EAEn, Bilbon dago halako beste gela bakarra– ikasleen proiektu baten ondorioz egin zen. Oraindik eguneroko hitza ez da *ekodiseinua* herritar gehienondako, baina bai han diharduten bost ikasleendako eta euren irakasle eta tutoreendako. 2004. urtetik darama lanean gela horrek, Eusko Jaurlaritzako Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Foru Aldundiko Garapen Iraunkor Sailak eta Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak bultzatuta. Handik irteten direnak ekodiseinuan 200 orduko espezializazioa duten diseinu industrialeko ingeniari tekniko gisa irteten dira.

Ekodiseinu gelatik, beraz, ez dira goian aipatutako lapikoak eurak irteten; bai, ordea, lapikoak egiten dituzten enpresei premia hori ikusten laguntzeko gertu dauden profesionalak. Dani Justel gelako arduradunak dioenez, "ekodiseinu gelaren helburuak dira EAEko enpresei neurrira egindako ekodiseinu proiektuak garatzen laguntzea; produktu industrialak ingurumenarekiko hobeak izan daitezen ikerketa lanak garatzea; eta produktuok ingurumenarekiko hobeak izan daitezen eguneratutako informazio tresnak sortzea".

Hortaz, ikasturterik ikasturte, gela horretako ikasleek ekodiseinua ikasten dute; eta, urtarriletik irailera, enpresekin jarduten dute, euren proiektuak interesa duten enpresetan aplikatuz. Orain arte, 26 ikasle ibili dira, eta hainbat enpresatan 30 proiektu landu dituzte: tartean egon dira Fagor Arrasate, Etxetresna Elektrikoak, Automation eta Hometek; Matz-Erreka; JMA; Cegasa-Solac; eta baita bailaratik kanpoko enpresa ezagunak ere, hala nola CAF, Insalus, Laster edo Urbil merkataritza-gunea.

Orain, hain zuzen ere, ekodiseinuan interesa duten enpresa bila dabiltza, ikasleek lan hori egin dezaten. Bestalde, 2010-2011 ikasturtean, berritasun bat izango dute: master bat egiteko aukera emango dute.

### LEHENGAIETATIK BIRZIKLATZERA

Gaur egun, birziklatzearen kultura oso errotuta daukagu. Baina ekodiseinua hori baino aurrerago doa: "Ekodiseinuaren bidez, helburua da produktuaren bizi-ziklo osoan produktuak ingurumenean duen eragina txikitzea", azaltzen dute arduradunetako bik, Dani Justelek eta Leire Bereziartuak. Hau da, lehengaiak lortzen diren momentutik produktuaren bizitza erabilgarria bukatzen den arte. Ekodiseinuan adituek filosofia hori barneratuta daukate, eta enpresei aholkuak eman diezazkiete euren produktuak alde horretatik zelan hobetu. Horretarako, produktuaren bizi-ziklo osoaren zati diren materialak, energia, emariak eta hondakinak aztertzen ditu, bakoitzak ingurumenean ze eragin duen antzeman, eta hori murrizteko moduak ikertzen ditu. Justelek adibide batzuk ipintzen ditu, produktuaren faseak kontuan hartuta: "Lehengaiei dagokienez, ingurumenean eragin txikia duten lehengaiak aukera ditzakete, edo birziklatutako lehengaiak erabili; lantegian ekoizterako orduan, prozesu garbiak aukeratu; banaketa eta salmenta fasean, kamioi bimodalak erabili, hau da, erregaia eta energia elektrikoa erabil dezaketenak; erabilera fasean, elektraindar kontsumoa txikitu dezake erabiltzaileak; eta produktuaren bizitza bukaeran, berrerabili edo birziklatu; horretarako, birzikla daitezkeen materialez eginda beharko du produktuak". Adituak gaineratzen duenez, "azkeneko aukera, txarrena, zabortegira botatzea da; baina, birziklatu aurretik ere, berriz erabiltzea aukera hobea da".

### LEGEDIA, GAKO BAT

Iraunkortasuna hain garrantzitsua eta, neurri baten, hain modan egoteak, ordea, ez ditu enpresak behartzen bide hori jarraitzera. "Produktu bat diseinatzeko orduan, beste irizpide bat da, kostua, estetika, kalitatea, segurtasuna, ergonomia, funtzionaltasuna… bezala. Baina zeharkako irizpidea da", argitzen dute arduradunek. Berriz gure lapikoaren adibidea hartzearren, horren estetika aldatzeak ingurumenarekiko inpaktua txikitu zuen.

Baina, oraingoz, eta ingurumena jendartearen kezka handi bihurtu den arren, enpresa gehienek ez dute berez lehentasuntzat. Hala, gela horretako arduradunen esanetan, "hiru motatako enpresak daude: garapen iraunkorraren kontzientzia dutenak, hau da, euren etorkizuna dela uste dutenak; horretan aukera bat ikusten dutenak; eta eurekin zerikusirik ez duen kontua dela uste dutenak". Gehiago sakontzen du Justelek: "Ekoizle bakoitzak hainbat faktore motibatzaile ditu ekodiseinua bere produktuetan ezartzera bultzatzen dutenak: ingurumenarekiko erantzukizuna, enpresaren irudia hobetzea, lan-

ESANAK

**"Ingurumen legedi bat baldin badago, enpresek bete egin beharko dute eta ekodiseinua erabili"**

**Dani Justel** > Ekodiseinu irakaslea

DATUA

**30**

**PROIEKTU**

MUren ekodiseinu gelan ibili diren ikasleek 30 proiektu egin dituzte enpresetan, 2004tik 2009ra arte. Oraingo ikasturterako enpresa bila dabiltza horretan jarraitzeko.

EKODISEINUA, MUNDUAN ZEHAR


Altzariak.


Sandalia.


Patina.


Sofa kulunkaria.


Mahai-aulkia.


Mahaiko lanpara.


LEIRE KORTABARRIA

gileak motibatzea, kostuak txikitzea, lehiatzaileekiko bere burua desberdintzea, produktu *ekoberritzaileak* egitea, ingurumen arloko legeak, eta bezeroen eskaera". Horietatik bi dira beste guztiak baino erabakigarriagoak: "Dudarik gabe, legedi bat baldin badago, enpresa guztiek derrigorrez bete beharko dute", gaineratzen du Dani Justelek. Lege batzuk badaude: hala, automobilen bizitza bukaeran zer egin behar den agintzen duten arauak daude, eta baita aparailu elektriko eta elektronikoei eragiten dietenak ere; eta altzari ekoizleendako badago ekodiseinua saritzen duen kalitate ziurtagiri bat, UNE 140.301 delakoa.

Euskal Herriko enpresek "gero eta kezka handiagoa" dutela esaten dute irakasleok. Hala, Fagor Etxetresna Elektrikoak izan ziren Hego Euskal Herrian UNE agiri hori lortu zuten lehen enpresa. Espainian ere ez zegoen halakorik. Euren garbigailuak, Driron gailua eta abar ekodiseinatutako produktuak dira.

**KONTSUMITZAILEEN ERABAKIA**

Beste gakoa herritarrak dira: "Ekoizleak zer egingo duen erabakitzeko boterea kontsumitzaileak dauka", diote arduradunek.

Herritar moduan, ekodiseinuaren aldeko aukera egiteko modu asko dago. Izan ere, hondakinak ez dira soilik $CO_2$ emariak: hala, kontsumitzaileak, bere erosketa aukerarekin, adieraz dezake gehiegizko bilgarririk ez duela nahi, horiek ekoizteko ingurumenari egiten zaion kaltea txikitzeko.

Bestalde, produktuak zuzenean bota edo sor ditzakeen hondakinak bakarrik ez; hura ekoizteko sortu izan daitezkeen hondakinak ere kontuan har ditzake kontsumitzaileak. Eta beti, gogoan izanda hauxe: ekodiseinatutako produktuak ez dutela zertan garestiago izan; baldin badira, beste arrazoi batzuegatik da.

EKODISEINU GELAK EGITEN LAGUNDU DUEN PROIEKTUAK


Lapikoa, diseinua aldatuta. FAGOR


Ur kontsumoa neurtzeko landarea. MU



Ekodiseinatutako mahaia, Laster enpresarena. LASTER


Bizikleta.


Eguzki-energiazko lanpara.




**KULTURA** > MUNDUMIRA

# Mundumira jaia Antzuolan egiteko asmoa dute datorren urtean

## Mundumira egiten jarraitzea, %20 murriztea aurrekontua eta "herritarrago" egitea gura dute


Eskoriatzan egin dute aurten Mundumira. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Datorren urtean Debagoienak Mundumira egiten jarraituko du. Azken hilabeteotan Mankomunitateak eta Mundumira markaren jabeek (Gin Tonic Produkzioak eta *Euskal Herria* aldizkaria) izandako batzarrek fruitua eman dute eta jaialdia bailaran antolatzen segitzeko asmoa agertu dute alde biek.

Mankomunitateko batzordeak datorren urteko aurrekontua onartu du. Mundumira antolatzeko partida gorde dute. Jaiari eskaintzen dion diru partidak %20ko jaitsiera izatea aurreikusi dute. Hain justu ere, 87.100 euro jarriko ditu Mankomunitateak Mundumirarako.

Debagoieneko Mankomunitateko presidente Ino Galparsorok jaitsiera horren atzean bi arrazoi nagusi daudela esan du: batetik, krisia aipatu du; eta, bestetik, jaialdia herri txikietara egokitu beharra dagoela nabarmendu du. Dagoeneko bailarako herri handienetan antolatu dute eta datozen urteotan Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan egitea da helburua.

**ANTZUOLAN EGITEKO "OZTOPOAK"**

Hasiera baten, datorren urtean Antzuolan egitea pentsatu dute alde biek. Dena dela, hango alkate Pedro Iturbek esan digu hango eskolako jolastokia estali nahi dutela, eta jaialdia egiten denean obretan egongo direnez, leku hori ez dela erabilgarri egongo; eta jaialdia antolatzeko "oztopo" bilaka daitekeela.

Bai Iturbek eta baita Mundumira markako jabeen koordinatzaile Jesus Mari Perezek ere azaldu dute orain irtenbide baten bila ari direla lanean. Alkateak iragarri du datorren asterako saiatuko direla horri irtenbidea ematen.

Ez da samurra izan munduko festen jaia Debagoienean mantentzea. Uda partean, Mankomunitateak uko egin zion datorren urteko edizioari begira festaren markaren jabeek nahi zuten moduan antolatzeari. Egungo egoera ekonomikoari egokitzea eta herri txikietara egokitutako formatuaren aldeko apustua egin nahi zuen Mankomunitateak. Eta, bestalde, "herritarrago" egitea; hau da, herriko talde eta elkarteei ere aukera ematea antolaketan parte hartzeko. Hainbat batzarren ostean, alde biak adostasunera heldu dira.

**10 MILIOIKO AURREKONTUA**

Mankomunitateak 2010. urteko aurrekontu "zuhurrak" egiteko ahalegina egin du eta 10.035.522 euro aurreikusi dituzte; joan den urtekoa baino %6,83 txikiagoa. Ingurumenean ia 4 milioi gastatzea aurreikusi dute.

**ABELTZAINTZA**

# Txakurrek 48 ardi hil dituzte Aretxabaletan

## Albaitaria, izandako erasoak eragindako kalteak aztertzen ari da

**M.B.** > ARETXABALETA

Erasoa zapatutik domekara bitartean gertatu zen Aretxabaletan. Antza, hiru txakurrek ardiak zeuden zelaira sartu eta 48 hil zituzten. "Golpe latza" izan da jabearendako, ardiez gain jaiotzeko zeuden bildotsak ere galdu dituelako.

Orain, albaitaria erasoak eragindako kalteak aztertzen ari da, horren aurrean animalien jabeak hartu behar dituen neurriak erabakitzeko.

**TXAKUR JABEEI DEIA**

Baserritarrak txakur jabeei dei egin die. Gogorarazi die kontziente izan behar dutela eta animaliekin kontuz ibili beharra dagoela; horren harira, salatu du Urkulu inguruan askotan txakurrak aske ibiltzen direla eta jabeek ez dietela kasurik egiten.



**POLITIKA** > PRESOAK

# Bisean biseko bisitetan senideei biluzteko eskatzen dietela salatu dute

Gaur egun kartzeletako sarreretan miaketak eskuekin egiten dituztela esan zuten Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimendukoek




Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideak egon ziren martitzeneko agerraldian. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko hainbat kidek –tartean, preso eta iheslari politikoen senideak eta lagunak– agerraldia egin zuten martitzenean presoen senideek kartzeletan sufritzen dituzten irainak salatzeko. Hain zuzen ere, bisean biseko bisitetan senideak biluztera behartzen dituztela salatu zuten. "Bitarteko elektronikoak izan arren, eskularruekin gorputz osoa miatzen diete", esan zuten.

Gaineratu zuten miaketari uko egiteagatik, eta ehunka kilometro egin arren, asko eta asko senideak ikusi barik itzuli direla kartzeletatik: "Dagoeneko bisean biseko 160 bisita galdu ditugu. Euskal preso politikoak euren inguru sozial eta afektibotik aldenduz, komunikazioak moztuz eta psikologikoki kolpatuz, suntsitu gura dituzte".

Edozelan ere, lanean jarraituko dutela esan zuten: "Euskal preso politiko bakar bat espetxean dagoen bitartean salaketa eta elkartasuna adieraziko diegu. Errepresio estrategia guztien gainetik presoen eskubideen aldeko aldarriak eta senideekiko babesak bizirik jarraituko du".

**MANIFESTAZIO NAZIONALA**
Egoera hori bukatzeko asmoz, urtarriletik aurrera eragile politikoak, sozialak eta sindikalak herririk herri lanean hasiko direla esan zuten. Bide batez, urtarrilaren 2an Bilbon egingo duten manifestazio nazionalera joateko deialdia egin zuten. Autobusetako txartelak herri bakoitzeko ohiko lekuetan jarriko dituzte salgai.

**GABONETAKO EKINTZAK**
Bestalde, Gabonetarako hainbat ekimen antolatu dituzte herri ezberdinetan. Besteak beste, bihar elkartasun denda zabalduko dute Arrasateko Arbolapetan; eta hilaren 24an manifestazioa izango da, Seber Altube plazatik irtenda, eta elkartasun jaialdia gaztetxean. Oñatin eta Bergaran manifestazioak egingo dituzte, hilaren 31n eta urtarrilaren 5ean, hurrenez hurren. Gainera, hilaren 24an Olentzerorekin kantuan irtengo dira herri askotan.

ESANAK

**"Biluztearen arrazoiaz galdetu nienean 'goiko' aginduak zirela esan zidaten"**

**Mari Karmen Aiastui**
> Jose Luis Elkororen emaztea

**"Oso gogorra da ehunka kilometro egin eta zure maitea ikusi barik itzultzea"**

**Itziar Lizarralde**
> Jose Migel Gazteluren emaztea

**"Gure senideekin bi ordu egoteko ordaindu behar duguna geroz eta garestiago da"**

**Onintza Lopez de Munain**
> Jesus Mari Goikoetxearen emaztea

**EPAIKETA** > 'EGUNKARIA AUZIA'

## Debagoieneko ehunka lagunek parte hartuko dute Bilboko manifestazioan

Hainbat autobus irtengo dira bailarako herrietatik *Egunkaria libre!* lelopean egingo den ekitaldian parte hartzeko; beste asko autoz joango dira

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Ehunka debagoiendarrek parte hartuko dute bihar *Egunkaria libre!* lelopean Bilbon egingo duten manifestazioan. Batzuk autobusez joango dira eta beste batzuk autoz. Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Bilboko Autonomia kaletik.

Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendigurenek biharko ekitaldian parte hartzeko dei egin du berriro ere: "*Egunkaria*-ren itxiera eta zuzendaritzako kide batzuen atxiloketa euskararen eta euskal kulturaren aurkako erasoa izan zen; eta zazpi urte geroago, horrela da oraindik ere. Kalera ateratzeko, orduan beste arrazoi ditugu orain".

**EPAIKETA ETENDA**
*Egunkaria auziko* epaiketa martitzenean hasi zuten Auzitegi Nazionalean. Bost auzipetuek, Iñaki Uriak, Xabier Oleagak, Martxelo Otamendik, Joan Mari Torrealdaik eta Txema Auzmendik, lehen egunean deklaratu zuten. Guztiek esan zuten "*Egunkaria* egitasmo euskaltzalea, nazionala, zabala, plurala eta baterakoia izateko" sortu zela eta horrela jardun zuela, Guardia Zibilak itxi zuen arte.

Bestalde, fiskaltzak eta defentsak auzia artxibatzeko eskaera egin zuten.

Epaiketaren bigarren saioan guardia zibilek deklaratu zuten, eta, Iñigo Iruin abokatuaren galderei erantzunez, auziko instrukzioa gidatu zuen poliziak aitortu zuen *Egunkaria* ixteko "eskatu" ziola epaileari.

Bi jardunaldiren ostean, epaiketa eten egin dute, urtarrilaren 12ra arte.

**ATXIKIMENDUAK**
Euskal Herriko alderdi abertzaleetako, ELA eta LAB sindikatuetako eta euskalgintzako ordezkari ugari egon dira Madrilen auzipetuei babesa ematen. Era berean, atxikimenduak geroz eta gehiago dira. Asteon, Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko zuzendaritza batzordeak eta langileek eta Huheziko langile batzordeak bat egin dute auzipetutako bost lagunekin.

**Goiena 10 urte: 2000-2010**
**Ospa dezagun guztiok batera!**

Abenduaren 21eko **Asteleheneko Goienkaria**-rekin batera, Goienako egutegia opari!






Arrasateko eta inguruko herrietako AHTren aurkako kideek prentsaurrekoa egin zuten astelehenean. TXOMIN MADINA

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Desjabetze aktak sinatzeke geratu dira

Arrasateko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek kale agerraldia egingo dute hilaren 26an; bestalde, Aramaioko kaltetu batek bere egoera salatu du

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Arrasate-Bergara-Elorrio bidegurutzeko lurren desjabetze aktak sinatzeke geratu ziren eguenean, eta gaur, egubakoitza, gauza bera gertatuko zela aurreikusten zuen Arrasateko Udalak.

Atzo, eguena, joan ziren Arrasateko Udaletxera ADIFeko ordezkari bat eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzako beste bat. Azkenean ez zen aktarik sinatu. Desjabetu beharreko lurren artean, Udalarenak dira batzuk. Ino Galparsoro alkateak esan zuen azaroaren 14an bukatzen zela helegiteak jartzeko epea, baina desjabetzeen agindua azaroaren 10ean heldu zitzaiela. Horren aurrean, aktak sinatzeari uko egin zion Udalak, eta errekurtsoa aurkeztu zuen. Lurjaberik ere ez zen agertu eguenean. Aldi baterako okupaziorako desjabetzeak izango ziren horiek, zundaketak eta hauetarako sarrerak egiteko.

Desjabetze horiek salatzeko, Arrasateko AHT Gelditu! Elkarlanak kale agerraldia egingo du hilaren 26an, zapatua, *Makina bat arrazoi gure geroa eraikitzeko* leloarekin. Seber Altubetik abiatuko dira, 18:00etan. Prentsaurrekoan, azaldu zuten "lanak geratzeko aukera" badagoela oraindik.

**BIDEAN, 24 CM-KO ALDEA**

Luis Zabala Garaik, Aramaioko Untzuetagain eta Cuatro Vientos baserrikoak salatu du, AHTren lanen erruz, baserrira joateko duten bide bakarra 24 zentimetro hondoratu dela tramu baten, eta egunetik egunera 3 bat milimetro hondoratzen dela. Baserrira joateko, bi ibilgailu erabili behar ditu: bat zuloa hasten den lekuraino joateko, eta bestea handik aurrera jarraitzeko. Bestalde, Zabalak ohartarazi du mendia zundatuta dagoela eta edozein momentutan lur-jausia egon daitekeela, inor harrapatuta.

**ARAMAIOKO ALKATEARI EPAIKETA**

Bestalde, AHTren gaineko herrigaldeketa egin izanagatik Aramaioko alkate Asier Agirreri egingo dioten epaiketa otsailaren 10era atzeratu dute.

**KOMUNIKABIDEAK** > TELEBISTA

# GOITB orain arte bezala ikusiko da Euskaltel bidez

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

GOITB ikusten jarraituko dute Euskaltelen zuntz bidezko telebistaren bezeroek. Izan ere, bi enpresok euren elkarlana berretsi zuten eguaztenean, hitzarmena sinatuta, GOITBk Arrasaten duen egoitzan.

Euskaltelen eskaintza guztietan dago GOITB. Debagoienean, oinarrizko paketea dutenek GOITB 11. kanalean ikus dezakete. Euskaltelen bezero izateaz gain, beste ezer ez dute egin behar debagoiendarrek; ez da aparailu berezirik behar.

**BERDIN-BERDIN**

GOITB Euskaltelen bidez ikusten dutenei ez die eragingo urtarrilaren 10ean izango den itzaladi analogikoak.



Euskalteleko Fernando Agirre eta Goienako Inazio Arregi. TXOMIN MADINA

> ERREPIDEAK

### AP-1 eta AP-8 autobideetan joan den maiatzeko tarifak ezarriko dituzte datorren urtean ere

Bidegiren Administrazio Kontseiluak erabaki du 2010ean Eibar-Behobia (AP-8) eta Eibar-Gasteiz (AP-1) autobideetan aurtengo tarifei eustea, eta azpiegitura horiek erabiltzeagatik prezioetan egunerakaetarik ez egitea. Beraz, 2010eko tarifak 2009ko maiatzaren 22an onartutakoak izango dira. Argibideak: *www.bidegi.net*.

> LANA

### Garbitasuneko langileen grebak eragin txikia izan zuen Eskualdeko Ospitalean eguaztenean

Debagoieneko Ospitalean eragin txikia izan zuen eguaztenean, hilak 16, garbitasuneko langileendako deituta zegoen egun osoko lanuzteak. Langileen ordezkarien esanetan, eragina izan zuen langile guztiek lan egoera berbera ez izateak, eta langile asko azpikontratatuak izateak. Hala, bost langilek egin zuten bat greba deialdiarekin; bestela, zerbitzu minimoak egin ziren.

**EUSKARA** > ANDEREÑOAK

# Aldundiaren Urrezko Domina jaso zuten andereñoek

Eguaztenean izan zen ekitaldia, eta 60ko hamarkadako 100 bat andereño izan ziren

**L.K.** > DONOSTIA

Gipuzkoa osoko andereñoek Foru Aldundiak ematen duen bereizgarririk handiena, Urrezko Domina jaso zuten eguaztenean Donostian, ekitaldi hunkigarri baten. 60ko hamarkadan euskarazko hezkuntzaren oinarriak ezarri zituzten 100 andereño baino gehiago izan ziren ekitaldian. Mari Karmen Mitxelenak jaso zuen domina. Elbira Zipitria, andereñoen aitzindaria gogoan izan zuen: "Esan ohi zuen berak ez zuela ezer berririk asmatu. Onak eta aurrerakoiak ziren oinarriak hartu, eta gurera egokitu besterik ez zuela egin, euskal sena itsatsiaz".

Aldundiak hau dio: "Foru Aldundiak jendaurrean aldarrikatu nahi du gure hizkuntza eta kultura biziberritzeko eta gure herriaren izatea bizirik iraunarazteko, baldintzarik gogorrenetan, eskola berri bat eraiki nahi izan zuen mugimendu haren garrantzi historikoa".



100 andereño baino gehiago batu ziren ekitaldian, Debagoienekoak ere bai. JON URBE / ARGAZKI PRESS


Kutxa Aurreikuspen Planak
Zeure burua zenbat eta gehiago maitatu gaur, orduan eta hobeto biziko zara bihar.
Gaurdanik zeure buruaz arduratzeak etorkizun patxadatsua dakarkizu. Kutxa Aurreikuspen Planei esker, aurrea hartuko diozu erretiroari. Gaur zeure burua maita, eta biharko etorkizun oparoa ziurta.
I ME
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa



zabalik

Eneida Iturbe

# Abenduak 18

Gizartea hasita baina bukatu gabe dagoen eskutitza dela entzun edo irakurri nuen behin (Amin Maalouf idazlearen hitzak direla uste dut). Gure aurretik egon zirenek hasi eta jarraitu zuten gutuna, orain gure txanda da.

Metafora hau polita iruditu zait gaurko egunerako: abenduak 18, Etorkinen Nazioarteko Eguna. Izan ere, gaur gure gizartea bertan bizi garen guztiok osatzen dugu eta orainaldia eta etorkizuna denon artean esplikatuko baditugu, etorkinek guk beste aukera izan behar dituzte eskutitzaren lerroak idazteko.

Euskal Herria kultura anitza da: erlijio, azal kolore, kultura, jatorri eta etnia ezberdinetako pertsonak bizi gara bertan. Etorkin asko lan bila etorri dira, urte batzuk eta gero sorterrira itzultzeko ametsarekin, akaso. Baina seguruenik, asko eta asko betirako geratuko dira Euskal Herrian.

**"Kultura aniztasunerako politikak egin beharko lirateke, ez etorkinen bazterketa eragiten dutenak"**

Pertsona horiek bertan ondo sentitzeko eta integratzeko orduan ardurarik handiena guk daukagu. Askotan etorkinak ez direla hartzen dituen gizartera egiten esaten da, baina bide hori erraztu eta samurtuz gero, gehienek ez lukete arazorik izango gizarte berrira ohitzeko.

Harrera on bat eman ahal izateko, alde batetik, ditugun estereotipo eta aurreiritziak gainditzen saiatu beharko genuke. Seguruenik, gaurko egunez egingo diren ekitaldi eta ekintza askok helburu hori izango dute. Bestalde, administrazio ezberdinetatik etorkinak aintzat hartuko dituzten berdintasunerako eta kultura-aniztasunerako politikak egin beharko lirateke eta ez gizarte-dualizazioa eta etorkinen bazterketa eragiten dituztenak. Era horretan bakarrik lortuko dugu gure arbasoek hasitako eskutitza guztion artean jarraitzea.

usteak uste

Larraitz Zeberio

# Lehenengo elur malutak

Lau urte eta erdi dira Elgetara bizi izatera etorri nintzela. Elur gehiago ikusi dut denbora honetan, Irunen 29 urtean baino. Eta ez naiz ohitzen. Elurra mendi tontorretan gustatzen zait niri.

Konturatzen naiz, baina, zein diferente bizi duten esperientzia bera elgetarrek. Gustura hartzen dute elurra. Herrian giro berezia sortzen dela esango nuke. Zenbat urte pasako dira urteroko bisitaria nik ere horrela hartzeko?

marrazkiz

Alex Ugaldexxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx




blog-top

# Zuzeneko pantailan

**Edorta Arana**
www.goiena.net/blogak/hamaika

Bertsolarien txapelketan izan nintzen Barakaldon. Asko disfrutatu nuen. Asko poztu nintzen Maialenengatik. Asko denongatik.

Euskadi Irratian, Nikolas Aldaik jubilatu aurretik zuen programan entzun ahal izaten zen *...eta hitza jolas bihurtu zen*. Atzo, BECen ez zen jolasik egon, joko serioa izan zen, ahozko sormena borborka, lehia bizikoa eta energiaz betea.

Zuzenean bizi izateko ekitaldi bat izan zen igandekoa.

(...)

Lujanbio zalea naiz. Kantatzeko eta gaiei aurre egiteko duen moduagatik gustatzen zait. Atzotik bera dugu txapelduna. Emakumeen Asanbladak, Bilgune Feministak eta Emakundek berdintasunaren aldeko ehunka kanpainei segida emanez bezala parekorik gabe. Euskarari gaztetasuna, freskotasuna eta bultzada emanez, *neska bat es mucho*.

Barakaldon kantuan entzun eta jendearen poza ikustean, ondo goazela iruditu zitzaidan. Espero ez denean leiho berriak irekitzen direla.

(...)

# Galdeketen ahalmena

**Pello Urzelai**
www.berria.info/blogak/pello

Irailaren 13an, Arenys de Munt 8.000 biztanleko herriak Kataluniako independentziari buruz bozkatzeko aukera izan zuen. Hiru hilabete geroago, gaur, 167 herrik -700.000 botoemailek- izango dute aukera bera. Ondoriorik gabeko legez kanpoko ekintzatzat jo zuen Espainiako Gobernuak Arenys de Munteko galdeketa. Baina legeak ez du zehazten errealitatearen eta fikzioaren arteko muga. Kataluniako Estatutuari buruz Espainiako auzitegiak hartu behar duen erabakiarekin itxi nahiko luke Espainiako Gobernuak auzi katalana, baina helburu hori betetzeko berandu iritsiko da epai hori, Kataluniako gizartea dagoeneko beste estadio batean dagoelako: independentziaren bidea egiteko estrategiari buruzko eztabaidan. (...)

koplak

Andere Arriolabendoa

# Kirol nazionalaren festa

Joan den ingandean izan gendun
BECen argazki ederra
15.000 pertsona eta
denek desira bakarra.

Irria, malkoa ta zirrara
sentitu nituen hurbil
oraindik ere oilo ipurdia
kendu ezinean nabil.

Antolakuntzari mila esker
obazio eta guzi
beti izkutuan ibili arren
protagonista nagusi.

4 urte barru ez zara eta
tablau gainean egongo
agur Andoni, nahiz Txapelketa
ez den berdina izango.

Nahiz epaileak ados ez jarri
bagara edo bait gara
askorentzako txapelan jabe
Amets Arzallus zara.

Aupa Maialen, doinu ta hitzez
denok hunkitu gaituzu
mila zorion bihotz bihotzez
ondo merezia duzu!

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Amelia Jauregi (Gabiria, 1949) Baztarrika baserrian bizi da. Harekin batera sei lagun bizi dira etxean: ama, senarra, alaba, suhia eta bi bilobak. Baserriak ematen duenarekin bizi dira. Emakume baserritarraren egoera nahiko "eskasa" dela esan digu, eta etorkizuna "iluna". Era berean, "ondo antolatuta" familia, lana eta baserria uztartzea posible dela dio.

**Amelia Jauregi** > Baserritarra

# "Emakume baserritarrak izateagatik oztopoak bikoiztu egiten zaizkigu"

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL) hitzaldia egin zuen eguaztenean Arrasaten. Hain zuzen ere, emakume baserritarraren eboluzioaz jardun zuten elkarteko kideek. Hizlarietako bat Gabiriako Baztarrika baserriko Amelia Jauregi izan zen. Harekin egin genuen berba.**

**Nolakoa da emakume baserritarraren egoera egun?**

Eskasa. Gainbehera datorren lanbidea da. Geroz eta gutxiago gara baserrian buru-belarri gabiltzanak.

**Emakume baserritarren eskubideen alde egiteko EBEL elkartea sortu zenuten. Zeintzuk dira helburuak?**

Elkartea duela 18 urte sortu zuten, baserri inguruan bizi ginen emakumeon eskubideen alde egiteko asmoz. Konturatu ginen erabakiak hartzen zituzten erakundeetan ez zutela tokirik emakume baserritarrendako. Gu ere ez ginen askorik inplikatzen, eta arazoari irtenbidea emateko baserritik kalera irten behar genuela pentsatu genuen. Elkartearen helburua da emakume baserritarron eskubideak aldarrikatzea.

**Zuen egoera aldatu egin da?**

Egia esan, askorik ez. Baina hainbat ekintza egiten ditugu baserriko bizimodua kalera atera eta kalekoei erakusteko. Horrek gertutasuna eman digu emakume baserritarrok ditugun oztopoen eta arazoen berri eman ahal izateko; baina ez da nahikoa.

Hobekuntza batzuk lortu ditugu, baina bidea oztopoz beteta dago oraindik: emakumea izateak oztopo asko dakartza, eta baserritarra izateak ere bai. Pentsa nolako arazoak ditugun emakume baserritar garenok... Dena den, baserriak balio asko ditueла esango nuke.

**Zeintzuk dira zuen lanbideak dituen oztopo nagusiak?**

Emakume baserritarrok egiten dugun lana ez dago lanbide moduan onartuta. Hain zuzen ere, hori da dugun oztopo nagusia. Ez daukagu Gizarte Segurantzarik.

Bizi guztian baserrian bakarrik lan egiten duten pertsonak, gizon zein emakume, ez dituzte langile kontsideratzen. Baserriko lana ez dute inon baloratzen. Emakumeon kasuan ere, beste lan askoren moduan, baserriko lana ez dute aintzat hartzen.




Amelia Jauregi, Kulturateko hitzaldia hasi aurretik. GOIENKARIA

LANBIDEA

**"Emakume baserritarrok etxean egiten dugun lana ez dute lanbide kontsideratzen"**

BELAUNALDIAK

**"Gure etxean lau belaunaldi ezberdin bizi gara: ama; senarra eta biok; alaba eta suhia; eta bilobak"**

ETORKIZUNA

**"Kalekoek, erakunde publikoek eta politikariek gure lana aintzat hartzen ez badute, jai daukagu!"**

**Eta balioak?**

Batez ere, familia. Gure etxean lau belaunaldi ezberdin bizi gara: gure ama; senarra eta biok; alaba eta suhia; eta bilobak. Baserriaren inguruan bizi den familia indartsuagoa dela esango nuke. Niretzat, behintzat, oso inportantea da. Gure ama baserrian jaio zen, eta ni, gure seme-alabak eta bilobak ere bai.

**Baserriko bizimodua gogorra dela ikusita, ze gomendio eman zenien seme-alabei?**

Guri, industrian lana topatzeko aholkua eman ziguten etxean. Goierri aldean industriak indar handia zuen eta lantegietan hasi ginen lanean. Zortzi ordu lan eginez dirua errazago lortzen genuen. Hiru anaia ditut, eta ni bakarrik geratu naiz baserrian.

Gure seme-alabek eurek erabaki dute ze bide jarraitu. Baserriko lanarekin jarraitu nahi zuten galdetu nien, hala ez bazen lan kopurua txikitzeko. Alabak baserrian jarraitzea erabaki zuen senarrarekin, baina semeek ez. Eurek hartutako erabakia izan zen.

**Lana eta familia bateratzea zaila da. Lana, familia eta baserria bateratzea zailagoa da?**

Duda barik, zaila da. Baina antolakuntza onarekin, eramangarriagoa da. Ezkondu nintzenean senarrak lantegian egiten zuen lan. Nik neuk lau urtez lantegia eta baserria uztartu nituen.

Bestalde, herrigunetik urrun bizi izateak ere gauzak zaildu egiten ditu. Seme-alabak txikiak zirenean eskolara autoz eroaten genituen, ez zegoelako autobusik. Egun, bilobak autobusean joaten dira.

**Zenbat ordutako lan jarduna eskatzen du baserriak?**

Norberak nahi beste ordu. Baina kasu honetan ere antolakuntza oso inportantea da. Goizean goiz egiten dituzte ukuiluko lanak alabak eta suhiak, eta nik etxeko lanak egiten ditut: etxea garbitu, bazkaria egin… Ni artzaina naiz. Ardien esnearekin gazta egiten dut, eta saldu egiten dugu. Hortik jasotako diruarekin bizi gara.

Baserria oso lotua da, baina abantailak ere baditu; besteak beste, malgutasuna. Ez daukagu fitxatu beharrik, norberak badaki-eta zenbat lan egin behar duen. Lana hasteko eta bukatzeko ordutegia norberak ipintzen du.

**Zenbat gauza galduko lirateke baserriko bizitza desagertuko balitz?**

Asko, baina jendartea ez da konturatzen. Baserria galtzen bada, oso zaila izango da berriro berreskuratzea, ezinezkoa. Alde batetik, ingurumena erabat kaltetuko litzateke; eta, beste alde batetik, hemengo jakien faltan, kanpokoak ekarri beharko genituzke, nolako kalitatea duten jakin barik. Ondorioak oso larriak izango lirateke.

**Emakume baserritarraren etorkizuna beltza da?**

Beltza baino gehiago, nahiko iluna dela esango nuke, grisa-edo. Baina egoera ez dela askorik aldatuko esango nuke.

Kaleko bizilagunek, erakunde publikoek eta politikariek, besteak beste, baserritarrok egiten dugun lana aintzat hartzen ez duten bitartean, jai dugu!

# Arrasateko Udalari eskerrak

**Xabier Ansorregi**
Arrasate

Garai txarrak bizi ditugula ez dago ukatzerik: langabezia, EREak… Eta lanean daudenak dardarka. Gurasoa naiz, bost urteko ume baten aita eta eskertu nahi diot Arrasateko Udalari, etxe aldamenean barrakak jartzeko baimena emateagatik, bestela gurasoek ez genuke jakingo zer egin horrenbeste dirurekin.

Egongo da herriren bat barrakak denbora gehiagoan egoten direnik? Urtean zenbat egunetan egoten dira? Gabonetan, San Andreseko jaietan, Zigarrolan, San Joanetan…

Eskerrik asko eta segi horrela gure poltsikoak husten.

# 'Euskaldunon Egunkaria'-ri elkartasuna

**Inazio Arregi** > Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko zuzendaritza batzordearen eta langileen izenean

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko zuzendaritza batzordeak eta langileek elkartasuna adierazi nahi diete *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako auzian epaituak izango diren bost lagunei eta baita *Euskaldunon Egunkaria*-ko arduradun eta langile guztiei ere, sufritzen diharduten bidegabekeria dela-eta.

*Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera eta arduradunen atxiloketa eta epaiketa guztiz zentzu bakoa dela deritzogu eta adierazpen askatasunaren eta eskubide indibidualen aurkako eraso justifika ezina.

Eskatzen dugu Espainiako Auzitegi Nazionalak *Euskadunon Egunkaria*-ren aurkako auzia bertan behera laga dezala eta errepara dezala orain arte egindako kaltea.

Animatzen ditugu debagoiendarrak parte hartzera oraingo zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora, *Euskadunon Egunkaria*-ren aurkako epaiketa salatzeko.

# EITB behingoz konpon dezagun

**Jon Otegi, Jabi Estebanez, Arritxu Iribar, Urko Artano, Andoni Basabe, Jose Mari Apaolaza, Juantxo Arozena, Segis Gonzalez, Jose Mari Isasti, Rafa Ramos, Karlos Gebara**
(Euskal Telebista eta Euskadi Irratiko LABen izenean)
Bilbo

Nabaria da azken hilabete hauetan EITBk hartu duen norabidea ez dela kasualitatea, eta pentsamendu nazionalistatik diseinatutako estrategia bati erantzuten diola, nazionalista espainoletik noski. Horrela PSOEren EAEko sukurtsalak, bere bidelaguna den PPrekin, aspaldi kritikatzen zutena aldatzeko asmoarekin etorri zaigu. Hasieran zalantza baldin bazen emeki-emeki ala era trakets eta baldar batetan egingo ote zuten, lehen aukerarekin hasi eta bigarrenarekin jarraitzea erabaki dutela garbi ikusten da.

Halere, bada gogoratu beharreko beste alde bat. Asmoa ez da bidegabekeria zerrenda luze bat egitea, besterik gabe PNVri aurpegira botatzeko, norbera bere tokian kokatzea baizik, eta inguruan zer dugun argiago izatea: PNVk EITB kate motzarekin eraman izan du era nabarmen eta lotsagarrian, bera ere bere konfiantzazko postuak "digitalki" betez; gogoko ez zituen aurkezleak eta programak kenduz; ezker abertzalearen aurkako aparthEITB onartezina erabiliz; bertso saioetan presoen aldeko hitzak eta ikurrak desagerraraziz; eta azken muturreraino eramanda, bere etxe barruko garbiketa ezkutuagoa ere egin zuen Imaztarrak gailentzearren; orain Nafarroan ETB LTD bidez ikusteko aukeraz kezkatzen ari garelarik, ez dago soberan gogoratzea PNV UPNrekin negoziatzerakoan dagoeneko euskarazko katea den ETB3 baztertu egin zuela; hori bai, estrategiaren diseinatzaileak kalte-ordain ederrekin joan dira (benetan joan al dira?).

Egungo gobernuko alderdiek urteak daramatzate EITBren aurrekontua murriztu egin behar dela eskatzen. Talde mediatiko indartsuen jabe izanik, indar unionistek ez dute EITBren beharrik euren mezua zabaltzeko. Haatik, urteetan bestelako komunikabide gertuagoa bilatu izan duten hiritarrei "doktrinamendu nazionalista –espainola–" egiteko, badirudi PSOEk eta PPk EITB erabiltzeko aukera ez dutela galdu nahi: Estatua –barkatu, orain Espainia– beti lehen albistea, eta guztiaren testuingurua, musika eta kultura bera barne; EITB ez dela ezker abertzalearen bozgorailu mediatikoa izango –Beste alderdiena bai beraz? Eguzkia hatzaparrarekin ezkutatzen saiatzen jarraituko al dute?–; Tertuliak bakarrizketa bihurtuta; Albiste "neutroak" gailentzen, ondorioz neutralizatzaile bilakatzen ari dira.

Dena dela, zalantza bat pizten zaigu: doktrinamendua egin nahi dute, ala komunikabidea besterik gabe galbidean jarri? Hain zuzen ere, badirudi gaurko mandatariei bost axola zaiela zer gerta dakiokeen euskaldunon nortasuna eta erreferentzialtasuna berma dezakeen komunikabide publikoari. EITBren izaerak audientzietan bakarrik oinarritu behar ez badu ere, egungo datuek zuzendaritza berriak joera auto-suntsitzailea duela pentsatu arazten dute. Berezko –ezta EAEkoa ere– eskaintza informatibo eta kulturalik ez dute, eta ikus-entzuleak beste komunikabideetara joaten diren ez zaie horrenbeste inporta. Galderaren erantzuna bata zein bestea izan, emaitza bera da eta berdin zaie: Euskal nortasuna eta lurraldetasuna gara dezakeen komunikabide publikorik ez.

LAB aspalditik salatzen ari da EITBren eredu merkantilista eta bere ildo komunikatiboa, bakardade handian. Oraingoan, halere, badirudi euskal jendartearen sektore gehiago sentitzen dela kalteturik, bazterturik, edota gauzak aldatu beharreko sentimenduarekin. Bejon dagigula beraz, eta sukar honek euskaldunok behar dugun komunikabide publikoa proposatzeko balio dezala bederen. Zerbitzu publikoa den heinean kalitatekoa izan behar da; herritarrei begira, berezko nortasuna eta lurraldetasuna zainduz, tokiko komunikabideekin harremanak lehenetsiz; informazio politika bertakoa, objektiboa eta plurala; gobernuan nor egon baldintzatu gabe, alderdi politikoek euren medioak baitituzte, EITB guztiona izan dadin; gardena eta benetako kontrol publiko sozialarekin. Egitura sendo eta publikoa behar du EITBk, non langileok izango garen hain zuzen ere aurreko printzipioen bermatzaile, tresnak edukiz gero.

Beraz, garai ona da gogoeta zabala eta sakona egiteko, egiturazkoa, euskaldunok nahi dugun ereduaz eta horretarako bermeaz.

# Eskerrik asko, Arrasateko herriari

**Enrike Dolara Altuna**
(Arrasateko gaitarien izenean)
Arrasate

Gutun honen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu *Erdiko Kaletik* proiektua aurrera ateratzen lagundu diguten guztiei: Arrasateko kultura elkarte eta erakundeei; musika elkarteei; dantza taldeei: hedabideei; lagun eta familiartekoei, eta, nagusiki, Arrasateko herriari. Izan ere, Arrasateko herriak jakin izan du ulertzen gure lana eta hura izan da Arrasateko gaitarien 30 urteetako jarduna legitimatu duena.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95



# Eibarko El Corte Inglés

## Beste estilo bat eguneroko erosketetarako






### SUPERMERKATURIK ONENA

Espazio bakar honetan, produktu freskoetan kalitaterik onena eta janarietan ugaritasun paregabea aurkituko dituzu beti. Lehenengo markak eta gure lurreko produktu tradizionalak El Corte Inglés-en markako produktuen garantiarekin. Eta hori guztia preziorik onenetan.



E G O  G A I N ,  7 .  E I B A R

### ETA GOURMETAREN KLUBA EL CORTE INGLÉS-EN

Gourmetentzako denda handia munduko bazter guztietatik heldutako benetako delikatessen deritzenekin. Irandar kabiarra, xanpain frantsesa, ezkur-urdaiazpiko iberiarra...
Gastronomia-luxuok gozarazi egingo diete ahorik finenei ere.

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 – 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

www.elcorteingles.es INTERNETEKO DENDA HANDIA


ZORIONAK ETA URTE BERRI ON
FELIZ NAVIDAD Y PRÓSPERO AÑO NUEVO
BON NADAL E PRÓSPERO ANINOVO
BON NADAL I FELIÇ ANY NOU
MERRY CHRISTMAS AND BEST WISHES FOR THE NEW YEAR
JOYEUX NOËL ET MEILLEURS VOEUX POUR LA NOUVELLE ANNEE
FROEHLICHE WEIHNACHTEN VIEL GLUECK IM NEUEN JAHR
ZORIONAK
2010
Elkarlanean ikastolak aurrera!
VESELÉ VÁNOCE MNOHO ŠTESTÍ V NOVÉM ROCE
GLEDILEG JÓL OG FARSÆLT KOMANDI ÁR
RADOSNYCH ŚWIĄT I SZCZĘŚLIWEGO NOWEGO ROKU
CRACIUN FERICIT LA MULTI ANI
ARANZADI ikastola
Arizmendi ikastola
TXANTXIKU IKASTOLA

# Herriak

**Arrasate** > 14-18 **Bergara** > 19-22 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
**Eskoriatza** > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33



**> ARRASATE**
Zazpi lokal saltzeko enkante publikoa deitu du Udalak **> 14**



**> BERGARA**
Musika Eskolaren 25. urteurreneko liburua aurkeztuko dute bihar **> 22**



**> ELGETA**
Asentzioko lanetan kalteak egin dituzte, bidean eta aparkalekuan **> 31**



**> ARAMAIO**
Alaba kutun izendatuko dute Maider Unda etzi, domeka **> 32**

**ANTZUOLA** > ONDAREA

# Egunotan ailegatuko da Aldundiaren baimena eliza barruko lanak egiteko

**ATZERAPENA**
Eliza guztiz hustu zuten herritarrek, eta obrak azaroan has zitezen nahi zuten

**SAKRISTIAN MEZAK**
Goitu enpresak egingo ditu lanok, eta tartean, sakristia egokituko dute mezak esateko



Errukizko Amaren parrokia berritzeko lanak datozen egunotan hasiko dira. USOA AGIRRE

**LEIRE KORTABARRIA** > ANTZUOLA
Errukizko Amaren parrokia barrutik berritzeko lanak datozen egunotan hasiko dira; herritarrok eta Udalak bete dituzte bete beharreko guztiak horretarako, eta parrokia berritzeko herri batzordea zain dago Foru Aldundiaren idatzizko baimena noiz ailegatuko. Udalak abenduaren 2an eman zien idatzizko baiezkoa aurreikusitako obrei, eta Aldundiaren agiria bakarrik falta da. Denbora kontua da obrak noiz hasiko diren; izan ere, Aldundiak hitzezko baimena eman zien.

Lanen ardura duten herritarren batzordearen nahia da lanak lehenbailehen hastea, ez bakarrik denbora aurreratzeko, baizik eta garaia delako egokia: "Barruko obrak direnez, gremioei ere interesatzen zaie neguan barruan lan egitea", dio batzordeko kide Basili Ormazabalek.

Herritarrek parrokia hustu zuten azaroan, eta kontratistarekin tratua ere egin zuten: Goitu enpresak egingo ditu lanak.

**"ORAIN BEROTASUNEAN GAUDE"**
Azaro bukaeraz geroztik, eliztarrek bi lekutan entzuten dute meza: domeketakoa eta hileta elizkizunak Antiguako elizan esaten dira; eta aste barrukoa, Accion Catolica zenaren lokalean, parrokia alboan. Ordutegiak betikoak dira: 19:00etan, aste barruan; eta 11:00etan, domeketan. Basili Ormazabalek dioskunez, eliztarrak gustura daude, eta ustekabeko abantailak ere topatu dizkiote egoera berriari: "Antiguako eliza oso polita da; eta Accion Catolican ere lokala egokitu dugu, orain bizpahiru hilabete margotu eta txukundu zen, bankuak eta aldarea ipini genituen, eta oso ondo dago. Horrez gain, parrokia hain handia denez, berogailua ez zen pizten; eta orain, aldiz, berotasunean gaude". Alde txarrek ere espazio txikiarekin zerikusia dute: "Hileta elizkizunak egiteko Antigua ez da hain egokia; joan den astean hileta izan zen, eta 400 lagun etorri ziren; bada, ehun inguruk kanpoan geratu behar izan zuten". Ohiko mezetan ez da horrelakorik gertatzen, hala ere: batez beste, 150 lagun joaten dira domeketako meza entzutera, eta astegunetako mezetara, batez beste, 20 lagun.

Ohiko lagun kopuru hori kontuan izan dute batzordeko kideek parrokiaren eraberritze proiektua egiteko orduan: "Berrikuntzen artean, gure asmoa da sakristia egokitzea mezak esateko; aldare txiki bat ipini nahi dugu hantxe. Aste barruan mezak esateko lekua izan dadin nahi dugu", azaltzen du Basili Ormazabalek.

**DATORREN URTE OSOAN**
Bigarren fasean, orain hasiko denean, honako berrikuntza lanak egingo dituzte: eliza margotu; argindar eta berogailu sistema berritu; zorua konpondu; megafonia berria instalatu; korua txukundu; eta gurpildun jesarlekuan daudenendako eta, oro har, gutxitasun fisikoak dituztenendako bere egunean egokitu zuten sarrera txukundu.

Hirugarren fase baten, aldareak txukundu, kupulan dauden margoak berritu eta organoa ere berritu egingo dituzte. Lan horiek guztiek luze joko dute: "hamar hileko epea daukagu; kontuak kontu, datorren urte osoa joango zaigu obretan", dio Basili Ormazabalek.

DATUA

**700.000**

**EUROKO AURREKONTUA**

Lan guztiak barne, 700.000 euroko aurrekontua dute obrek. Zati bat herritarrengandik jaso dute, eta beste diru-batze bat egingo dute urtarrilean.

ESANAK

**"Accion Catolicaren lokalean bankuak eta aldarea ipini ditugu, eta oso ondo dago; aste barruko mezak han esaten dira"**

**Basili Ormazabal** > Herritarra

DIRU-BATZEA

## Herritarrek oso ondo erantzun dute

Antzuolako herriak eta herritarrek 2006an heldu zioten Errukizko Amaren parrokia berritzeko proiektuari. Hamar lagunek osatutako taldea sortu zen, lanak bultzatzeko eta antzuolarren babesa lortzeko. Urtarrilean, diru-batzea egingo dute etxerik etxe eta baserririk baserri. Batzordeak honela dio: "Elizara joaten direnak oso pozik daude; joaten ez direnek beste iritzi bat emango dizute, denetarik entzuten da, baina gero, jendeak erantzun egiten du: etxerik etxe joan izan garenean, gutxien espero genituenek ere eman dute eliza berritzeko". Horren adierazgarri da orain arte jasotako kopurua: hala, aurreko diru-batzean, aurreikuspen onenak ere gaindit外uta, 74.000 euro inguru jaso zituzten herritarrengandik.

**ZERBITZUAK** > BIRZIKLATZEA

# Egunotan ekarriko dituzte etxeko olioa batzeko edukiontzi berriak

Edukiontzi berriendako pote berriak ere ekarriko dituzte, eta egunotan etxez etxe banatuko dituzte

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Urte berriarekin batera estreinatuko ditugu Arrasateko olio edukiontzi berriak. 11 halako ekarriko ditu Eko3R enpresak, orain arte baino lau gehiago. Horrek esan gura du, besteak beste, orain arte ez zeuden lekuetan ipiniko dituztela: "Mantenduko ditugu Inazio Zuloaga kalekoa, Maiatzaren Bata plazakoa, Zaldibarkoa, Udala plazakoa, San Antolingoa eta Eroskikoa (azken hori sarreratik gertuago ipiniko dugu). Bestalde, Obenerrekakoa aldatu egingo dugu (olio gutxi batzen delako) eta Legargainen jarri; horrez gainera, planteatu dugu Uribarri eremuan bat gehiago ipintzea, Udala plazan olio asko batzen delako; eta beste hiru auzotan ere ipiniko ditugu, baina oraindik zehaztu barik daude", jakinarazi du Rafa Ugartek, Ingurumen Saileko teknikari-buruak.

**POTEAK ERE, BERRIAK**

Hark gaineratu du edukiontzi berrietan erabili beharreko poteak ere berriak izango direla, eta horiek ere abendu amaieran iritsiko direla: "Etxez etxe banatuko dituzte, baina urtarriletik aurrera ez gara gu (Udala) arduratuko horrekin, Eko3R baizik".

DATUA

**19.000**

POTE

Olioa batzeko 19.000 pote banatu ditu Arrasateko Udalak herritarren artean, eta asmoa zen etxebizitza bakoitzeko bakarra partitzea.

**POTE ZAHAR BARIK**

Edukiontzietarako poteen harira, udal teknikariak eskatu gura du herritarrak ez daitezela gehiagoren bila joan BAZera. "Ez ditugu. Udalak banatu zituen 9.500 pote etxez etxe. Edukiontzietan ia beste 3.000 ditugu. Eta herritarrak aparte BAZera joan dira 6.000 gehiago eskatzera; guztira, beraz, 19.000 banatu ditugu".

**UDALA** > DEIALDIA

## Zazpi lokal saltzeko enkante publikoa antolatu du Arrasateko Udalak

Nafarroa etorbideko 4-6 zenbakietan daude lokalok, Zerrajerako etxebizitzen azpian



Zerrajera 2 gunean daude Udalaren zazpi lokalak. OIHANA ELORTZA

**U.M.** > ARRASATE

Etxebizitza berriak eraikitzearekin batera, lokal berriak ere eraiki dituzte Arrasaten azken urteotan. Horietako batzuk daude, adibidez, Zerrajera-gunean, etxe berrien azpiko aldean. Eta, hain zuzen ere, lokal horiek erabiltzeko makinatxo bat eskaera jaso du Udalak azkenaldian.

Bada, eskaerok aztertu ostean eta jasotako proiektu edo proposamenen nondik norakoak ikusi ostean, zazpi lokal egokitzeko obrak egin ditu Arrasateko Udalak. Eta orain, lokalok saltzeko enkante publikoa antolatu du.

**ZELAKO LOKALAK ETA PREZIOAK**

Zazpi lokal horietatik txikienak 35 metro koadro erabilgarri pasa ditu; handienak, berriz, 200 metro koadro pasa.

Enkanterako ipinitako prezioei dagokienez, lokal merkeenak ia 94.000 euroko irteera prezioa izango du; garestienak, berriz, ia 325.000 eurokoa. Gainerakoak tarte horretan daude.

Bestalde, Udalak zehaztuta dauka, baita ere, lokal horietako batzuk zertarako erabili ahal izango dituzten. Erabilerak zehazteko orduan kontuan hartu dituzte jasotako proposamenak, baina baita ere inguruko bizilagunei zerbitzua eman beharko dietela.

**OKINDEGI BAT ETA JATETXE BAT**

Hori horrela, gorde dituzte horietako lokal bi (handienak) ostalaritza kontuetan erabiltzeko: bata okindegi, kafetegi edo antzeko zerbait muntatzeko eta bestea taberna edo jatetxe izateko. Gainerako bostak, berriz, izango dira bulego, osasun kontu edo antzekoetarako, "baina ezingo dira erabili ostalaritzarako".

**URTARRILERA ARTE**

Enkante hori publikoa da; beraz, edozeinek eska dezake informazioa edo lokal horietakoren bat erosteko proposamena egin. Hori guztiori, Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ) egin behar da; erosteko proposamenen kasuan, gainera, urtarrilaren 15a baino lehen. Era berean, lokal horietako bat ikusi gura duenak aukera izango du bisita egiteko. Bisita horiek ere BAZetik bideratuko dituzte; beraz, hara jo behar da txanda hartzera.

**HIRIGINTZA**

## Garagartza auzoko ordenazio plana

Jendaurrean ipini dute urtarrilaren 31ra arte, alegazioak jasotzeko

**U.M.** > ARRASATE

Garagartzako ordenazio plana onartu eta jendaurrean ipini du Udalak urtarrilaren 31ra arte, gura duenak alegazioak aurkezteko. Biztanleen Arreta Zerbitzura jo behar da horretarako.

Plan horren bitartez, Udalak zehaztu gura du Garagartzan egin edo eraiki daitekeena, zelako azpiegiturak-eta izan behar dituen, eta abar.

**24 ETXEBIZITZA**

Adibidez, Fagorren eta Garagartzako plazaren arteko lursaila erreserbatu egin gura dute, etorkizunean errentarako babes ofizialeko 24 etxebizitza eraiki ahal izateko.

Bestalde, Udalak aukera eman gura du etxeen altuera handitzeko, hirigintza aprobetxamenduak ere handitzeko. Eta baita ere etxeen atzeko aldean eraikinak egin, eta etxebizitzarako erabiltzeko.

Eta, adibidez, auzoko errepide eta oinezkoen pasealekuak berritu egin gura ditu.

**Santamasetako gehigarria gaur Arrasaten**

Egitaraua eta ekitaldiak. Guztiaren berri izango duzue gaur jasoko duzuen gehigarrian.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**ZERBITZUAK** > GABONETAN

# Herriko hainbat zerbitzuk ordutegi bereziak izango dituzte

Kiroldegiak, Udal Liburutegiak, autobus urbanoak, BAZek eta udaletxeak egutegi eta ordutegi berezia izango dute Gabonetan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Herriko zerbitzuek egutegi eta ordutegi berezi izango dituzte Gabonetan. Besteak beste, Musakolako kiroldegiak, Udal Liburutegiak, autobus zerbitzu urbanoak, Biztanleen Arreta Zerbitzuak eta udaletxeak ordutegi bereziekin egingo dute lan.

**KIROLDEGIA ETA LIBURUTEGIA**
Musakolako kiroldegia itxita egongo da abenduaren 22an –Santamasetako bazkaria bertan egingo da– eta 25ean eta urtarrilaren 1ean. Hala iragarri du Aukea kirol zerbitzuak. Gainera, abenduaren 24an eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 5ean 19:30ean itxiko dituzte ateak. Azkenik, urtarrilaren 6an beste edozein jaiegunetako ordutegia izango dute: 08:30etik 14:00etara.

Udal Liburutegia, bestalde, itxita egongo da abenduaren 22an, 24an, 25ean, 26an, 27an eta 31n eta urtarrilaren 1ean, 2an, 3an eta 6an. Eta zabalik egongo den egunetan –hau da, abenduaren 28an, 29an eta 30ean eta urtarrilaren 4an eta 5ean– ohiko ordutegiarekin egingo dute lan: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

**URBANOA, BAZ ETA UDALETXEA**
Autobus urbanoek abenduaren 22an, 24an eta 31n ordubete lehenago etengo dute zerbitzua; 19:00etan irtengo da azken autobusa. Eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an ez da urbano zerbitzurik egongo.

Azkenik, BAZ itxita egongo da abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Eta abenduaren 22an, 24an eta 31n goizez bakarrik egingo dute lan (8:30-14:00). Gainontzeko egunetan, ohi bezala. Udaletxea, berriz, itxita egongo da abenduaren 22an, 24an, 25ean eta 31n.

## oharrak

ELKARTASUNA
**> Aminatou Haidar sahararraren aldeko elkarretaratzea**
Marokoko gobernuak Saharako jaioterritik kanporatu eta, horregatik, azaro erdialdea ezkero gose greban dagoen Aminatou Haidar ekintzailearen aldeko elkarretaratzea izango da gaur Herriko Plazan, 19:00etan.

ERRETIRATUAK
**> Abenduaren 21a, txistorraren eguna**
Santamas egunaren bezperan Abaroako bazkideak direnek txistorra jateko aukera izango dute, 18:00etan. Jakinarazi dutenez, bazkide txartela behar den moduan eguneratua eraman behar da.

> ERRETIRATUAK
### Zabalik dago Imsersoren bidez bainuetxeetara joan gura duenarendako izenematea

Erretiratuendako interesgarria izan ohi den ekimenaren berri eman du Imsersok; bainuetxeetara joateko izenemate epea zabaldu du. Bi epe zehaztu dituzte: 2010eko otsailetik abuztura joan gura duenak urtarrilaren 16ra arte eman ahalko du izena eta irailetik abendura joateko asmoa duenak, berriz, maiatzaren 16a du azken eguna. Izena emateko inprimakiak BAZen edo Imsersoren webgunean jaso daitezke. Aurten ez da derrigorrezkoa izango sendagilearen txostena; beraz, interesatuak berak bete dezake.

**OSPAKIZUNAK** > GABONAK

# Ikazkin maitatuenak ibilbide berria eginda banatuko ditu ilusioa eta emozioa

Aurten, zeliako talde batek hala eskatuta, glutenik ez duten gozokiak banatuko ditu Olentzerok



Olentzerok banatuko dituen gozokiek ez dute glutenik izango aurten. Irudian, ikazkinaren iazko agerraldia. MONDRABERRI

**J.B.** > ARRASATE
Lanez lepo egongo da dagoeneko Olentzero, sei egun eskas geratzen zaizkio-eta Euskal Herriko ikazkin maitatuenari urteko egunik lanpetuena izan dezan. Eskerrak etxez etxe opariak banatzeko lan mardul horretan aurten ere Olentzeroren lagun diren Txoronpio eta Txoronpiak hutsik ez duten egingo. Urtero moduan, abenduaren 24an egingo dute auzoz auzoko Olentzerori zuzendutako eskutitz bilketa. Hala, 11:40an irtenda, Munar, Uribe, San Andres, Musakola eta Santa Teresa auzoetan ibiliko dira umeen gutunak batzen. Behin herriko auzoetan gutunak jasota, 13:15 aldera helduko dira Seber Altube plazara, eta bertan, erdialdeko haurren eskutitzak jasoko dituzte. Eta gero, noski, eskutitzok Olentzerori emango dizkiote.

**IBILBIDE ETA GOZOKI BERRIAK**
Aurtengo berritasunak dira Olentzerok egingo duen ibilbide berria eta ibilbide horretan zehar, ilusio eta emozioaz gain, banatuko dituen gozoki berriak. Izan ere, zeliakoen talde baten bidez iradokizuna jaso du aurten Santamasetako Komisiñuek. Eskaera onartu egin dute eta aurten banatuko diren gozoki guztiak gluten bakoak izango dira.

Gainera, ibilbidea ere berria izango da: San Andresko herri eskolatik irtenda, Bañez Doktorea kaletik igaroko da Abaroa eta Garibairaino. Gero, Maala kaletik sartuko da Portaloira bidean, eta Erdiko kaletik Herriko Plazara helduko da.

**BELENA, ABENDUAREN 23AN**
Bestalde, Gabonetan ohikoa den belena abenduaren 23an jartzeko asmoa du Izartxu Arrasateko belenzaleen elkarteak, Garibaiko autobus geltokian. Hala ere, Udalaren baimenaren zain daude.

Aurten elkartea Gipuzkoako belenzaleen elkartean sartu da, eta haien laguntzarekin datorren urterako belen "osatuagoa" jarriko dutela iragarri dute. San Juan bataiatzailearen parrokian eta San Andres elizan ere belen txikiak jarriko dituzte.

### Erregeen kabalgatak ere erakartzen ditu arrasatearrak

Duela urte batzuk izan zuen beherakadaren ondoren, Erregeen kabalgata hasi da berriz ere indarra hartzen. Izan ere, argizuzidunen faltak eraginda kabalgata bera egitea zalantzan izan zen urte baten. Orain, baina, belaunaldi berriek ez diote ukorik egiten kabalgatan parte hartzeari. Ea, bada, eguraldia lagun duten.

Hala, aurten kabalgatak ez du aldaketa aipagarririk izango. Ibilbidea, azken orduko aldaketarik ezean, urteroko bera izango da. Ordua ere, betikoa: urtarrilaren 5ean irtengo da, 19:00etan.



Irudian, iazko Erregeen kabalgata Otalora Lizentziaduna kalea zeharkatzen. IMANOL SORIANO

**ATLETISMOA** > SANTAMASETAKO 32. KROSA, ENRIKE KABIKETA MEMORIALA

# Arrasateko koadrilei deia: animatu Santamas krosera!

Iaz Kanpanzar Arrasate Atletiko taldeak bultzada eman zion Santamas krosari, eta lan horrek saria izan zuen: 138 lagunek hartu zuten parte krosean


Arrasateko korrikalariak, iaz, Maalako Errabalean. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Arrasate Atletiko Taldeko kideak lanpetuta ibili ziren iazko Santamas krosean; nahiko lan 140 lagunen izenak hartzen eta dortsalak banatzen. Aurreikuspen guztiak hautsi egin ziren, antolatzaileek urtero moduan 80-90 lagun inguru espero zituzten-eta kroserako, eta kopuru horrek gora egin zuen nabarmen.

Iazko edizioan hainbat aldaketa izan ziren, nabarmenena ibilbidearena, eta aldaketa horien aurrean ondo erantzun zuen jendeak. Beste urte batzuekin alderatuz, Debagoieneko gainontzeko herrietatik inoiz baino korrikalari gehiago animatu ziren, eta horri eustea garrantzitsua da kros ikusgarria antolatzeko.

**GOIZEAN GAZTETXOAK**
Urtero moduan, 11:00etan hasita gaztetxoendako lasterketak antolatu dituzte Arrasate Atletikoko lagunek. 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoendako lasterketak izango dira, eta kategoriaka banatuko dituzte, adinaren arabera. Hala, 175 eta 800 metroko lasterketak egingo dituzte, 12:00ak arte.

Koadrilen arteko lasterketa 12:30ean hasiko dute, eta hona Arrasateko koadrilendako deialdia: animatu krosera! Iaz moduan, lasterkariek 6,7 kilometroko ibilbidea izango dute aurten. Hala, lau itzuli egin beharko dizkiote ibilbide honi: Herriko Plaza, Arrasate pasealekua, Zerkaosteta, Garibai, Abaroa, Garibai, Maalako biribilgunea, Maalako Errabala, Seber Altube, Arbolapeta, Portaloia eta Herriko Plaza.

Hala, koadrila azkarrenei dagozkien sariak jasotzeko koadrila bakoitzeko lehenengo bost sailkatuen denborak hartuko dituzte kontuan –lasterketan esku hartzeko antolatzaileak Herriko Plazan izango dira izenak hartzen–. Iaz Aritz Kortabarria (21:44) eta Marije Velasco (27:31) izan ziren azkarrenak, eta koadrilaka ere lehia polita izan zen. Esandakoa, animatu.

**SASKIBALOIA**

## MUko gazteek Euskal Liga pauso batera

**X.U.** >ARRASATE
Ointxe! elkarteko gazte mailako taldeak asteburuan jokatuko du Euskal Ligan sartzeko finalerdia Easo Basoa taldearen kontra. Joaneko partidua zapatuan jokatuko dute, 12:00etan Iturripen. Itzulikoa, berriz, domekan 10:00etan Donostiako Bidebieta kiroldegian.

MUko gazteak hirugarren sailkatu dira Gipuzkoako txapelketaren lehenengo fasean. Hala, Baltzategiren taldea Arrasateko saskibaloiaren historian bigarren aldiz Euskal Ligan sartzeko borrokan arituko da. Asteburuan galduta ere, MUk oraindik igotzeko aukerak izango lituzke.

> FUTBOLA

### Lagunarteko partidua Luis Lopez 'Bonba' omentzeko Mojategin

Luis Lopez *Bonba* Mondrako futbolari eta entrenatzaile izan zen urte luzez, eta herriko taldearen alde egindako lanagatik omenaldia jasoko du hilaren 26an Realeko eta Mondrako beteranoek jokatuko duten lagunarteko partiduan (Mojategi, 12:00).

Partidurako deitu dituzte *Bonba*-k entrenatzaile sasoian izan zituen gazteak, eta 40 urteren bueltan dabiltza gehienak. Gainera, azken asteotan entrenatzen ibili dira.


Arrasate Atletiko Taldea hasi da pista estalian lanean. ARRASATE ATLETIKO

**ATLETISMOA** > TXAPELKETAK

## Maria Jose Gil eta Cesar Diez atletak urrearekin Eibartik

**X.U.** > ARRASATE
Eibarren egin zuten joan den asteburuan Bolunburuko krosa, eta Arrasateko beteranoek maila ederra erakutsi zuten. Maria Jose Gilek 2.800 metroko ibilbideari egin zion aurre –65 urtetik gorakoen kategorian–, eta azkarrena izanda (9,30) urrea jantzi zuen. Gizonezkoetan, 55 urtetik gorakoen kategorian Cesar Diezek 4.850 metroko lasterketa egin zuen, eta hark ere urrea irabazi zuen.

**HASI DUTE PISTA ESTALIKOA**
Bestalde, Arrasateko atletak parte-hartze libreko txapelketan izan ziren Anoetan. Eta pista estaliko denboraldi hasiera denez, lortutako emaitzak ez ziren apartekoak izan, normala den moduan.

Hauek dira markak: Maialen Axpek eta Lore Marrek 3,20 metroko saltoa egin zuten pertikarekin eta Malen Azuak 2,90 metrokoa. Salto hirukoitzean, Iñigo Uribarrenek 12,74; Oihane Urtzelaik 10,81; eta Izar Gorroñogoitiak 10,33. Eta 60 metroko lasterketan Jian Chenek 7,48; Iñaki Etxagibelek 7,54; Iñigo Agirrek 7,71; Eukene Dorronsorok 8,24; eta Miren Azkaratek 9,43.

Azkenik, 3.000 metroko lasterketan Markel Blancok 9,30; Andoni Perezek 9,53; eta Martin Berrizbeitiak 10,14.

**PILOTA** > ZOZKETA

## Arrasateko AGT pilota taldeak angulak eta bisigua zozketatuko ditu aurten

Iaz ekimenak izan zuen harrera ona ikusita, AGTkoek aurten ere egitea erabaki dute

**X.U.** > ARRASATE
Gaur egungo kirol taldeek nahiko buruhauste dute denboraldia osatzeko gutxieneko aurrekontua batzen. Krisiak ere ez du laguntzen, eta horri guztiari aurre egiteko klubetako arduradunak –ordain ezin daitekeen boluntario lana egindafinantzazioa lortzeko burua estutzen dabiltza azkenaldion. Arrasateko AGT taldeko arduradunek ondo baino hobeto asmatu zuten iaz, kilo bat angula zozketatzeko errifak aterata.

Zozketak harrera oso ona izan zuen herritarren artean, eta aurten ere formula errepikatzea erabaki dute, baina bigarren sari bat gehituz: bi bisigu.

**ZOZKETA SANTA AGEDA EGUNEAN**
AGT pilota taldeko errifen zozketa –euro bat errifako– otsailaren 5ean egingo dute. Lehen saria (kilo bat angula) egun horretako ONCEko zozketako lehen lau zenbakiak dituenak jasoko du eta bigarren saria (bi bisigu) ONCEko zozketako azken lau zenbakiak dituenak. Sariak martxoaren 5a baino lehen jaso beharko dira.



Mikel Markiegik zuzentzen duen Orkestra Gazteko kideak; 4-11 urte bitarteko 40 ume eta gaztetxo inguru ari dira orkestra horretan. ARRASATE MUSIKAL

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKAL

# Arrasate Musikaleko taldeen Gabonetako kontzertua gaur

Orkestra Gaztea, Banda Txikia, talde mistoak eta kantu ikasleak Amaia antzokian

**E.M.** > ARRASATE
Arrasate Musikaleko Orkestra Gazteak, Banda Txikiak, talde mistoek eta tailer musikaleko haurrek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

Lehenbizi, Mikel Markiegik zuzentzen duen Orkestra Gazteko kideek Beethovenen 5. sinfonia joko dute. Jarraian, Orkestrak eta haurren abesbatzak elkarrekin jardungo dute, eta *Adeste fideles* Gabon kantua eskaini. 5 urteko 50 haur inguru arituko dira kantuan Orkestrarekin. Kantu ikasleok Karmele Irazabalen aginduetara ikasten dihardute aurtengo ikasturtean.

Metal instrumentuen talde gazte batek ere hartuko du parte gaurko kontzertuan, eta hiru pieza joko ditu.

**BANDA TXIKIA ETA TALDE MISTOAK**
Banda Txikia 9-11 urte bitarteko 60 gaztetxok osatzen dute. Gaurko kontzertuan, Gaizka Gaztelurrutiaren zuzendaritzapean, Queen taldearen *We are the champions* kantu ezaguna, *Jupiter* (Holst) eta *River valley serenade* (Wilson) eskainiko dituzte, besteak beste. Jarraian, talde mistoen txanda izango da: hiru taldek jardungo dute, horietako bakoitza hamar lagunez osatuta dago eta Arantzazu Idigoras da zuzendaria. Haize instrumentuak eta hari instrumentuak erabiltzen dituzte talde mistoetako musikariek. Eta, besteak beste, *Monsoon* (Tokio Hotel) eta *This is the life* (Amy McDonald) joko dituzte gaur.

Kontzertuari amaiera emateko, berriz, Arrasate Musikaleko ikasle beteranoen Los Jurasicos taldeak *Gramola* (Jose Maria Ruiz) joko du. Gaurko emanaldirako sarrera doan da eta Arrasate Musikalekoek musikazale guztiei bertara joateko gonbidapena egin nahi diete.

**TXISTULARIAK KULTURATEN BIHAR**
Bihar, zapatua, Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du Kulturaten, 12:30ean. Zortzi txistularik osatzen dute taldea eta zuzendaria Juan Carlos Larreategi da. Hainbat euskal pieza eskainiko dituzte. Egitarauko piezen moldaketa gehienak Jose Inazio Ansorena donostiar txistulari ezagunak egindakoak dira.

**MUSIKA** > 'TTAKUN TTAN TTAKUN'

# Txalapartaren gaineko ikuskizuna

Juan Mari Beltranek 'Ttakun ttan ttakun' eskainiko du zapatuan Amaia antzokian

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Juan Mari Beltranek *Ttakun ttan ttakun* ikuskizuna eskainiko du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Beltranek txalapartaren ibilbidearen gaineko liburua, diskoa eta DVDa kaleratu ditu, eta, hain zuzen, txalapartaren historian oinarritutako ikuskizuna da biharkoa.

Hainbat diziplina batu ditu Juan Mari Beltranek: poesia, narrazioa, kantua, ikus-entzunezkoak, dantza... Are gehiago, profesionalez inguratu da: txalaparta jotzen Ander Barrenetxea, Ixiar Jauregi eta Aitor Beltran izango ditu alboan. Jon Maia eta Vanesa Castaño dira dantzariak; eta Mireia Gabilondo zuzendari eta aktore bergararrak gidoia egin du.

**AURRE-ESTREINALDIA**
*Ttakun ttan ttakun* ofizialki 2010eko urtarrilaren 9an estreinatuko da Tolosako Leidor antzokian, baina horren aurretik hainbat aurre-estreinaldi egitea pentsatu dute. Orain arte Urnietako Saroben eta Iruñeko Gayarre antzokian aurkeztu dute. Bihar, zapatua, Arrasaten ikusteko eta entzuteko aukera izango da. Sarrerak 10 eurotan daude salgai.



Ixiar Jauregi eta Juan Mari Beltran. GOIENKARIA

> ERAKUSKETA

### 'Naturaren argazkilariak', domekara arte

*Naturaren argazkilariak* izenburuko erakusketa ikusgai dago Kulturaten, domekara arte. Hain zuzen, 1964. urtea ezkero jokatzen den *Naturaren argazkilariak* lehiaketako 83 argazki jarri dituzte ikusgai. 82 herrialde ezberdinetatik jasotako irudiak dira.

Erakusketa, esan bezala, domekara arte, abenduaren 20ra arte dago zabalik. Gaurtik domekara bitartean, arratsaldez izango da aretoa zabalik: 17:30etik 20:30era, hain zuzen ere.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

nire bidaia hura

**Ihabar Arriaran eta Aitor Otxoa**
Finlandia > 2009ko udazkena

# "Finlandiako Estatuak gazteei 400 euro ematen die hilero"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Bi hilabete egin dituzte Finlandian Arriaran eta Otxoa arrasatearrek; eta, euren esanetan, janaria da faltan igarri dutena. MUn ikasketak egiten hasi dira; hain zuzen, *Enpresen lidergoa eta berrikuntza*. Eskolak hasi eta 20 egunera joan ziren praktikak egitera Finlandiara.**

Urriaren 15ean joan ziren Finlandiako Jyvaskyla herrira Mondragon Unibertsitateko 27 ikasle; tartean, Ihabar Arriaran, Aitor Otxoa eta Josu Oleaga arrasatearrak. *Enpresen lidergoa eta berrikuntza* gradua egiten hasi berri dira, eta Finlandiako hezkuntza sistema oinarrituta dagoen *Learning my doing* –eginez ikastea– sistema ezagutzera joan ziren.

"Eskolak hasi eta 20 egunera joan ginen Finlandiara. Zer ikasten dugun eta zertarako jakitea da bidaia honen helburua", azaldu du Otxoak.

**PRAKTIKOAGOA**

"Gauza da gure ikasteko modua ezberdina dela. Guk dauzkagu helburu batzuk, eta epe jakin batean bete egin behar ditugu helburu horiek. Adibidez, urtarrilerako fakturatu behar ditugu 13.000 euro. Proiektu errealak egin behar ditugu eta diru hori batu", azaldu digute Arriaranek eta Otxoak. Hala, Finlandiara joandako ikasleek bi talde egin dituzte. "Talde bakoitzak enpresa bat sortuko du, urtarriletik aurrera martxan egongo dena. Kooperatiba bat sortuko dugu, dauzkagun ideiak aurrera atera eta dirua irabazteko asmoz", diote.

Arriaran eta Otxoa talde berean daude eta sortu duten enpresaren izena da Akkua. "Ghanako eweeraz, hitz horrek esan gura du eguaztenean jaioa. Izen motza da, bilatzeko samurra eta urarekin eta naturarekin erlazionatzen dugu", adierazi digu Otxoak.

**"Tabernetan ezin da erre eta pub guztietan karaokeak daude"**

**"Gure ikasteko modua ezberdina da; guk dauzkagu helburu batzuk eta horiek bete behar ditugu"**

Urtarriletik aurrea webgunea izango dute; oraingoz, bloga (*www.leinn-leinn.blogspot.com*) eta *Facebook* eta *Tuenti* kontuak dituzte.

**FINLANDIAKO GAZTEAK**

Finlandian ez dute ikasi bakarrik egin. MUko ikasleek Finlandia ezagutzeko aukera ere izan dute. Ikasle-etxeetan bizi izan dira: "Estatuak 400 euro ematen dizkio ikasle bakoitzari etxetik joaten denean; pisuaren errenta, ostera, ezin daiteke 400 euro baino garestiagoa izan. Hortaz, hiru lagun batzen badira, 1.200 euro dituzte 400 euroko etxearen errenta ordaintzeko", diote.

Gaineratu dute Finlandiako gazteak edukazio onekoak direla, legeak zorrotz errespetatzen dituztela. Bestalde, pertsona isilak direla diote.

"Tabernetan ezin da erre, eta pub guztietan karaokeak daude; asko gustatzen zaie", azaldu du Otxoak. Bi hilabete hauetan faltan igarri dutena, batez ere, hemengo janaria izan dela aitortu dute Otxoak eta Arriaranek.

Aukera aprobetxatu dute, besteak beste, Laponia, Helsinki eta Tallinn ezagutzeko. "Zer azpimarratuko genukeen? Egiten duen hotza!" esan dute biek ala biek, galdera hori eginda.

**EUREN BISITA**

Bi hilabeteko esperientzia horrek datorren urtean izango du jarraipena; hain zuzen, urrian etorriko dira bisitan Finlandiatik gurera ikasleak. Esperientzia ona izan dela aitortu dute ikasleek, errepikatzeko modukoa.



Ihabar Arriaran (ezkerretik, bigarrena) eta Aitor Otxoa (zuriz), lagunekin.




Laponian, Santa Klausen etxe aurrean hartutako irudia.

txaloak eta txistuak



TXINATO TABERNA

## Makatzaga eta Alonso gatzagarrek irabazi dute Txinato tabernako mus txapelketako sari nagusia

**Joan den egubakoitzean jokatu zuten Txinato tabernan IV. mus txapelketa. 45 bikotek izena eman zuten eta, guztira, 1.800 euro banatu zituzten saritan. Irabazleak Gatzagako Juan Maria Makatzaga eta Patxi Alonso izan ziren; bigarrenak, Xabier Elejalde eta Aritz Frojan donostiarrak; eta hirugarrenak, Arrasateko Felix Egaña eta Donostiako Jose Luis San Emeterio. Guztiek eraman zuten opariren bat.**

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

## Autoa garajerako sarreran San Andres auzoan

San Andres auzoko bizilagun batek bidalitako argazkia eta kexua da. Nahiko ohikoa da San Andresen autoak gaizki aparkatuta uztea; kasu honetan, gainera, Leintzibar kalean gaizki aparkatuta dagoen autoak garaje baterako sarrera oztopatzen du. Kexua bidali duenak esan digu ordu erdi baino gehiago eman zuela autoak hor.

JENDARTEA > GABONAK

# Gaur hasiko dira Gabonetako ekitaldiak artisau feriarekin

Artisau feriarekin batera, nafar feria egingo dute bihar San Antonion. Erakusleiho dotoreena ere erabaki dute, Manso optikakoa, eta Olentzero eguenean etorriko da



Enara Mingez kultura zinegotzia; Igarzako Aloña eta Uzuri; Mayako Jaione; eta Manso optikako Pili. IRATI AGIRREAZALDEGI

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gaur, egubakoitza, hasi eta Errege ostera arte Gabonen harira antolatutako ekitaldiekin gozatzeko aukera izango dute ume, gazte zein nagusiek. Hain justu, artisau feria hasiko da gaur, eta domekara arte egongo da ikusgai, Munibe plazan egokitu duten karpan. Gaur, 18:00-21:00 ordutegia izango du eta bihar eta etzi, 10:30-14:00 eta 17:00-20:00.

Askotariko 12 artisauk hartuko dute parte; besteak beste, Bergarako lauk: Iker Gabilondo (zilarra), Ebert Sanchez (bitxigintza), Koro Iraegi (belusa) eta Emanuela Ghevio (xaboiak).

Udaletik jakinarazi dutenez, izena eman duten artisauen kopurua izan da postu kopurua baino handiagoa; hala, aukeraketa egin dute udal ordezkariek, ahalik eta produktu aukera zabalena egon dadin.

## Olentzerok bidean batuko ditu gutunak

Olentzero eta Mari Domingi eguenean, hilak 24, jaitsiko dira Surratik; aurten, lehenengoz, bi zaldiz tiratutako karrozan.

Udaletik dei egin dute 19:00etan egoteko euren zain, azoka ondoan. San Martin plazaraino egingo dute kalejira eta aurten bidean batuko dituzte umeen gutunak.

## Napar feria bihar San Antonion

Gure Ametsa elkarteak antolatu du eta irekiko dute 10:30ean. Ferian egongo dira hainbat postu Nafarroako jaki ohikoekin eta Gure Ametsak jarritako txosna.

Horrekin batera, 11:00etan txistulariek alaitutako kalejira egongo da eta 11:30ean, meza, kaperan. 10:30-14:30 ordutegian Angie disko jartzaileak saioa egingo du eta 13:00etan, jaiotza eramangarrien eta Gabonetako postalen sari-ematea egingo dute.

13:30ean Alai-Taldea otxoteak emanaldia egingo du eta 12:00-14:00 ordutegian umeendako jolasak eta poney eta zezentxoak egongo dira. Baita pintxoak ere, Gure Ametsak plazatxoan jarritako txosnan. Egunari amaiera emateko, bazkaria egongo da 15:00etan Gure Ametsa elkartean.

Bestalde, Gure Ametsa elkarteko kideek jakinarazi dute hilaren 21ean, Santo Tomas eguna, txistorra emango dutela, 11:00etan, plazatxoan jarritako txosnan.

**ARTISAU TAILERRAK**

Aurtengo feriaren berrikuntza da artisau tailerrak egingo direla bihar, zapatua, eta etzi, domeka, eta horietan ikusleek parte hartu ahal izango dutela. Batetik, 12:00etan, zapi, abaniko eta zapatagileek erakustaldia egingo dute. Bestetik, 18:00etan herritarrek parte hartu ahal izango dute tailerrotan: 19an zeramika hotza landuko dute; 20an narrua eta zilarra.

Taldeok, gehienez, hamar lagunekoak izango dira eta aurrez izena eman beharra dago. Izena egunean bertan eman beharko da, tailerra emango duten artisauen postuan.

**ERAKUSLEIHO LEHIAKETA**

Atzo, eguena, erabaki zituzten erakusleiho lehiaketako irabazleak. Hain justu ere, Manso optikak jaso du lehenengo saria –300 euro eta garaikurra–; bigarrena, Maya arropa dendak –250 euro eta garaikurra– eta hirugarrena, Igarza mertzeriak –200 euro eta garaikurra–. Eguen arratsaldean egindako ekitaldian jaso zituzten sariok denda irabazleetako ordezkariek.

**bere ustez**



Aitziber Azkondo

## Urte berriari harrera

Bergararrok hainbat ezberdintasun sumatuz hasiko dugu 2010. urtea. Herria irudi-aldaketa garrantzitsua jasaten ari da. Nahiz eta prozesuan zehar hainbat oztopo jasan behar izan ditugun (kale itxierak, hondatutako errepideak...), herri eta herritarren mesederako delakoan nago.

Ez dira azpiegiturak aldatuko diren bakarra. Datorren urtean, eta kale kontu edo zurrumurruek diotenez, hainbat taberna mitiko, aspaldian Bergarako ikur bihurtu direnak, desagertu egingo dira. Ez daukat iturri ofizialen bertsiorik eta ezin dut izen propiorik aipatu, baina ez dut uste beharrezkoa denik, zurrumurrua oso zabaldua dago dagoeneko.

**"Zurrumurruek diotenez, herriko hainbat taberna mitiko desagertu egingo dira"**

Bestalde, urte berriaren harrera kultura ekitaldiz gainezka ere badator eta eskertzekoa da. Alegia, urtean zehar herri giroa bultzatzeko eta bide batez herria pizteko egindako ekintzen kudeaketa lanak aipamena merezi du.

Urte berriak dakarrena guztion nahietan egon dadila eta Joxe Agirrek Lujanbiori txapela jarri ondoren botatako azken bertsoari helduz: "...bil gaitezen elkargana / denok batera egin lana / ia Euskadira ekartzen degun / orain falta dana".

Eguberri on!

Anezka
Jantzi Denda
Osagarriak
Aurten ere, 24 urte zuekin pasa eta gero,
ANEZKA-k eskerrak eman
nahi dizkizue bergararrei.
ZORIONAK, BIHOTZAK!
Espoloia 8 · 20570 Bergara · 943 76 59 25

Aurtengo Gabonetan **Kanelak** eskaparateko mezua zein dan asmatzia proposatzen dotsu.
Animau zaittez eta asmatzaileen artian dendako produktuz osatutako erregalu baten zozketan parte hartuko dozu.
Zein material da sabaixan dagona?
Argibide gehixago **Kanela** dendan.
Espaloia 10
943760183
kanela

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

JENDARTEA

# Ur jarduerak 6 eta 24 hilabete artekoentzat

## Izena eman daiteke hilaren 27ra arte eta zozketa urtarrilaren 7an egingo dute

**M.B.** > BERGARA

Kirol Zerbitzuak 6 eta 24 hilabete arteko umeendako ur jarduerak antolatu ditu 2010erako. Izenematea zabalik dago hilaren 27ra arte; behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte abenduaren 28an eta, egon daitezkeen akatsak hilaren 29 eta 30 artean zuzendu eta gero, zozketa egingo dute urtarrilaren 7an.

Bestalde, Kirol Zerbitzuak gehitu du udal pilotalekuak, Labegaraietako kantxa eta tenis pista alokairuan hartzeko eskaerak egiteko epea ere zabalik dagoela hilaren 27ra arte. Behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte abenduaren 28an, eta zozketa urtarrilaren 7an egingo dute. Instalazio ok urtarrilaren 11tik aurrera erabili ahal izango dira.



Emakume sahararrak, kiroldegian egindako jaian. GOIENKARIA

JENDARTEA > ELKARTASUNA

# Sahararrendako janaria batzeko kanpaina hasi da

## Janari dendetan, ikastetxeetan eta udaletxean batuko dituzte elikagaiak

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Saharar errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko janari-batze kanpaina hasi du asteon Bubisher elkarteak, eta urtarrilaren 22ra arte iraungo du. Bubisher elkartekoek batu nahi dituzte honako elikagaiak kanpalekuetara bidaltzeko: arroza, lekaleak, azukrea, atuna eta sardinak oliotan, pastak eta konpresak. Janari horiek laga daitezke herriko janari dendetan, udaletxean, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta Ipintza institutuan, horretarako egokituko dituzten kutxetan.

Ikastetxeei dagokienez, Gabonetako oporraldiaren ostean, urtarrilaren 7an abiaraziko dute batze-kanpaina.

Horrez gutziaz gain, laguntza ekonomikoa eman nahi duenak honako kontu korronteetan egin dezake: Euskadiko Kutxan, 3035 0080 94 0800054177 eta Kutxan, 2101 0070 86 0124795568.

JENDARTEA > INGURUMENA

# Beira birziklatzeko karpa bihar iritsiko da herrira

**M.B.** > BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak beira birziklatzeko informazio kanpaina ibiltaria abiarazi du eta bihar, zapatua, iritsiko da herrira. Kanpaina horren bitartez beira birziklatzeko zein prozesu egiten den eta zein onura lortzen diren azaltzeaz gain, gogora ekarriko dute edukiontzi berdeetan soilik sartu behar direla beirazko botilak, poteak eta flaskoak. Bestetik, azalduko dute modu argian edukiontzi berdera ezin direla bota portzelanak, zeramikak, tapak, tapoiak, txapak, bonbillak, fluoreszenteak, ispiluak, leihoetako kristalak, edalontziak, kopak eta kristalezko platerak. Izan ere, jarraitu beharreko prozesuan arazo larriak sor ditzakete.

Herritarrekin harreman zuzena izatea da kanpainaren helburua. Horretarako, karpa jarriko dute Irala kalean, 11:30-14:30 ordutegian. Karpan egongo dira gaian adituak diren bi dinamizatzaile, gerturatzen direnei informazioa emateko.

Gaikako bilketaren kasuan, Debagoienean erabiltzen den beiraren %66 birziklatzen da –2.000 tona urtean–, baina oraindik ere 1.000 tona zaborpoltsara botatzen ditugu.

## oharrak

LOTERIA

**> 1943an jaiotakoek Gabonetako Loterian jokatu dute**

Azaroaren 21ean Azpeitxi jatetxean bazkaria egin zutenek jokatu dute. Bi zenbaki jokatu dituzte: 05344 eta 38921.

LOKATZA ESKOLA

**> Ziklismo eskolak urteko batzarra deitu du datorren asterako**

Hilaren 23rako deitu du Lokatza Ziklismo Eskolak urteko batzarra eta egingo dute 19:00etan kultura etxean.

AUTOBUSA

**> 'Egunkaria'-ren aldeko manifestaziora joateko autobusa**

Bihar,zapatua, Bilbon izango den manifestaziorako autobusa antolatu dute. Izena eman daiteke Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan.



**PILOTA**

# Hilaren 23an hasiko dute I. Soraluce torneoa

Bergarako pilota taldeak antolatuko du eta 86 pilotari batuko ditu

**X.U.** > BERGARA

Gabonetan Bergarako pilotalekua topera egongo da, erremonteko finalerdiekin batera –informazioa ondoan– Bergarako pilota taldeak antolatutako I. Soraluce torneoa egingo dute-eta, elite mailakoa.

Lau t'erdi barruan jokatzeko txapelketak harrera ezin hobea izan du: 86 pilotarik eman dute izena eta onenek martxoaren 23an jokatuko dute finala.

**BERGARA HIRIKOEK ABANTAILA**

Pilotari gehienek hasieratik jokatu beharko dituzte kanporaketak, baina badira euren maila kontuan hartuta final-hamaseirenetara zuzen sailkatuko direnak, baina final-zortzirenetara ere. Azken horiek maila oso oneko pilotariak dira, Bergara Hiria torneoa irabaztea zer den ondo dakitenak: Mendizabal, Rico, Renobales, Onsalo, Yoldi, Idoate, Larrañaga eta Ollo. Txapelketan izango dira, baita ere, herri arteko txapela Bergarara ekarri duten etxeko pilotariak.




Bergarako finalerdietan egongo diren lau erremontistak, eguaztenean Bergaran egindako aurkezpenean. X.U.

**PILOTA** > ERREMONTEA

# Bergaran erabakiko dute nor izango den erremonteko finalean

Martiko pilotaleku motzeko 5. txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte hilaren 24an eta 25ean Bergaran eta finala 26an izango da, Labriten

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Euskal Herriko erremontista onenak izango dira Gabonetan Bergaran, eta ez lagunartekoa jokatzeko. Pilotaleku motzeko Gabonetako txapelketa egongo da jokoan, eta Bergaran bi finalerdiak jokatuko dituzte: "Aurten lehenengoz ekarri dugu erremontea Bergarara –ekainean jokatu zuten Bergaran erremonte kopako finala–. Egia da pilotalekuan ez zela jende askorik egon, baina bertan egon zirenak oso gustura geratu ziren pilotariek eman zuten ikuskizunarekin, eta kirol horren aldeko apustua egin dugu", adierazi zuen eguazteneko aurkezpenean Martin Etxeberriak, Kirol zinegotziak.

Hala, abenduaren 24an, 17:00etan hasita bi atzelari izango dira aurrez aurre: Urrutia eta Lizaso (12 euro). Abenduaren 25ean, 17:30ean, aurrelarien txanda izango da: Ezkurrak eta Zeberio II.ak jokatuko dute (12 euro). Bi kanporaketa horietan nagusitzen diren erremontistek abenduaren 26an jokatuko dute finala, Iruñeko Labrit pilotalekuan (16:45), eta ETBk eskainiko du norgehiagoka hori.

Buruz buruko partiduetan ohikoa den moduan, partiduak 35 tantora izango dira, eta partidu nagusia baino lehen binakako partiduak jokatuko dituzte, bai hilaren 24an eta baita hilaren 25eko jaialdian ere.

**PUNTAKO ERREMONTISTAK**

Bergaran izango diren pilotarien palmaresa ez da makala. Aurrelarien artean, Koteto Ezkurrak (Doneztebe, 1973) bederatzi aldiz irabazi du Kursaal torneoa eta binanako txapeldun izan da 1994an, 1999an eta 2006an. Patxi Zeberiok (Elduain, 1974), berriz, birritan irabazi du Kursaal torneoa (2006, 2007), bikotekako Faustino txapelketan txapeldun izan da bost alditan (1998, 2001, 2003, 2004 eta 2005) eta Martiko torneoa birritan irabazi du (2005, 2008).

Atzelarien artean, Migel Mari Urrutia (Saldias, 1983) Kursaal torneoko txapeldun izan da birritan (2008, 2009), binakako txapeldun Zeberi II.arekin (2004) eta Martiko txapelketako txapeldunorde hirutan (2005, 2007, 2008). Eta, Iñaki Martinez Lizasok (Santesteban, 1973) Kursaal torneoa irabazi zuen 2000. urtean, 2007an bikoteka txapela jantzi zuen Urrizarekin eta 2007an Martiko txapelketa irabazi zuen.

KAI TABERNA
Gabon zoriontsuak guztioi!
Etorri gurera eta bonboi bat oparituko dizugu!

Kruz Gallastegi 3
Bergara

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Etxera eramaten dugu
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

BERGARA Margoak
Certificado ISO 9001 por BVQi
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**MUSIKA** > EMANALDIA

# Banda, Aritzeta abesbatza, Orfeoia eta Orkestra Sinfonikoa frontoian

Abenduaren 19an (zapatua) izango da emanaldia, 22:30ean, Udal Pilotalekuan

Talde guztiek elkarrekin eskainiko dute kontzertuko azken pieza


Udal Musika Bandak jardungo du, besteak beste, Gabonetako kontzertuan. JOSETXO ARANTZABAL

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ohitura bihurtu da herriko musikazaleendako Gabonetako kontzertua. Izan ere, Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoiak bat egiten dute emanaldi horretan. Aurtengoa Gabonen atarian egingo dute; bihar, abenduaren 19an, 22:30ean, frontoian.

Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak esan digu herritik eta herriarendako kontzertua dela, eta horregatik saiatzen direla Gabonetako kontzerturako pieza ezagunak edo erraz entzuten direnak aukeratzen.

**ASKOTARIKO DOINUAK**

Musika Bandaren doinuekin hasiko da kontzertua; *Around the world in 80 days* pieza joko dute, Gonzalez Chirlaquek zuzenduta.

Ondoren, Aritzeta abesbatzak lau kantu abestuko ditu Imanol Urtzelairen zuzendaritzapean: *Cantiga de Noiteboa*, *Nerea izango zen*, *La Paloma*, eta *Aritz Adarrean-Oi Betheleen*.

Orkestra Sinfonikoak *Robin Hood* suite sinfonikoa eskainiko du gero, Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduta.

Azkenik, Aitor Biainen esanetara, Orfeoiak *Adiemus*, *Usaiak*, *Fame* eta *Joyful, Joyful* abestiak kantatuko ditu.

Banan-banan jardun ostean, denek batera *Bohemian Rapsody* eskainiko dute. Orain dela 18 urte jo zuten Freddie Mercuryren obra, eta, zuzendariaren esanetan, "modatik pasatzen ez den kantu horietako bat da; rock sinfonikoa, egokitzeko erraza bai musikara eta baita ahotsetara ere; hortaz, entzuleek gozatu egingo dutela uste dugu".

**GABON KANTUAK**

Gabonetako kontzertua, baina, ezin da Gabon kanturik gabe amaitu, eta egitarauan ez agertu arren, Gonzalez Chirlaquek esan digu guztiek elkarrekin *Hator, hator* kantua jo eta abestuko dutela; moldaketak egin ditu, musikariek ez ezik entzuleek ere kantatzeko. Kontzertua *Adeste Fideles* abestiarekin amaituko dute.

**MUSIKA**

## 'Bihotz alaia dugulako' liburua aurkeztuko dute bihar

Udaletxean egingo dute ekitaldia eta egilea han izango da

**I. A.** > BERGARA

Musika Eskolaren 25. urteurrenaren harira kaleratu dute *Bihotz alaia dugulako* liburua eta bihar, zapatua, 12:30ean aurkeztuko dute, udaletxean.

Aurkezpenean izango dira Enara Mingez, Kultura zinegotzia; Manu Diaz, liburuaren egilea; eta Leo Juaristi eta Marije Ugalde, Musika Eskolako presidentea eta zuzendaia, hurrenez hurren.

**BI ABESTI**

Liburuaren nondik norakoak azaldu ostean, musikak hartuko du lekua: ikasleek eta irakasleek osatutako instrumentu taldeak eta abesbatzak bi abesti joko dituzte; biek dituzte Alfredo Gonzalez Chirlaqueren musika eta Manu Diazen hitzak: Musika Eskolako martxa, *Bihotz alaia dugulako*, liburuari izena eman diona; eta *Bost lerro,* urteurrenerako propio gertatua.

Liburua aurkezpenaren ostean salgai izango da, baita gaueko kontzertuan ere. Ondoren, abenduaren 24an kalean ipiniko dute salgai eta Musika Eskolan ere erosi ahal izango da.



Liburuaren azala. GOIENKARIA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

SANTOS
TIEN 21
DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55


Gabonetarako opari aproposa
SPAZIALE SPLENDY®
MIKROFIBRAZKO BAINU-BATAK
ETA TOALLAK
Ez du leku handirik hartzen
Arinena eta xurgagarriena
Bakterioen kontrakoa
Bidaiatzeko, kirolerako eta
etxerako oso aproposa
Munduan bakarra
Etxeko osagarrietako
denda onenetan:
iKER
Bainu altzariak
Zarugalde 52
ARRASATE
Tel.:/Faxa: 943 79 99 42
Banatzailea: Virgingia Co Distribuciones
info@virginiaco.es

txaloak eta txistuak




IRATI AGIRREAZALDEGI

## Irizar pasealekuko telefono publikoa berritu ala kendu?

Irakurle batek deitu eta esan digu Irizar pasealekuko telefono publikoa aspaldi kenduta dagoela. Jakin nahi duena da ea berririk ipintzekoak diren. Izan ere, uste zuen behin-behineko kontua zela, baina horrenbeste denboran besterik jarri ez dutenez, kentzekotan, telefono aparailua ez ezik, egitura guztia kendu behar dela uste du.

bote prontuen

**Enrique Brunet** > Comercial Brunet-Husquarnakoa

# "Bezeroek makinak konpontzeko zerbitzua estimatzen dute gehien"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Enrique Brunetek 40 urtetik gora daramatza nekazaritzako tresnen sektorean eta 30 urte dira negozioa zabaldu zuela. Labegaraietako industrialdean du orain egoitza, eta nekazaritza tresnak saldu ez ezik, konpondu ere egiten ditu.**




I.A.

**Zer saltzen duzue?**

Lorategietarako eta basorako tresnak. Gehien saltzen direnak motozerrak eta sasi-garbitzeko makinak dira.

**Denborarekin hobetuz joan dira makinak, ezta?**

Bai. Pisua txikitu da, abiadura bizkortu, orain makinak du garbitzeko sistema… Makina berrienak japoniarrak dira eta bi atzamarren indarrarekin jartzen dira martxan; lehen, hankekin heldu behar zen makina eta tira egin.

**Zeinek erabiltzen ditu?**

Baserritarrek, txaletetan bizi den jendeak, erakundeetako langileek… Handi edo txiki, tresna bertsuak erabiltzen dituzte.

**Asko zaintzen dituzte tresnak?**

Ez; asko, erabiltzen ikasten dutenerako, ez dira ondo erabiltzeko gai. Jabeek egin beharreko lanak badaude: zorroztu, garbitu… baina %80k ez dute egiten, eta makinak hondatzen direnean etortzen dira gurera, konpon ditzagun. Baina bada horretan ere trebea denik.

**Konponketak egiten dituzu?**

Tresna bat saltzen dudanean, bezeroari azalpenak ematen dizkiot: nola erabili behar duen, nola garbitu, gasolio nahasteak nola egin… Baina askok ez dute esandakoa betetzen eta konponketetan ematen dut denbora luzea. Hori da, hain zuzen, bezeroek gehien estimatzen dutena.



# Goienkaria

Egubakoitza / 2009ko abenduaren 18a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**



# GABONAK OÑATIN 2009

GOIENKARIA



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

EGITARAUA

# GABONETAKO AGENDA

## Erakusketak

**'MENDIA ETA NATURA'** argazki lehiaketako lanak egongo dira ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan, Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta. Astelehenetik domekara bitartean, 18:00etatik 20:00etara. Lanak ikusteko aukera urtarrilaren 6ra, arte egongo da (eguaztena), baina abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da erakusketa.

## Musika

**JUAN CARLOS IRIZAR** Musikari eta piano-jole oñatiarrak kantu ezagunekin osatutako *Euskal abesti enblematikoak* azken lana aurkeztuko du abenduaren 19an , 19:30ean, Santa Ana antzokian. Sarrerak: 5 euro.

**ORGANO EMANALDIA** San Migel parrokian, meza ostean, Jan Vermeire organo-jole belgikarrak kontzertua eskainiko du, abenduaren 20an, domekan, 20:00etan.



JUAN CARLOS IRIZAR.

**OÑATIKO MUSIKA BANDA** Gabon kantuak eskainiko dituzte bandako musikariek abenduaren 24an, plazan, 19:00etan.

**PLAN B** Musika taldeak abenduaren 26an, zapatuan, 18:30ean, kontzertua eskainiko du beste talde batekin, gaztetxean.

**GANBARA TXIKI** Josu Elberdin Konpositorearen doinuak eta Andoni Moreanoren hitzak dituen *Beltz* musikala eskainiko dute Jazz laukoteak eta Ganbara Txiki abesbatzako kantariek Aitor Biainen zuzendaritzapean. Santa Ana antzokian, abenduaren 27an, 19:30ean, eta abenduaren 28an, 17:00etan eta 19:30ean. Sarrera: 5 euro (aldez aurretik kultura etxean izango dira salgai).

**KALEJIRA** Oñatiko musika bandaren eskutik. Abenduaren 31n, 19:00etan.

**BANDAREN EMANALDIA** Urtarrilaren 6an, Oñatiko musika bandaren eskutik, 11:00etan kalejira herriko kaleetan barrena eta 12:45ean kontzertua Santa Ana antzokian.

## Olentzero

**BIZAR ZURI** Olentzeroren postariak umeen gutunak jasoko ditu gaztelekuan abenduaren 20an, domekan, 18:00etan.

**KALEJIRA** Olentzerorekin kalez kale ibiliko dira abenduaren 24an Martiñola kultura taldekoak eta Jose de Azpiazu musika eskolakoak, 18:00etan, Otadui zuhaiztitik abiatuta.

## Afariak

**AFARI ANTIKONTSUMISTA** Afariak abenduaren 24an eta 31n gaztetxean, euro baten truke.

## Antzerkiak

**PAILAZOAK** Hipo eta Tomax pailazoen *Herri kirola* emanaldia Institutuan abenduaren 19an, 17:00etan. Errekalde Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta. Sarrera doan.






## EGITARAUA

**'1542-OÑATIKO HITZARMENA'** antzezlana Olaitturri elkartearen eskutik abenduaren 26an, zapatuan, 17:00etan eta 22:30ean, Santa Ana Antzokian. Gonbidapenak kultura etxean eskuratu beharko dira aurrez.

## Kirola

**ARETO FUTBOLA** Koadrilen arteko txapelketa Zubikoa kiroldegian abenduaren 26an eta 27an.

**LASTERKETA** Abenduaren 31n, *2009 ixa 2010* San Silbestre herri lasterketa Atxintxiketan kirol elkartearen eskutik. Plazan abiatuta 16:30ean gaztetxoen lasterketak; 17:00etan nagusiena.

**SASKIBALOIA** Ainhoa Lazkanoren omenez saskibaloi partiduak. XII. edizioa. Urtarrilaren 2an, egun osoan barrena.

## Zinema

**'TXORI URDIN'** Kultura etxeko zinema aretoan *bullying*-aren gaineko umeendako euskarazko filma abenduaren 26an eta 27an, zapatuan eta domekan, arratsaldeko bostetan.

**'SUKALDE KONTUAK'** Sukaldaritza eskola batean girotutako endreduzko euskarazko komedia abenduaren 28an, astelehenean, 19:30ean, kultura etxeko zinema aretoan.

**'ZORION PERFEKTUA'** Kultura etxeko zinema aretoan euskarazko filma emango dute abenduaren 29an, 19:30ean.

**'PLUK'** Kultura etxeko zinema aretoan umeendako euskarazko filma emango dute urtarrilaren 2an eta 3an, 17:00etan.

**'ANIMAL CHANNEL'** Kultura etxeko zinema aretoan umeendako euskarazko filma emango dute urtarrilaren 6an, 17:00etan.



OLENTZERO IZANGO DA PLAZAN.

## Jolasak

**UR JOKOAK** Puzgarriak ipiniko dituzte Zubikoa kiroldegiko igerilekuan abenduaren 28an, astelehenean. 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara bitartean jolas egin ahal izango dute umeek uretan.

**HAUR PARKEA** Zubikoa kiroldegian, abenduaren 28an eta 30ean, astelehenean eta eguaztenean. 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara bitartean. Egun osoko sarrerak 4 euro balio du; egun erdikoak, berriz, 2,5 euro.

**'OÑATI EZAGUTU JOLASTEN'** Turismo Bulegoaren eskutik 7 eta 12 urte bitarteko umeek jolasen bidez herria ezagutzeko aukera izango dute. Urtarrilaren 4an, astelehenean, 10:00etan hasita. Izenematea: Turismo Bulegoan.

## Hitzaldiak

**'EXPERIMENTANDO LO PARANORMAL'** Ilatargi astronomia taldearen eskutik, *El Correo* egunkariko kazetari eta *Magonia* blogaren egile Luis Alfonso Gamezek hitzaldia egingo du abenduaren 30ean, asteazkenean, kultura etxeko zinema aretoan, 19:00etan.

**'DROGAK ETA MUGIMENDU SOZIALAK'** Izenburu horrekin Madrilgo Nandok hitzaldia egingo du abenduaren 20an, domekan, arratsaldean, gaztetxean.

## Erregeak

**KABALGATA** Urtarrilaren 5ean, martitzenean, Martiñola kultura taldearen eskutik Errege Magoen kabalgata. 18.30ean, plazatik, parrokia ondotik, abiatu eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira umeen artean.

## Bertsoak

**AFARIA** Abenduaren 27an, domekan, bertso afaria izango da gaztetxean, 20:30ean. Sarrera: 3 euro.

**BERTSO JAIALDIA** Urtarrilaren 5ean, Zubikoa kiroldegian, 22:30ean. Bertsolariak: Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea: Egoitz Aizpurua. Oñatiko bertso eskolako kide batek jardungo du.

## Azoka

**LIBURUAK ETA DISKOAK** Bigarren eskuko liburuak, diskoak, fantzineak, DVDak, kamisetak, kaseteak... trukatzeko azoka txikia abenduaren 24an eta 26an, gaztetxean, 16:00etatik 19:00etara. Trukatzeko akordiorik lortu ezean, antolakuntzak jarritako gehienezko salneurriaren azpitik saldu ahal izango da. Materiala abenduaren 20an eta 23an jasoko da 17:00etaik 19:00etara bitartean gaztetxean.



MAIALEN LUJANBIO IZANGO DA ERREGE BEZPERAKO BERTSO SAIOAN.





KALEKO ARGIAK

# Euskal Herriko argiak itzungi egin dira, eta Oñatikoak ere bai

## Gabonetako argi-arkurik ez ipintzeko erabakia ondo hartu edo, behintzat, ulertu egin dute herritar gehienek eta dendariek

LEIRE KORTABARRIA

**Euskal Herriko hiri eta herri gehienetan moduan, Oñatin ere, txikitu egin du Udalak Gabonetako argiteriaren gastua; herritarrek, oro har, nahiko ondo hartu dute erabaki hori.**



Plazako zuhaitza abenduko lehenengo aste bukaeran ipini zuten. JOSETXO ARANTZABAL

Oñatin itzungi egin dira aurten Gabonetako argiak. Urterik urtera murrizten joan da Udalak argiterian egiten zuen gastua, baina aurten igarri da inoiz baino gehiago, pinuko argiak besterik ez daude-eta. Gabonetako argirik ez ipintzea ez da gauza berria; 2003. urtera arte, bakarrik plazako zuhaitza ipintzen zen.

Erabaki horren irakurketa da iazko gastuaren herena egin duela aurten Udalak Gabonetako argiteria eta apaingarrietan: 4.700 euro inguruan geratu da gastua, eta iazkoaren aldean, 10.000 euro inguru aurreztu ditu. Lourdes Idoiaga alkateak esan du "oñatiar askok eta udal kontuek eurek bizi duten egoera zailak" bultzatu duela Udala erabaki hori hartzera. Jose Mari Igartua zinegotziak azalpen gehiago ematen ditu: "Gustukoak dira Gabonetako argiak, baina pentsatu dugu herritarrok gehiago eskertuko dutela aurrezpena".

Herritar batzuek gaizki hartu dute Udalaren erabakia, eta faltan igartzen dute Gabonetako giroa. Hala ere, orokorrean, zalaparta handirik ez du sortu Udalaren erabakiak. Erdiguneko dendariek penaz hartu dute, baina, orokorrean, ulertu egin dute, krisiak behartutako erabakia izan delako.

Oñati ez da inondik inora ere salbuespena, eta neurri zorrotzagoak hartu dituztenak badira: Donostian, adibidez, argirik ez ipintzea erabaki du Udalak. Egon dira protesta batzuk, baina han ere, herritar gehienek ulertu dute erabakia. Bilbon, Gasteizen eta Iruñean ere, eta gure bailara osoan, *artazia* sartu dute argiterian.

### "Gustukoak dira argiak, baina Udalak pentsatu du gehiago eskertuko dela aurrezpena"

**BERANDUAGO ISIOTU**

Bailaran gehien –askogatik– gastatu izan duen udala izan da Oñatikoa. 2003. urteko Gabonetan, 26.800 euro gastatu zuen; urte hartan bertan, Bergarako Udalaren partida 19.250 eurokoa izan zen, gehien gastatzen zuen bigarren udala bailaran. Arrasateko Udalak 9.000 euro inguru gastatu zuen, eta kopuru hori txikitzeko joera izan du azken urteotan; aurten ere, iaz baino argi gutxiago ipini du, eta horrek ere iritzi kontrajarriak sortu ditu.

Gehiago aurrezteko neurriak hartu ditu Udalak: hala, plazan ipiniko duten zuhaitza "ez da gazteenetarikoa; Udalaren lurretan kentzeko zeuden zuhaitzetatik hartutakoa da", esan du Jose Mari Igartuak. Bestalde, argiak beste urte batzuetan baino beranduago isiotzea eta goizago itsungitzea ere erabaki zuen Udalak.

Horrek ez du esan gura kaleek ez dutenik Gabon giroa erakutsiko. Izan ere, dendariek erakusleihoak modu berezian apaindu dituzte.

### "Tristea da apaingarririk ez egotea; merkatariok ipintzen dugu bizitza, erakusleihoekin"

**"KRISIAN, ULERTZEKOA DA"**

Ekonomia aldetik garai hobeak zirenean ere, askori arreta eman zion Udalaren gastuak, eta iritzi kritikoak entzuten ziren: gastu handiegia zela, argi larregi zegoela... Beste batzuek, aldiz, gustuko zituzten argi-arkuok, eta horietako batzuek ondo hartu duten arren Udalaren erabakia, iritzi kritiko asko ere entzun dira.

Dendariek eskertzen dituzte gehien horrelako girotzeak, eta eurei galdetu diegu. Marku arropadendako Arantxa Markuletak dioenez, "ez da ona ezer ez ipintzea", baina "ulertzekoa da gastu hori kentzea". Bestalde, esaten du ez dituela ulertzen zenbaitek Udalak argiok kentzea baina gero erakusleiho lehiaketa antolatzea: "Azken baten, merkatariok gastua daukagu; eta kontuan hartu behar da aurtengo sariak iazkoak baino txikiagoak direla".

Laket lurrindegian ere "tristea" dela diote, baina "krisian" gaudenez, ulertzen dutela. "Merkatariok ipintzen dugu bizitza kaleetan, gure erakusleihoaketa apainduta", dioskute.



Oñatiko kaleetan aurten ez dago argi-arkurik. JOSETXO ARANTZABAL

**ANTZERKIA**

# Herri antzerkia berriz ikusteko aukera Santa Ana antzokian

## Abenduaren 26an izango da, 19:00etan eta 22:30ean


Jaietan Makalena elkartekoek egin zuten saioa. MIREIA BIKUÑA

ARANTZAZU EZKIBEL

**Makalena elkartekoek San Migel egunean estreinatu zuten antzerkia berriro errepikatuko dute eta batutako dirua Hermasoloña GKErendako izango da.**

Makalena elkarteko lagunek *1542ko Oñatiko hitzarmena* taularatuko dute berriro Gabonetan. San Migel egunean estreinatu zuten antzerkia Oñatiko plazan herritarren aurrean; eta, izan zuen arrakasta ikusita, berriro errepikatzea erabaki dute. Hala, bere garaian antzerkia ikusteko aukerarik izan ez zutenek abenduaren 26an izango dute aukera Santa Ana antzokian ikusteko. Bi saio egingo dituzte: 19:00etan eta 22:30ean.

**SARRERAK, DOAN**

Bi emanaldiotarako sarrerak doan izango dira, baina aurrez eskuratu beharko dira kultura etxean. Eta sarrerak eskuratzeko ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera, arratsaldez, 16:30etik 20:30era; eta zapatu goizez, 10:00etatik 13:30era.

**DIRUA, ARGENTINARAKO**

San Migel egunean egin zuten moduan, sarrera doakoa izango den arren, dirurik irabaziko balute Argentinako Jose C. Paz herrira bideratuko lukete. Hain zuzen, Oñatin orain dela gutxi sortutako Hermasoloña GKErendako izango da dirua.

**20 URTE ANTZERKIA EGITEN**

Makalena elkarteko kideak 1979an hasi ziren herri antzerkiarekin. Ordutik hona zortzi ikuskizun prestatu dituzte, betiere euskaraz. Aurtengo jaietan XVI. mendeko Oñati irudikatu dute. Horretarako, *1542ko Oñatiko hitzarmena* prestatu zuten. Testua Inazio Irizar eta Gerardo Elortzak egin dute, Oñatiko euskaran. Musikaren ardura, ostera, Iñaxio Ibarrondok izan du.

70 lagunek parte hartuko dute ikuskizunean; taula gainean 24 lagun ibiliko dira eta gainontzekoek musika, koruak, jantziak… egingo dituzte. Elkartekoek eskerrak eman gura dizkiote Udalari, eta baita ikastolari ere, lokala uzteagatik.

**Sarrera doan da, baina aurrez eskatu behar da kultura etxean**

**70 lagunek parte hartuko dute Santa Anako ikuskizunean**

## Olaiturri kultura elkartea sortu dute

**Makalena elkarteko kideek Olaiturri kultura elkartea sortu zuten irailean. Horrekin gura izan dute Makalena elkarte gastronomikoaren eta antzerki taldearen diru-kontuak bereiztea. Makalena elkarteak eskarmentua dauka herri antzerkian; izan ere, 1979an hasi ziren antzerkiarekin. Ordutik hona, zortzi lan eskaini dituzte. Olaiturri elkartearen berri eman zutenean, prentsaurrekoan esan zuten edozein herritarrek parte hartu ahal duela elkarte berrian, ez duela zertan Makalenako kide izan.**




Zorionak eta urte berri on!


Tel.: 943 53 22 47
ZERO KM-A
ERREMENTARI
PLAZA 8
20560, OÑATI
GIPUZKOA

SUKALDEAN

# Aurtengo jaietan ere krisia nabari dute ibarreko jatetxeek

## Jende gutxiago joaten da kanpora, eta, dirua aurrezte aldera, etxean bazkaltzea nahiago dute debagoiendarrek

NEREA MENOR

**Gabonen inguruko solasaldi guztietan aipatzen ditugu, behin baino gehiagotan gainera, laneko bazkariak, lagunen arteko afariak edota familiarekin ospatuko ditugun otorduak.**


Diru gutxiago xahutu arren, primerako jakiak prestatzen dira Gabonak ospatzeko. GOIENKARIA

Egun garrantzitsuenak etxean igarotzen ditugu gehienetan, baina Gabonetako oporrak lau bazkari baino gehiago izaten dira eta asko inguruko jatetxeetara joaten dira garai honetan.

Torre Auzoko Etxe-Aundi jatetxean, opor hauetara egokitu dira eta menu berezia prestatu dute bezeroentzat. "Eguneko menuaz gain, 27 euroko menu berezia dugu aurten. Egunero zerbitzatzen da eta plater ezberdinen artean hautatzeko aukera dago", azaldu digu Marga Romarizek, Etxe-Aundiko jabeak. Lehenengo bi plater ditu menu bereziak: onddo eta foie briea ardo saltsan eta gaztaina purearekin, edo txoko entsalada Cabrales gaztarekin. "Aurrenekoa oso goxoa da. Plater honen kontrastea oso berezia da. Gaztainaren zapore leuna ardo saltsarekin kontrajartzen da. Onddo eta foieak osatzen duten bikotea izugarria da benetan", dio Romarizek.

Horren eskaintza zabala egon arren, debagoiendarrok oso tradizionalak garela azaldu digute Oñatiko jatetxean: "Bakailaoa eta txahala dira plater arrakastatsuenak. Postreei dagokienez, hoditxoak eta, nola ez, gazta-tarta".

**Debagoiendarrok oso tradizionalak omen gara janari kontuei dagokienez**

**Etxe-Aundi jatetxeak garaiko produktuak erabili ditu Gabonetako menua osatzeko**

### KRISI NABARIA

Garai honetan laneko bazkariek betetzen dituzte ibarreko jatetxeak; hala ere, iaz bezala, aurten ere, krisiaren eragina nabaria da eta ez da lehen bezain beste diru eskaintzen halako ospakizunetara. "Lantegi askok eguneko menua aukeratzen dute karta edo menu bereziaren ordez", dio jabeak.

Madina
Agirre
abokatuak
Amaia Madina Agirre
Abokatua
Goretti Madina Agirre
Abokatua-Ekonomista
Motxon kalea 3, behea
Tel.: 943 78 14 27 • 943 78 14 57
Faxa: 943 78 02 45
20560 Oñati
madinaabog@euskalnet.net

itziar optika


Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

ARGAZKI ERAKUSKETA

# Mendia eta natura hobeto ezagutzeko aukera kultura etxean

**Argazki lehiaketara aurkeztutako argazki bikainenak ikusi ahal izango dira erakusketan**

NEREA MENOR

**Urtero moduan, aurten ere, 'Mendia eta Natura' izeneko lehiaketako argazkiak erabiliz erakusketa antolatu du Aloña Mendi Kirol Elkarteak.**

Aloña Mendi kultura elkarteak 6. aldiz antolatu du *Mendia eta natura* argazki lehiaketa. Bertara aurkeztutako lan onenak ikusgai egongo dira urtarrilaren 2a arte kultura etxean. .

"Aurreko urtekoekin alderatuta oso parekoa izan da aurtengo edizioa", diote antolatzaileek, "bai kalitate mailari dagokionez, baita argazkilari eta argazki kopuruari dagokionez ere: 43 argazkilariren 155 argazki jaso ditugu: 111 A sailean (mendia eta natura) eta 44 B sailean (salaketa)".

Dagoeneko finkatutako hitzordua da erakusketa oñatiarrentzat; hala ere, bisitari kopurua ez da oso handia izaten: "Iaz 114 izan genituen, orain dela bi urte 197. Beste herri batzuetan, Bergaran esaterako, 800 bisitari baino gehiago izaten dituzte. Aretoaren kudeaketaz gain, haren kokalekuarengatik: kale erdierdian, komertzio eta tabernen inguruan".

Elkarteak erakusketa bisitatzera animatzen ditu herritarrak: "Kalitate handiko argazkiak daude: natura, fauna, alpinismoa… eta, tartean, oñatiar batzuk ere bai". Lehiaketa mendiaren eta naturaren inguruan izan arren, jasotako argazki gehienak naturaren ingurukoak izaten dira. Haien artean, ingurumenari eginiko erasoak salatzen dituztenak. Naturak eraso asko jasaten dituela adierazi digute Aloñan, eta gure ingurua aldatu egin daitekeela diote: "Kontzientziazioan dago gakoa".

Aurten hainbat aldaketa egin ditu elkarteak sari banaketari dagokionez: "Alpinismoko saria hobetu dugu, mendi taldea izanik arlo hori indartu egin nahi dugulako".

B saileko irabazlea Jokin Astigarraga oñatiarra izan da eta A sailekoa Julian Gil legazpiarra. A eta B sailetako Oñati saria Andoni Camposek jaso du.

"Aurreko urtean sartu genituen Oñati sariak, herriko maila gorantz doan arren bertakoei aukera bat emateko", diote antolatzaileek.

**Urtarrilaren 2ra arte herriko kultura etxean ikusgai egongo da 'Mendia eta natura'**

**Jokin Astigarraga oñatiarra izan da salaketa saileko irabazlea**



Mendia eta Natura saileko irabazlearen argazkia. *Hielo*, Julian Gil legazpiarrarena. JULIAN GIL

ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:
Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera balorazioko portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:
Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketa 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA
Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA
Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA…
Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20
Faxa: 943 78 31 36

OLENTZERO

# Zakua sorbaldan duela helduko da Olentzero

## Otadui zuhaiztian egingo diote ongietorria Olentzerori

NAROA ODRIOZOLA

**Abendua ospakizunez beteta dago eta 24a data berezi-berezia dugu. Etxeko txikienentzat ez ezik, nagusientzat ere xarma berezia du egun horrek.**

Horra, horra, gure Olentzero! Abenduaren 24tik 25erako gaua iristear dago eta horrek pozez betetzen ditu etxeko txiki eta nagusiak. Izan ere, urtea mendian igaro ondoren, kalera jaitsiko da Olentzero gure ametsak betetzera.

Hain zuzen ere, abenduaren 24an, eguenean, 18:00etan iritsiko da Olentzero Oñatira. Zakua opariz beteta, herriko kaleak zeharkatuko ditu eta Otadui zuhaiztian egingo diote harrera herriko gaztetxo eta nagusiek.

**Haurrekin egoteko herriko plaza izango du bilgune gure Olentzerok**

### KALEETAN ZEHAR

Urteroko ibilbide bera egingo du Olentzerok: Otadui zuhaiztitik Kale Zaharrera hartuko du; handik Santa Marinara eta gero Euskadi etorbidera abiatukoa da; azkenik, Etxaluzetik Kale Barrira hartuko du eta handik plazara.

Ibilbidean zehar herriko umeen eta gazteen laguntza izateaz gainera, Zumarragako baserri bateko bi idiren laguntza ere izango du Olentzerok. Beraz, giro bikaina egongo da herrian; izan ere, Musika Eskolako musikariek kaleetako giroa alaituko dute musika joaz eta abestuz.



Umeek Olentzerorekin egoteko aukera izango dute herriko plazan. RUPER ARKAUZ

### ESKUTITZAK BIZARZURIRI

Herriko umeek Olentzerorekin egoteko aukera izango dute plazan. Bertan, Olentzero ikusteaz gain, gozokiak jasoko dituzte. Hala ere, oparia jaso gura duenak eskutitza Bizarzuriri eman beharko dio abenduaren 20an, gaztelekuan.



KABALGATA

# Olentzeroren ondoren, Erregeen txanda Oñatin


Gaspar, Baltasar eta Meltxor opariz beteta etorriko dira Oñatira. RUPER ARKAUZ

## Arratsaldeko sei eta erdietan parrokia ondotik irtengo da Errege kabalgata

NAROA ODRIOZOLA

**Olentzeroren txanda pasatu ondoren, Erregeen bisita izango dute Oñatiko gaztetxoek. Urtarrilaren 5ean, martitzenean, bisitatuko dute herria.**

Oñatiko kaleetan ibilbidea egin ostean udaletxera helduko dira Erregeak kabalgatan, eta bertan, umeen eskutitzak jasoko dituzte, gauean jaso nahi dituzten oparien berri izateko.

Aspaldiko ohitura da Errege kabalgata egitea. Garai batean egiteari utzi zioten, baina orain dela 21 urte inguru ohitura berreskuratu zuten Martinola kultura taldekoek. "Gaita-jole eta musika taldea osatzeaz gain, hainbat kultura ekintza antolatzen hasi ginen: Erregeen kabalgata, Olentzeroren kalejira...", azaldu digu Martinola taldeko Ruper Arkauzek.

### GAZTELEKUTIK PLAZARA

Arratsaldeko sei eta erdietan gazteleku parean hasi eta ordubete inguruko ibilbidea egingo dute herriko kaleetan zehar. Ondoren, udaletxeko balkoitik plazan zain dauden umeei gozokiak botako dizkiete Erregeek. Plazan daudela, etxeko txikienen eskutitzak jasoko dituzte udaletxeko areto nagusian. Eguraldiak laguntzen ez badu, baina, ibilbidea laburragoa izango da.

### HERRITARRAK PARTAIDE

Erregeek kaleetan barrena ibiltzeko Oñatiko herritarren laguntza izango dute. Oñatiko musika bandak giroa alaituko du eta DBHko 100 ikasle inguruk argizuriak eramango dituzte eta danborra joko dute. Gainera, Saltoka taldekoek jaiotza biziduna egingo dute.

**Herritarren konpainiaz irtengo da kabalgata**

Errege kabalgatak urtetik urtera geroz eta arrakasta handiagoa du etxeko txikienen artean; izan ere, asko dira kabalgata hasi orduko plazan daudenak. Aurten ere, urterrilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar noiz iritsiko zain egongo dira.



LEHIAKETA

# Iaz baino diru eta parte-hartzaile gutxiago erakusleiho lehiaketan

**Herriko 33 dendarik eman dute izena –iaz baino 11 gutxiago– eta 4.500 euro banatuko dituzte –iaz baino 1.000 gutxiago– erakusleiho lehiaketan; guztira, zortzi sari emango dituzte hilaren 30ean**

MIREIA BIKUÑA

**Iaz baino 11 dendari gutxiagok eman dute izena erakusleiho lehiaketan. Dagoeneko ikusgai daude. Hala, epaimahaiak eta herritarrek aukeratuko dituzte irabazleak.**



Kale Barriko Urtaza mertzeria. MIREIA BIKUÑA



Kale Barriko Itziar optika. MIREIA BIKUÑA

Herriko merkataritzaren garapenean euren irudia eta erakargarritasuna hobetzeko helburuarekin, eta krisiari aurre eginez, bigarren erakusleiho lehiaketa antolatu du Udalak, Txanda elkartearen laguntzarekin. Krisiaren eraginez, iaz baino 1.000 euro gutxiago banatuko dituzte saridunen artean. Guztira, 4.500 euro.

Era berean, krisiak eragina izan du parte-hartzaile kopuruan. Izenematea zabalik egon den artean, herriko 33 dendak eman dute lehiaketan parte hartzeko izena (ikus ondoko taula). Parte-hartzaile kopuruak behera egin du iazkoarekin alderatuta –iaz 44k eman zuten izena.

**HIRU SARI**

Parte-hartzaileek dendan saltzen dituzten ohiko produktuak jarri dituzte erakusleihoetan. Abenduaren 15etik 31ra arte egongo dira erakusleihoak ikusgai. Tarte horretan erabakiko ditu epaimahaiak sariak. Erakusleiho lehiaketako baldintzetan zehazten den moduan, batez ere diseinua, irudimena, originaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza dira epaimahaiak baloratuko dituen alderdiak. Hain justu ere, Udaleko eta Txanda elkarteko ordezkariek eta dekorazio arloko pro-


ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Zubillaga Auzoa, 34-A (Oñati)
Tel. : 652710837 / 943716215
pinturas_urbia@yahoo.es



BITAONI S.L.

Zorionak eta urte berri on!

Mekanizatua
•
C.N.
•
CAD-CAM

Zubillaga industrialdea 20
Tel.: 943 71 60 44 • Faxa: 943 78 29 39 • Mobila: 639 659 446
bitaoni@telefonica.net

LEHIAKETA


Kale Barriko Guztiz Eder estetika zentroa. MIREIA BIKUÑA


Bidebarrieta kaleko Kuttun lentzeria. MIREIA BIKUÑA

fesionalek osatuko dute epaimahaia, eta erabakiko dituzte lehen hiru sariak nortzuek eskuratuko dituzten. Hiru erakusleiho onenek diru-saria jasoko dute: lehen sailkatuak 1.500 euro jasoko ditu; bigarrenak, 1.000 euro; eta hirugarrenak, 500 euro.

**HERRITARREN SARIA**

Bestalde, herritarrek aukeratuko dituzte 500 euroko bi sariak nortzuek eskuratzen duten. Horretarako, *Kontzejupetik* aldizkarian dauden boto-txartelak bete behar dituzte abenduaren 26a baino lehen, nork bere datuekin eta botoa ematen dion dendaren izenarekin. Botoak udaletxean, Turismo Bulegoan edo Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Bulegoan entregatu behar dira.

Botoa ematen duten herritarren artean Gabonetako saski bat zozketatuko dute.

**URTEKO LANA SARITZEKO**

Udalak banatuko duen 500 euroko azken saria –aurtengo berrikuntza nagusia– urtean zehar egindako lana saritzeko izango da. Besteak beste, urtean zehar egindako erakusleiho aldaketak eta erabilitako apainketak baloratuko dituzte.

**SARIAK, HILAREN 30EAN**

Epaimahaiak abenduaren 30ean jakinaraziko ditu saridunak. Parte-hartzaileak eta Udaleko eta Txandako ordezkariak osoko bilkuren aretoan batuko dira, 20:30ean; eta Gabonetako saskia irabazi duenaren izena ere jakinaraziko dute.

Iaz, Maibik, Letamendi arropa dendak eta Urtxin eta Kimu loradendek eroan zituzten sariak.

## Udaleko eta Txandako ordezkariek eta dekorazio arloko profesionalek osatuko dute epaimahaia

## Urtean zehar dendariek egindako erakusleiho aldaketak sarituko dituzte 500 euroko sariarekin

## Erakusleiho lehiaketako parte-hartzaileen zerrenda

| | |
|---|---|
| Aranburu drogeria | Kale Barria 47 |
| Aranburu bitxi-denda | Kale Barria 55 |
| Arkauz optika | Lazarraga 2 |
| Abenida bideokluba | Euskadi etorbidea 7 |
| Baio arropa-denda | Atzeko kalea 16 |
| Barue interiorismoa | Santa Marina 4 |
| Beloki iturgintza | Bakardadeko Ama 11 |
| Bellotza loradenda | Bidebarrieta 19 |
| D'OR estetika zentroa | Errementari 5 |
| Elorza burdindegia | Kale Barria 17 |
| Guztiz Eder estetika | Kale Barria 29 |
| Iratxo ile-apaindegia | Olakua 18 |
| Itziar optika | Kale Barria 32 |
| Jasone drogeria | San Lorentzo 10 |
| Jon bitxitegia | Kale Barria 18 |
| Kimu loradenda | Kale Barria 17 |
| Korosti kafea | Bidebarrieta 13 |
| Kuttun lentzeria | Bidebarrieta 19 |
| Laket | Lazarraga 3 |
| Laket-2 | Bidebarrieta 17 |
| Letamendi | Foru plaza 8 |
| M. Jose ile-apaindegia | Motxon kalea 5 |
| Maribi | Mendiko kale 2 |
| Marku | Kale Barria 4-A |
| Mendizabal Kirolak | Kale Barria 39 |
| P. Arregi-Juanitosa | Atzeko kalea 11 |
| Sesiñena ile-apaindegia | Atzeko kalea 10 |
| Sustrai fruta-denda | Kale Barria 1 |
| Thalasso-Eder | Kale Zaharra 42 |
| Txokolateixia | Kale Barria 16 |
| Urrutia Gizonak | Kale Barria 54 |
| Urtaza lentzeria | Kale Barria 14 |
| Urtxin loradenda | Portu kalea 5 |






ASTRONOMIA

# Bailara osoan zehar astronomia zabaltzen dihardu Ilatargik

NEREA MENOR

**Betidanik izan du gizakiak espazio edo unibertsoa aztertzeko interesa. Izarrei begira gure etorkizuna eta patua asmatzen saiatzen gara. Zeruko gorputz horiek guztiak aztertzen dituen zientzia da astronomia eta egunez egun jarraitzaile gehiago ditu.**


Ilatargi Taldeak sarritan antolatzen ditu behaketak teleskopioekin. ILATARGI

Astronomiako albiste asko daude eta sarri egiten dute salto albistegietara. "Horrela gertatzen da, adibidez, NASAk orain dela gutxi Ilargian ura aurkitu duela iragarri zuenean. Abuztuan, gainera, beti izaten da Perseiden izar euriaren berri", dio Manu Arregik, Ilatargi Astronomia Taldeko arduradunak.

Astronomiak non gauden eta zer garen jakiten laguntzen digula dio Arregik, eta zientzia horretako zerk erakartzen duen galdetuta, aurretik aipatutakoaz gain "zeruko gorputzak teleskopiotik ikustea", dio, edo "begi bistaz, leku ilun batetik, zerua ikustea. Izugarria da".

**ZALETASUNA ZABALDUZ**

Duela bost urtetik aztertzen ditu Ilatargik zeruaren inguruko kontu guztiak. "Taldearen helburua da bailara honetan astronomia zaletasun dugunok batzeaz gain, astronomia zabaltzea", azaltzen du taldekideak. Horretarako, hitzaldiak eta behaketa publikoak antolatzen dituzte Oñatin eta bailarako beste herri batzuetan ere. "Kuriositatez hurbiltzen da jendea, eta teleskopioak herriko plazetan jartzen ditugunean adin guztietakoak gerturatzen dira". Lehen Hezkuntzako neska-mutikoengana ere joaten dira. "Hiru ikastetxeetara joaten gara zerua erakustera. Oso gustura geratzen dira ikasleak, baita gu ere. Bailarako beste herri batzuetan horrelako zerbait egitea gustatuko litzaiguke, baina kide gutxi gara", dio Manuk.

Horrenbeste ekintza artean, Bizkaiko eta Arabako astronomia taldeekin elkartzeko astia ere badute oñatiarrek. "Behin baino gehiagotan joan gara elkarrekin behaketak egitera. Irailean, gainera, inguruko astronomia elkarte guztiak bildu ginen Aguraingo astronomia jardunaldietan".

**AURRERA BEGIRA**

Gabonetarako Luis Alfonso Gamez kazetariaren hitzaldia antolatu du taldeak; eta datorren urteari begira, badute berritasunik: "Bergarako UNED eta Kutxaren eskutik emango ditugun Astronomia ikastaroak. Antzuolan udaberrian eta Elgetan udazken partean izango dira".

## Gertakari paranormalak

**Hilaren 30erako, urtea ondo amaitze aldera, *Paranormala esperimentatuz* izeneko hitzaldia antolatu du Astronomia Taldeak. Luis Alfonso Gamezen eskutik, hildakoekin komunikatu, rock abestietan mezu satanikoak aurkitu, froga telepatikoak egin eta Uri Gellerren antzera koilarak tolestu nahi dituenak kultura etxera joan besterik ez du. Bada, 19:00etan hasita, misterioaren arrastoa jarraitu, ikuspegia zabaldu eta esperientzia ikusgarriak lehenengo pertsonan bizi izatera ausartu.**




Zorionak eta Urte berri on!
leku eta egun ahaztezinak
120 eta 250 gonbidaturendako jangelak ditugu
Etxe Aundi
Jatetxea-Hotela**
www.etxeaundi.com
Torre Auzo 9
OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56

HERRI KROSA

# Aurtengo San Silbestrea herrikoiagoa izango da

## Samurragoa izateko, ibilbidea lauagoa izango da

NEREA MENOR

**Partaideen gozamenerako, ibilbideko puntu zailenak kendu egingo dituzte, eta '2009 ixa 2010 San Silbestrea' aurrekoetan baino herrikoiagoa izango da.**

Herritar gehiagoren parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin, ibilbide suabeagoa antolatu du Antxintxiketan Kirol Elkarteak, eta aldapak kentzea erabaki, Eteo eta Errekaldekoek ibilbidea zailtzen zuteneta. "Herrikoiagoa izango da *2009 ixa 2010 San Silbestrea*. Parte-hartzaileek ondo pasatzea da gure asmoa, bide errazagoa jarri eta afal aurreko lasterketa dibertigarriagoa izango da", dio Jexux Arregik, Antxintxiketa Elkarteko zuzendariak.

Lasterketa 17:00etan jokatuko da eta izenematea ordu erdi lehenago itxiko da. Iaz 230 korrikalarik hartu zuten parte eta aurten kopurua berdintzea edo gehitzea da asmoa.

Lasterketa nagusiarekin batera, urtero moduan, beste lasterketa bat egongo da gaztetxoagoak direnentzat, arratsaldeko ordu bi eta erdietan.

**IBILBIDEA: 8,2 KILOMETRO**

Hain zuzen ere, 8,2 kilometroko ibilbidea izango da aurtengoa. Errekalde, San Lorentzo eta Olakuako aldapak kendu egingo dira, eta bidea ia lau utzi.

Plazako kiosko albotik irten ondoren, korrikalariek hiru aldiz egingo dute zirkuitua: plazatik Atzeko kalera habiatuko dira; hortik, Arantzazuko Ama, Aita Lizarralde eta Euskadi etorbidea zeharkatu ondoren, Kale Berrira helduko dira, gero Kale Zahar, Lizaur eta Unibertsitate etorbidetik pasa eta plazara helduko dira.

> **Errekalde, San Lorentzo eta Olakuako aldapak kendu egingo dituzte**

> **Irabazleek saria jasoko dute eta gainerakoek opariak izango dituzte**

Hori guztiori hiru aldiz egin ostean aurtengo irabazleak ezagutuko ditugu. Bi sari banatuko dira momentu horretan, gizonezko onenari eta aurrena iritsi den emakumeari. Gainerako parte-hartzaileen artean opariak zozketatuko dira.

**HUTSUNEAK BETEZ**

2004ko otsailean sortu zuen Arregik Elkartea: "Atletismo kontuak antolatzeko garaian hutsune bat sumatzen nuen inguruan, beste leku batzuetan egiten ziren probak eta beti mugitzen ibili beharra nuen". Orduan bururatu zitzaion Arregiri Antxintxiketan sortzea: "Uste dut ez nekiela oso ondo non sartzen nintzen; zerbait antolatzeko dirua beharrezkoa da. Txirrin eta ate joka ibili ondoren lortu nuen", azaldu digu Jexux Arregik. Antxintxiketako kideak oso harro daude elkartearen lorpenekin. Urtean zehar, sansilbestreaz gainera, Torreauzoko krosa eta Oñatiko nazioarteko herri lasterketa antolatzen dituzte. Azken hori ospe handiko proba da eta datorren urtean Euskal Herriko 10 kilometroko errepideko txapelketa jasoko dute. "Federazioarekin berba egin ondoren, esan ziguten ez zitzaiela interesgarria iruditzen; edozelan ere, babesik ez jaso arren, aurrera eramango dugu eta Corpusetan egingo dugu.



Irudian, Yerai Varela, iazko San Silbestre proban. KONTZEJUPETIK



BERTSOAK

# Gabonetarako bertso saio ikaragarria antolatu du Eskolak

### Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi izango dira herrian

NEREA MENOR

**Oso herri bertsozalea da Oñati. Bertso saio eta afariez gain, bertsoak presente daude auzoko ekitaldietan, elkarteetako ospakizunetan eta antolatzen diren ia ekintza guztietan.**



Bertso Eskolak ez du atsedenik hartzen, beti dute saioren bat edo beste esku artean. BERTSO ESKOLA

Bertsozalea da benetan herria. Saio kopuruan, ez dakit beste herririk izango den Gipuzkoa osoan gehiago antolatzen dituenik", dio Iñaki Olaldek, Bertso Eskolako kideak.

Auzoetan eta baserri giroan sortutako bertsoei lekukoa hartu zieten bertso eskolek, eta Oñatikoak duela 27 urte ireki zituen ateak. Jose Mari Agirrebengoak, *Txinparta* bertsozaleak, martxan jarri zuen herritar batzuen laguntzarekin. "Zaletasuna, garaia, kultura, hizkuntza, hezkuntza, gazteria, herriarekiko konpromisoa... izango zituen arrazoi, seguruenik".

Gaur egun, zazpi taldek osatzen dute Bertso Eskola. Talde bakoitza bi irakasleren artean eramaten dute eta irakasle jarduteaz gainera, ikasi ere egiten dute. Orotara, 14 irakasle eta 40 ikasle inguru daude gaur egun.

**Abenduaren 24an Uribarri eta Lezezarri auzoetaraino eramango dituzte kantu eta koplak**

"Gu beste batzuk ereindako heziaren fruituaz gozatzen ari gara oraindik. Hala ere, badaude irakasle batzuk urte asko egin dituztela edo jarraitzen dutela oraindik irakasle izaten: Egoitz Aizpuru eta Mirari Sagartzazu, esaterako", diote Eskolan.

**GABONETAKO SAIOA**

Udalarekin batera bi bertso saio antolatzen dituzte urtero: sanmigeletakoa eta Errege bezperakoa.

Ohiko bihurtu da dagoeneko Errege bezperakoa. Bertsolarien mailak 400 lagun inguru biltzen ditu urtero, eta aurten ez da gutxiago izango: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi egongo dira. Oñatiko Bertso Eskola izango da gai-jartzailea.

Herri erdialdean bizi ez diren bizilagunek bertsoekin gozatzeko aukera izango dute baita ere. Lezezarri eta Uribarri inguruan izango dira, aurten ere, Trikiti Elkarte eta Bertso Eskolako kideak abenduaren 24an. Baserriz baserri eta astoa bidelagun hartuta kantuak eta koplak abestuko dituzte.

XANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
*Julian Uribeetxeberria Olalde*
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
*• Errekalde 8*
*• Kale barria 5*
*20560 OÑATI (Gipuzkoa)*
*Tel.: 943 78 01 54*



MUSIKA BANDA | INAZIO IBARRONDO ETA MIGEL MARIA GURIDI

# "Kalejirak, kabalgata, Gabon kantuak... lanpetuta ibiliko gara"


Inazio Ibarrondo Bandako zuzendaria eta Migel Maria Guridi perkusio jolea. N.M.

NEREA MENOR

**Musika Bandaren lanak garrantzi handiagoa hartzen du Gabonetan. Egun hauetan, jai giroan murgiltzen laguntzen digu eta kale argiztatuen bizitasuna osatzen du. Horregatik, Oñati osoan zehar ibiliko dira egunotan.**

**Aurreko astean, hilaren 13an, urteroko kontzertu berezia egin zenuten, ezta?**

Bai, joan den domekan, urteroko kontzertua eskaini genuen herriko parrokian. Entsegu askoren ondoren, ikastolako haurrek, Ganbara Txiki eta Ganbara Handi abesbatzetako abeslariek, Musika Bandako kideek eta parrokiko emakume eta gizonezkoen koruek hartu zuten parte emanaldian. Bada, 180 lagun inguru egon ginen bertan. Ordu eta erdiko kontzertua izan zen eta askotariko abestiak interpretatu genituen; estiloak ere asko: Gabon kantuak, *Jesukristo superstar*, jaialdia…

**Baina kontzertu hori ez da izango Gabonetan egingo duzuen bakarra. Nahiko lanpetuta ibiliko da Musika Banda jai hauetan, ezta?**

Egun hauetan nahiko lanpetuta ibiltzen gara, bai. Datozen egunei dagokienez, Gabon kantuak abestuko ditugu Gabon egunean, hilaren 24an. Arratsaldeko zazpietan plazan elkartuko gara kide guztiok eta udaletxeko arkupeetan abestuko dugu, ohikoa den moduan, 19:30ak arte. Abenduaren 31n, urteroko kalejira egiten dugu; bien bitartean, zaharren egoitzara ere joango gara. Erregе egunerako kalejira eta kontzertua ere antolatu ditugu eta bezperan, urtarrilaren 5ean, kabalgatarekin irtengo gara.

**Azkeneko urteetan zuzendari lanetan ibili zara eta, lan horretan murgilduta, musika tresnak alde batera laga dituzu. Baina aurretik musikari moduan aritu izan zara Musika Bandan. Noiz hasi zinen, Inazio?**

> "Sei urte nituenean hasi nintzen Musika Bandan. 61 urte bete ditut dagoeneko bertako kide bezala" INAZIO IBARRONDO

6 urte nituenean hasi nintzen bandan. 61 urte bete ditut dagoeneko bertako kide. Garai hartan aita zen zuzendaria eta orain nik egiten dut lan hori. Urte hauetan zehar danborra, flautina, klarinetea… jo ditut; alde batetik bestera ibili gara eta gustura beti; giro ona dago gure artean.

Oraingo banda 1979. urtean sortu zen. Urte hauetan jasan duen eboluzioa oso handia izan da eta musika eskolatik jende berri asko etorri da; gaur egun, 56 kidek osatzen dugu banda.

**Gabonetako emanaldiez gain, urtean zehar ere kontzertu asko ematen dituzue, ezta?**

17 kontzertu inguru ematen ditugu urtero. Horretaz gain, 18 kalejira ere izaten ditugu; Gabonetan egiten den kabalgatan parte hartzen du bandak; danborradan ere izaten gara; eta astean bi bider entseguak edukitzen ditugu: astelehen eta eguaztenetan 21:00etatik 22:30era. Azkenean, denbora luzea eskaintzen zaio. Ia egunero elkarrekin gaudela esan daiteke.

**Herritarren babesa jasotzen duzue?**

Bai, noski. Jende kopuru handia etortzen da emanaldietara eta gustura egoten dira.





ERATU FISIOTERAPIA ZENTROA
MIREN GALDOS

FISIOTERAPIA OROKORRA:
KIROL LESIOAK
AUTO ISTRIPUAK
ERREHABILITAZIO OROKORRA

FISIOTERAPIA OBSTETRIKOA:
ERDITZE ETA AMATASUNERAKO PRESTAKUNTZA
ERDITZE OSTEKO GIMNASIA

FISIOTERAPIA UROGINEKOLOGIKOA:
INKONTINENTZIA TRATAMENDUAK, PROLAPSOAK, IDORRERIA...

FISIOTERAPIA BASKULARRA:
DRAINATZE LINFATIKOA.

HAURRENDAKO MASAJE IKASTAROAK
(APUNTA ZAITEZ ORAIN; TALDE MURRIZTUAK).

Aseguruak: Lagun Aro eta Brokers

San Lorenzo 54, behea 20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 53 32 99 - 652 71 21 23
eratu@euskalnet.net

ARREGi
Nekazalturismoa



# KALITATEZKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK GERTU-GERTUAN

TXANDA

## ELEKTRIZITATEA, KRISTALDEGIAK ETA ITURGINAK

**TXINTXURRETA,** Kale Barria 5 Tel.: 943 78 0 54
**LETE,** Kale Zaharra 38. Tel.: 943 7814 78
**FELIX ARREGI**, Kale Barria 53. Tel.: 943 78 02 63
**RTV BELAR**, Olakua 1C. Tel.: 943 78 06 57
**ZELAIA**, Patrue kalea 5-10. Tel.: 943 78 04 04
**ELKORO** Kristaldegia, Kazarraga 1. Tel.: 943 78 24 06
**GELATZU**, Zubillaga 1. Tel.: 943 71 63 22

## OPTIKAK ETA ARGAZKIAK

**ITZIAR Optika** Kale Barria 32. Tel.: 943 71 82 88
**ARKAUZ Optika** Lazarraga 2. Tel.: 943 71 60 63
**ION ARZUAGA Argazkiak** Kale Barria 28. Tel.: 943 78 24 81

## BITXITEGIAK ETA OPARI DENDAK

**ARANBURU**Bitxitegia, Kale Barria Tel.: 943 53 45 34
**SUA**, Kale Zaharra 7. Tel.: 943 71 80 12

## ESTANKOAK, PAPERDENDAK ETA INFORMATIKA

**ALTUNA**, Kale Barria 19. Tel.: 943 78 00 03
**IRIZAR**, Foruen enparantza 6. Tel.: 943 78 00 15
**URZELAI**, Kale Zaharra 4. Tel.: 943 78 11 63
**HIRUKAR**, San Lorentzo 1. Tel.: 943 78 08 21
**HARITZA.** Kale zaharra 4. Tel.: 943 78 23 96
**URZAI**, Portu kalea 4. Tel.: 943 71 64 49

## JANARI DENDAK

**SUSTRAI** Kale Barria 1. Tel.: 943 78 00 90
**ANTXON** Harategia, San Lorentzo 5. Tel.: 943 78 25 83
**GARAI** Harategia, Arantzazuko ama 4 Tel.: 943 78 02 59
**TXANTXIKU HARATEGIA** (Jesus Odriozola),
Arantzazuko Ama 2. Tel.: 943 71 62 11
**EGAÑA** Okindegia, Kale Barria 35. Tel.: 943 78 14 67
**SAN MIGUEL KOOP.**, Kale Barria 8. Tel.: 943 78 12 17

## MERTZERIAK ETA LENTZERIAK

**ANE**, Kale Barria 54. Tel.: 943 08 14 09
**ARANTZA**, San Lorentzo 5. Tel.: 943 78 13 90
**KUTTUN**, Bidebarrieta 19. Tel.: 943 78 34 44
**URTAZA**, Kale Barria 14. Tel.: 943 78 01 89

## ZERBITZUAK ETA BESTE

**ALTUBE** Zerbitzuak, Portu kalea 5. Tel.: 943 78 12 65
**ARABA BIDAIAK**, Lazarraga 3. Tel.: 943 71 62 16
**OÑATI GARAJEA**, Goribar auzoa 9. Tel.: 943 78 13 50
**MAGDALENA GASOLINDEGIA**,
Santxolopetegi auzoa. Tel.: 943 78 21 05

## OINETAKOAK ETA POLTSAK

**OLALDE**, Kale Barria 38. Tel.: 943 71 61 36
**PATXI, San Lorentzo 9B.** Tel.: 943 78 10 25
**VIKY**, Kale Barria 30. Tel.: 943 78 05 41

## BURDINDEGIA, LOREAK ETA PENTSUAK

**ELORZA**, Kale Barria 17. Tel.: 943 78 07 80
**JUANITOSA, Kale Barria 24.** Tel.: 943 78 04 62
**KIMU loradenda,**
Kale Barria 17. Tel.: 943 08 16 07
**URTXIN loradenda,**
Portu kalea 5. Tel.: 943 78 22 41
**BELLOTZA** loradenda,
Bidebarrieta 19. Tel.: 943 78 03 04

## DEKORAZIOA, ALTZARIAK ETA ETXEKO EHUNGINTZA

**BARUE**, Santa Marina plaza 4. Tel.: 943 78 36 80
**ARANBURU,** Kale Zaharra 21. Tel.: 943 78 11 60
**PAKITA,** Santa Marina plaza 6. Tel.: 943 78 02 21
**MAIBI**, Mendiko kalea 2. Tel.: 943 78 14 80
**LANTZEN**, Kale Barria 57. Tel.: 943 78 36 79

## JANTZIAK

**MB**, Kale Zaharra 12. Tel.: 628 52 62 65
**CHIC**, Kale Barria 54. Tel.: 943 71 62 69
**LETAMENDI**,
Foruen enparantza 8. Tel.: 943 78 10 82
**MARKU,** Kale Barria 6. Tel.: 943 78 03 19
**N.I.,** Kale barria12. Tel.: 943 71 62 40
**URRUTIA** Erropa denda,
Kale Barria 54. Tel.: 943 78 14 24

## LURRINDEGIAK, DROGERIAK, MARGOAK

**JASONE**, San Lorentzo 10. Tel.: 943 08 14 62
**LAKET**, Lazarraga 3. Tel.: 943 78 30 84
**ARANBURU**, Kale Barria 47. Tel.: 943 78 19 99

## KIROLDENDAK

**ALZU S.L.**, Arantzazuko Ama 2. Tel.: 943 78 30 67
**LIZARRALDE** Kirolak, Olakua 16. Tel.: 943 78 29 86
**MENDIZABAL** Kirolak,
Kale Barria 39. Tel.: 943 78 11 26
**OSI** Mendi-Kirolak,
Mendiko Kalea 10. Tel.: 943 78 35 09

## OSASUNA ETA EDERGINTZA

**AMAIA DIAZ DE MONASTIOGUREN**,
Kale Zaharra 5. Tel.: 943 71 65 48
**Mª CARMEN**, San Lorentzo 4. Tel.: 943 78 08 86
**LAMIAK**, Euskadi etorbidea 15. Tel.: 943 78 20 50
**NIKOLAS ETA IGONE**,
Kale Zaharra 2. Tel.: 943 78 06 78
**Mª JOSE JAUREGIALTZO**,
Motxon 5. Tel.: 943 78 00 69
**D'OR ESTETIKA**, Errementari 5. Tel.: 943 53 36 47
**OREKA BELARDENDA**, Kale Barria 9.
Tel.: 943 53 34 93
**EKHI-EDER DIETETIKA**,
Ramaon Irizar 2. Tel.:943 71 63 00
**GUZTIZ EDER**,
Kale Barria 29 behea. Tel.:943 78 01 46

## OSTALARITZA, KAFE DENDAK ETA GOZOTEGIAK

**ARKUPE**, Foruen enparantza 9. Tel.: 943 78 16 99
**KOROSTI** Kafeak,
Bidebarrieta 13. Tel.: 943 78 04 20
**GORROTXATEGI**,
Kale Zaharra 24. Tel.: 943 78 03 30
**KIKU** Gozoki denda,
Kale Barria 7. Tel.: 943 53 34 93
**MIZKE** Gozoki denda,
Kale Zaharra 3. Tel.: 943 78 28 14

# OÑATI, ZURE ZENTRO KOMERTZIALA

**Txantxiku Dendarixen Alkartian partez,**

*Zorionak eta urte berri on!!*

**Goienkaria**

Egubakoitza / 2009ko abenduaren 18a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**




ARGAZKILARIA: IMANOL SORIANO

Udalatxen zulo bat
eitten hasi die
bertatik pasetako
dragoien bidie

Errementari gara
landuz burdinie
herensugerik barik
gurou bizittie

Zuen zerbitzura

Arrasateko Udala

**Goienkaria**

**Argiraratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Arduraduna** Edu Mendibil **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Mirian Biteri, Irati Agirreazaldegi, Arantzazu Ezkibel, Mireia Bikuña, Jasone Zabala, Jon Berezibar, Maider Arregi, Jokin Bereziartua, Monika Belastegi. **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA**
20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE**
20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA**
20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea**
Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza**
Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e:
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 7.450 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako aldizkaria

**Agurra**

Santamas Komisiñue, herriko hainbat kultura talde eta Arrasateko Udala

# Santamasetako agurra

Urtero lez, badator armaixora buelta bat ein eta iazko abenduen bertan gordetako baserritxar jantzixai hautsa kentzeko sasoia. Aurten be, Santamas jaixen antolatzailiok herritar danok gonbidatu nahi zaittuztegu abarkak, txapela, zapixe, gerrikue eta gainontzeko osagarrixek soinien hartuta Arrasateko kaliek betetera. Izen be, edo hola entzuten da sarri, ez dau nundik gatozen jakittie morukoik noruntz goiazen jakitteko.

Gurien, jai honek estilo ezagun bat euki dau aspaldixen. Abenduen aurrera ein ahala gure kaletako hormetan zintzilik egon da azken urtetan Antton Olariagan kartela. Jaixek iragarteko txerri surfistie, ehiztarixe, dantzarixe edo parrandazalie ikusi ahal izen dogu herritarrok, beraz, eskerrik asko Anttoni. Aurten, ostera, Santamasei indar berdinakin ongi etorrixa emuteko kartergile berri baten laguntza euki dou.

Esandakuek esanda, eta gure artien ez dazenak goguen hartute, umore onien eta dantzan, talue, txistorra eta sagardaua probau eta egun edar bat pasetia baino ez da falta.

Ondo pasau!






## AURKIBIDEA

**Egitaraua** > 04-05
**Umeak** > 06
**Elkarrizketa** > 07
**Txerria** > 09
**Txalaparta** > 10
**Elkarrizketa** > 11
**Kirol aukera** > 12
**Gospel kontzertua** > 13
**Eskaparate lehiaketa** > 14-15
**Azoka** > 16-17
**Kultur festa** > 18
**Maider Unda** > 19
**Boulder txapelketa** > 20
**Bertso jaialdia** > 21
**Musika** > 22-23
**Elkarrizketa** > 25
**Antton Olariaga** > 26
**Santamas kartelak** > 27
**Elkarrizketa** > 28
**Pilota** > 29
**Goikobalu** > 30
**Arrasateko gaiteroak** > 31



TROKO

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94



EGITARAUA

# ABENDUKO EGITARAUA

## Egubakoitza, 18

**19:00** Kulturateko Areto Nagusian, MARTIN MENDIZABALen hitzaldia: *Euskararen jatorrizko sustraiak.*

## Zapatua, 19

**11:00** VIII. Santamas Euskadiko BOULDER Txapelketa, *Punk that rock.* Lehiaketaren hasiera. Sailkapenak: herrikoia eta elitea, neskak.
**12:30** Herriko Plazan, Garesko eta Artaxoako LAIARIAK.
**13:00** Herriko Plazan, Bermeoko IRRINTZI taldea.
**17:30** Biteri plazan, haur eta gazteentzat baserriko jolas eta jokoak KULKIren eskutik.
**18:00** VIII. Santamas Euskadiko BOULDER Txapelketa, *Punk that rock.* Finala. Uarkapen.
**20:00** Amaia antzokian, JUAN MARI BELTRANen *Ttakun Ttan Ttakun* ikuskizuna.

## Domeka, 20

**10:00** Corazon de Encina kultura zentroan, XXI. SANTAMAS XAKE TXAPELKETA.
**11:00** Herriko kaleetan, SANTAMAS KROSA (umeak).
**12:30** Herriko kaleetan zehar koadrilen arteko SANTAMAS KROSA.
**12:00-14:00** Uarkape pilotalekuan ate irekiak BOULDER-az gozatu nahi duten guztientzat.
**18:30** Herriko Plazan, Arrasateko XIII. BINAKAKO SUELTO TXAPELKETA (14 urtez beherakoentzat).
**20:00** Amaia antzokian, BERTSO SAIOA. Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Erika Lagoma eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Egoitz Aizpuru. AEDk antolatuta.

## Astelehena, 21

**18:00** ETXAFUEGOAK.
**18:00** Herriko kaleetan zehar, BENTA ZAHARREKO MUTIKO ALAIAK, euskal kantu kalejira. Urretxu-Zumarragako eta Urrestillako kidez osatuta dago.
**18:00** Erakusleiho lehiaketaren sari banaketa.
**18:30** Arrasateko ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA eta KONPARTSA TXIKIA. Herriko Plazatik irteera.
**19:00** Herriko Plazan, *Krixis Bi* TXERRIAREN AURKEZPENA. Arabako Larreatik dator aurten ere.
**19:30** DRAGOIALDE txarangaren kalejira.
**22:30** Herriko Plazan dantzaldia HAITZAMA taldearekin.
**23:30** Herriko Plazan, ZEZENSUZKOA.

## Martitzena, 22

**09:00** ETXAFUEGOAK.
**09:30** UDALAXPE txistulari taldearekin eta Arrasateko GAITEROEKIN DIANA.
**10:00** Laubide Plazan, GANADU FERIA: idi pare bat; txarolesa, blonda, suitzar eta asturiar arrazako behiak; moxalak, behorrak, pottokak, poneyak, ahariak, ahuntz azpigorriak, ardi latxak, artzain-txakurrak...
**10:00** Biteri etorbidean, HEGAZTI ERAKUSKETA.
**10:30** Herriko Plazan, Aramaioko Sagardogileen SAGARDO dastatzea eta TALUAK.
**10:30** Jokin Zaitegi Plazan, ARTISAU langintzen jarduera FERIA.
**11:30** KALEJIRA: ARROSTAITZ eta LORE GAZTEAK dantza taldeak, Arrasateko TRIKITILARIAK, UDALAXPE txistulari taldea eta Arrasateko GAITEROAK.
**11:30** ITURENGO JOALDUNAK herriko kaleetan.
**11:30** INCANSABLES txaranga herriko kaleetan.
**12:00** Zaldibarren, HERRI KIROLAK: aizkora, australiar erako aizkora, aitzurrarekin mozketa, ingude eta lasto altxaketa, motozerrarekin irudiak eta trontza parte-hartzailea.
**12:15** Herriko Plazan, ARROSTAITZ dantza taldearen ekitaldia.
**12:45** Herriko Plazan, ARRASATEKO TRIKITILARIEN ekitaldia.
**13:00** Zaldibarren, HARRI-JASOTZAILEAK. Iñaki eta Inazio Perurena eta Miren Urkiola.
**13:15** Herriko Plazan, LORE GAZTEAK dantza taldearen ekitaldia.
**13:45** Herriko Plazan, TXERRI-DANTZA herrikoia.
**14:15** Portaloitik irtenda KALEJIRA HERRIKOIA Musakolako kiroldegiraino.
**14:30** Musakolako kiroldegian, HERRI BAZKARIA. Txartelak salgai: Monte, Kajoi, Basati eta Bengoa tabernetan. Salneurria: 15 euro. Umeentzat tailerrak egongo dira Txatxilipurdiren eskutik.
**18:00** Uarkape Udal Pilotalekuan PILOTA PARTIDUAK:
Diaz- Beobide // Olaetxea-Oteiza
Berasaluze VIII.a - Begino
Olaizola II.a edo Bengoetxea VI.a - Beloki.
**19:30** Herriko Plazan, TXERRI-DANTZA eta LARRAIN-DANTZA.
**20:00** Herriko Plazan, TXERRI ZOZKETA.
**20:00** Herriko Plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

## Eguaztena, 23

**20:00** Amaia antzokian GOSPEL kontzertua. The Georgia Mass Choir. Atlantako Joko Olinpiarretako hasiera eta amaiera ekitaldietan (1996) kantatu zuten.


PATRICIA
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
KOLLFLEX
WONDERS
GEORGES
LUPO
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS
MBT
NATURALISTA
OINETAKOAK
Yoar
Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

King's
Ile apaindegia
Ondo pasa Santamasak!
Zarugalde 23.
ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88


eya
etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku
Gabon zoriontsuak!
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE


Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
Santamas jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE




- **Laialari nafarrak Herriko Plazan**
  Laien gainean zein den azkarrena erakutsiko digute bihar, zapatua, Garesko eta Artaxoako laialariek. Apustuak ere egin ahal izango dira.
- **Bermeotarrak irrintzika zapatu eguerdian**
  Bermeoko irrintzi taldeak erakustaldia egingo du: 14 emakumek eta bi mutil gazte irrintzilari, txistulari bi, txirula eta alboka jotzaileak eta atabalariak.
- **Baserriko jolas eta jokoak zapatu arratsaldean**
  Zapatu arratsaldean, baserriko jolas eta jokoak erakutsiko dizkigute Kulkikoek. Ume zein helduek izango dute aukera jokoekin eta jolasekin gozatzeko.
- **Bi pilota partidu ikusgarri Uarkapen Santamas egunean**
  Diaz eta Beobide, Olaetxea eta Oteitzaren aurka; Berasaluze VII.a eta Begino, Olaizola II.aren edo Bengoetxea VI.aren eta Belokiren aurka. 18:00etan.
- **Euskal kantu kalejira bezperan**
  Santamas bezperan, Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldekoek euskal kantu kalejira egingo dute. Eskusoinua, biolina, gitarra, dultzaina, txirula, aho-soinua eta perkusioa darabilte.
- **Ganadu feria Laubide plazan egingo dute**
  Iaz bezala, Santamasetako ganadu azoka Laubide plazan izango da aurten. Idi pare bat, lau arrazatako behiak, zezenak, astoak, ardiak, pottokak…
- **Hegazti erakusketa**
  Biteri etorbidean hegaztiak. Aurtengo berritasuna euskal oiloa. Bestela, oilaskoak, kapoiak, usoak, ahateak, antzarak…
- **'Krixis Bi' txerria aurkeztuko dute domekan**
  *Krixis Bi* txerria Larreatik dator. Astelehenean aurkeztuko dute, Herriko Plazan.




# très Bonn.

Très Bonn hitz gutxitan Citroen C5-ak zer adierazi nahi duen esateko era da. Azken xehetasun txikieneraino kalkulatutako elegantzia eta teknologiaren nahasketa da. Benetako luxua zein den adierazten duen espresio adimentsua : Beste ezer baino lehen kalitatea.Egundoko kotxea, ondo pentsatua, ondo eginikoa…. Izaera alemana duten azken berrikuntzak eta benetako frantses izpiritua elkarrekin. Bi hitzetan "Très Bonn"

**Citroen C5 berria. Izaera alemana. Izpiritu frantsesa.**

Motorizazioak: Gasolina Din 215zp rainokoa eta diesela Din 208 zp rainokoa. • Bi suspentsio mota aukeran: Suspentsio hidraktiko III + esku-freno automatiko eta elektronikoa eta maldetan irtetzeko laguntza edo suspentsio metalikoa. Bi-xenon faro autodirekzionalak •Alboetako ijetzitako kristal intsonorizatuak • Gidariaren eserleku abegigarri eta masaje funtzioduna. • Aurreko eserlekuek 6 doikuntza elektriko dituzte (bizkarraldeko goikaldearen inklinazioa barne). • Nahi gabeko bide aldaketa alerta. ESP • 9 airepoltsa • Bi lekutako aire-girotu automatikoa • 7"ko pantaila duen NAVIDRIVE telematika sistema • GSM telefonoa, •europear kartografiía, 30 Gb dun disko gogorra eta CITROEN larrialdiak zerbitzua.

**CITROËN C5 BERRIA**

**Talleres Chapime, S.C.L**
Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala.

San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tailerreko ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

UMEAK

# Umeek jolasteko tailerrak herri bazkarian

## Txatxilipurdik haurrendako txokoa jarriko du kiroldegiko herri bazkarian



Gaztetxoak taloak egiten iazko Txikilandian. Urtarrilaren 2tik 4ra bitarten egongo da Gabonetan zabalik. TXATXILIPURDI

USOA AGIRRE

Santamas egunean lanean jardungo dute Txatxilipurdi elkarteko kideek ere. Musakolako kiroldegian egingo den herri bazkarian haurrendako txokoa jarriko dute eta bertan tailerrak eta jolasak egingo dituzte bazkarira joango diren txikienendako. Eneko Barberena Txatxilipurdiko kideak azaldu digu zergatia: "Bazkalostea haurrendako hain astuna ez izateko eta gurasoek ere bestelako egitarauaz gozatzeko aukera izan dezaten jarriko dugu haurrendako txokoa".

### TXIKILANDIA URTARRILEAN

Arrasateko gaztetxoendako Gabonetako hitzordua Txikilandia izan ohi da, dudarik gabe. Aurten ere egingo dute; urtarrilaren 2tik 4ra. Iaz baino egun bat gutxiagoz izango da zabalik, krisiaren eragina dela-eta.

Aurtengo Txikilandian egunen murrizpena ez da nobedade bakarra izango. Gurasolandiarekin hasi zuten bideari jarraituz, guraso eta umeak elkarrekin egoteko txokoak jarriko dituzte. Hauxe esan digu Barberenak: "Parkeko protagonistak haurrak dira, baina ildo bat hasi genuen Gurasolandiarekin eta hori lantzea interesgarria eta polita iruditzen zaigu". Hala, kiroldegiko kantxan tailer interaktiboa egongo da ume eta gurasoendako. Goian jarriko duten ludotekan ere gurasoek umeekin egoteko aukera izango dute.

**Guraso eta umeak batera Txikilandiako txokoetan**



**ELKARRIZKETA** GERMAN GALLASTEGI SANTAMAS KOMISIÑOKO KIDEA

# "Filosofia da herriarekin lan egitea eta herriarendako jaiak izatea"

UBANE MADERA

**Jai gehienetan moduan, Santamasetan ere atzeko lan mordoa izaten da jaia antolatzeko, eta horretan dihardu buru-belarri urteotan Santamas Komisiñuek. German Gallastegi kideak dio urrian hasi zirela lanean.**

**Krisia dago inguruan, Santamasetako txerria *Krixis II.a* da; zeuek ere igarri duzue krisia?**

Egitarauan ekintza potoloenak mantendu egiten dira, beste batzuk kendu egin dira, berriak ekarri... ez da erraza izan. Saiatu gara lortzen egitarau zabala egituratzen. Egia da aurten beherapentxo bat izan dela aurrekontuan, baina uste dut ondo moldatu garela.

**Zenbat lagunen artean?**

25 bat lagunen artean; urriaren erdian-edo hasten gara, eta bi hilabetean topera ibiltzen gara.

**Hori guztia antolatzea, baina, ez da erraza izango?**

Komisiñuen lantalde oso-oso ona dago. Badaude gauza finko batzuk urtero pertsona berak antolatzen dituztenak, eta, horrez gainera, lan banaketa egiten dugu.

**Egitarauari dagokionez, besteak beste, iazko herri bazkariko arrakasta gura duzue...**

Errepikatzearekin moldatuko ginateke. Iaz apustu handia izan zen Uarkapetik Zigorrolara pasatzea: herri barrutik urrunago dago Zigorrola, eta, gainera, jende gehiagorendako lekua bete behar zen. Azkenean, kiroldegia bete egin genuen eta oso gustura geratu ginen; ea, bada, aurten ere lortzen dugun.

**Parte-hartzean egiten duzue, justu, ahalegin handia, ezta? parte-hartzea bultzatzen...**

Filosofia da jai herrikoiak bultzatzea: herriarekin eta herriarendako. Zorionez, Arrasate dinamika handiko herria da eta hori ere Santamasetan ikusten da, parte-hartzaile mordoa dute Santamasek: txistulari, dantzari, trikitilariak... aniztasun horrek ematen die indar handia.

**"Arrasate dinamika handiko herria dela ikusten da Santamasetan; parte-hartzaile mordoa dute Santamasek"**



German Gallastegi, plazan, Santamasetako egitarauarekin. U.M.

**Olentzero eta Txoronpio eta Txoronpia-eta ere iragarri dituzue...**

Bai. Txoronpio eta Txoronpia abenduaren 24an eguerdian ibiliko dira, goizez auzoetan eta eguerdian Seberren. Olentzero 18:00etan hasiko da, ibilbide berriarekin: San Andres (herri eskola)-Doktor Bañez-Garibai-Maala-Portaloia-Erdiko kalea-Herriko Plaza. Gainera, prestatu ditugu saio batzuk guraso eta seme-alabak Gabon kantuak entseatu eta Olentzerorekin atera daitezen.

Bestalde, Olentzerok gozoki bereziak ekarriko ditu aurten: ume zeliakoen elkarte batek eskatu zuen haiendako egokiak diren gozokiak erabiltzeko, eta aurten Olentzerok botako dituen gozokiak gluten bakoak izango dira.



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51




**Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:**

# Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati, Muxibar, Taupa eta Gure Leku.

TXERRIA

# Aurten ere Larreatik ekarriko dute Santamasetako txerria

## Ohikoa denez, astelehenean, feriaren bezperan, egingo dute aurkezpena, 19:00etan Herriko Plazan

EDU MENDIBIL

**Dudarik gabe, Santamasetako txerria izaten da feria eguneko izarretako bat. Ikusmin handia pizten du urtero txerriaren aurkezpenak. Astelehenean iritsiko da *Krixis II.a* Arrasatera. Zozketa martitzenean egingo dute.**

Iaz, giro ekonomikoa txarra zela-eta, *Krixis* izena zeukan Santamasetako txerriak. Aurten, berriz, ezin esan giroak hobera egin duenik. Gauzak horrela, Santamas Komisiñoko kideek ez dute burua askorik kantsatu eta, film arrakastatsuekin edo pilotari-familiekin gertatzen den antzera, *Krixis II.a* izenarekin bataiatu dute txerria.

Txerriaren aurkezpena, ohitura den moduan, astelehenean, feriaren bezperan egingo dute. Herriko Plazan izango da aurkezpena, 19:00etan, eta, ohiturari jarraituz, herritar ugari hurbilduko direla espero dute antolatzaileek. Ikusmin handia pizten duen ekitaldia da txerriaren aurkezpena.

Aurten ere Arabatik, Larretik ekarriko dute txerria eta ikusteko dago aurtengo *Krixis*-ek iazkoaren marka hobetzen duen: 270 kilo inguruko pisua eman zuen baskulan *Krixis*-ek. Espero dezagun, loditzeko orduan, aurtengo txerriak krisiaren ondoriorik ez sufritzea. Edozein modutan, ez da ezagutzen, oraingoz, txerri meherik Santamasetako ferian. Ez izan zalantzarik txerri dotorea izango dela aurtengoa ere. Martitzenean jakingo dugu nork eramaten duen *Krixis II.a* etxera. Zozketa 20:00etan izango da.

### TXARTELAK SALGAI

Santamas Komisiñoko lagunek txerri zozketako txartelak saltzen jardungo dute feria egunean. Ea, bada, sari potoloa nork eskuratzen duen...

**Txerriaren zozketako txartelak salgai jarriko ditu aurten ere Santamas Komisiñuek**



Argazkian, iazko *Krixis* txerria. Haren lekukoa *Krixis II.*-ak hartuko du aurten. ARGAZKILARIA IZENA

Aldape Taberna Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69



JUAN MARI BELTRAN

# Ttakun da soinua eta saioaren muina

## Txalapartaren historian oinarritutako ikuskizuna zapatuan Amaia antzokian


Juan Mari Beltran eta Ixiar Jauregi txalaparta jotzen eta esperimentatzen. JUAN MARI BELTRAN

IKER BARANDIARAN

**Juan Mari Beltranek *Ttakun ttan ttakun* lana eskainiko du.**

Zapatuan izango da emanaldia Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

Zaila da ikuskizuna hitz gutxitan azaltzea, eta bat aukeratzekotan, hori *txalaparta* izango litzateke. Juan Mari Beltran musikariak instrumentu horren ibilbidearen gaineko liburua, diskoa eta DVDa kaleratu ditu.

Orain, baina, jasotakoarekin ikuskizuna osatu du eta bertan hainbat diziplina batu ditu: poesia, narrazioa, kantua, ikusentzunezkoak, dantza eta... txalaparta, jakina. Are gehiago, profesionalez inguratu da. Txalaparta jotzen Ander Barrenetxea, Ixiar Jauregi eta Aitor Beltran izango ditu Beltranek alboan. Jon Maia eta Vanesa Castaño dira dantzariak; eta Mireia Gabilondok gidoia egin du.

**AURRE-ESTREINALDIAK**

Ikuskizun hori txalapartaren historiari buruzko lan zientifikoan oinarrituta dago. Horren barruan sartzen dira lehenagoko txalapartarien ikuspuntua, azken urteotan jorratzen dabiltzan bide berriak eta etorkizunean jorra daitezkeenak ere.

*Ttakun ttan ttakun* ofizialki 2010eko urtarrilaren 9an estreinatuko da Tolosako Leidor antzokian, baina horren aurretik hainbat aurre-estreinaldi egitea pentsatu dute. Orain arte Urnietako Saroben eta Iruñeko Gayarre antzokian izan dira eta harrera itzela izan dute. Orain, Arrasaten ikusteko eta entzuteko aukera izango da.

Calcinor
QUÍMICA NATURAL
Grupo Amantegi

Kanpazar
Kobate
harrobiak

*Ondo pasau Santamas jaixetan*

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

**KANPANZAR HARROBIA S.A.**
Meatz-Erreka 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

**KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**
Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51

**ELKARRIZKETA** JOSE RAMON OTAMENDI HARAKINA

# "Santamas egunerako 500 bat kilo txistorra egiten ditugu"

MONIKA BELASTEGI

**Txistorra da Santamas eguneko protagonistetako bat, eta haren sekretu guztiak Otamendi harategiko Jose Ramon Otamendik ezagutzen ditu. Ohiturari jarraituz, astelehen eta martitzenean bezeroen artean txistorra banatuko du.**

**Santamas egunaren bueltan urteko beste sasoi batzuetan baino txistorra gehiago saltzen duzue?**

Bai, askoz gehiago. Santamas egunerako 500 bat kilo egiten ditugu. Hala eta guztiz ere, gaur egun txistorra urte osoan izaten dugu; nahiz eta zintzilik freskoan izan ez, enbasatuta izaten dugu. Hortaz, urte osoan izaten dugu txistorra saltzeko.

**Santamas egunean txistorra oparitzeko ohitura ere badaukazu.**

Normalean, bi egun lehenago hasten gara txistorra zatiak bezeroen artean oparitzen; betidanik ezagutu izan dudan ohitura da. Aurten, astelehen eta martitzenean emango dugu.

**Enkargu berezirik jasotzen duzu Santamas egunerako?**

Bai, postuetarako eta tabernetarako eskatzen dute: postuetakoek, saltzeko; eta tabernetakoek, euren bezeroen artean banatzeko.

**Nolakoa behar du izan txistorrak ona izateko?**

Txistorra egitea oso erraza da. Behar ditu txerri okela eta urdaia, eta piper txorizero ukitua eman nahi bazaio, bada, hori ere bai eta berakatza. Sekretu handirik ez du. Kontuan hartu beharrekoa da urdai pixka bat gehitzea; izan ere, okela bakarrik sartuz gero, siku gera daiteke.

**Ospatuko duzu Santamas eguna?**

Bai, lanean, goiz eta arratsaldez. Izan ere, Gabonen atarian gaude eta enkargu asko prestatu beharra ditugu ordurako. Hala eta guztiz ere, eguerdian denda itxi eta gero, emango dut bueltatxo bat eta postuak ikusi.

**"Txistorra egitea oso erraza da: txerri okela, urdaia, berakatza, eta piper txorizero ukitua eman nahi bazaio, hori ere bai"**



Jose Ramon Otamendi, harategian. JOKIN BEREZIARTUA

AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0238/2/97

ferrovial

ISO 14001 GESTION AMBIENTAL SGS

CESPA

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Ondo pasa jaixetan!

Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88
mondragon_cespa@cespa.es

KIROLA

# Kirolariendako jarduerarik ez da faltako aurtengo Gabonetan

## Ikasturtean zehar egiten diren ikastaroetan izena eman duten guztiak nahi duten ordutegi edo ikastarora joan daitezke

MIRIAN BITERI

**Eskaintza zabala gertatu dute kirol zerbitzukoek datorren asteei begira. Egitaraua kiroldegiaren ordutegi bereziaren araberakoa izango da.**


Aquagyma ere egin ahal izango dute datozen egunotan arrasatearrek. GOIENKARIA

Gabonetan denetarik egiteko aukera izango dute arrasatearrek. Egunotan aisialdiarekin lotutako jarduerak nagusitzen badira ere, kirol jarduerak egiteko aukera ere izango da.

Ikasturtean zehar egiten diren askotariko ikastaroetan izena emanda duten guztiek gustuko dituzten kirolak praktikatzen jarraitu ahal izango dute; edo, nahiago izanez gero, beste jarduera bateko saioetara joan ahal izango dira datozen asteotan. Esaterako, pilatesen izena emanda duenak spinninga, aquagyma eta halako jarduerak probatu ahal ditu.

Hori bai, patinajean izan ezik, gainontzeko jardueretako saioek ordutegi berezia izango dute. Datorren astea, esaterako, berezia izango da: martitzenean Santamasak eta eguenean Gabon eguna dira, eta, hortaz, eskolarik ez da egongo. Gainontzeko egunetan goizez zein arratsaldez egongo dira saioak. Abenduaren 28tik 30era bitartean ere goizez eta arratsaldez egingo dituzte horiek: pilatesa, 3. adinendako gimnasia, aquagyma, spinninga, aerobika, batuka, body pumpa eta body balancea praktikatzeko aukera egongo da.

**Ordutegi berezia egongo da; abenduaren 24an, 31n eta urtarrilaren 5ean, esaterako, 19:30ean itxiko dute kiroldegia**

### PATINAJE ESKOLAK

Bestalde, patinaje eskolak ohi bezala egiten jarraituko dutela azaldu digute Kirol Zerbitzutik; hain justu ere, abenduaren 21ean, 23an, 28an eta 30ean izango dira, 19:30ean.

Horrez gain, jakinarazi digute igeriketa eskolak gaur amaituko dituztela eta urtarrilaren 7ra arte ez direla berriro hasiko.

### ORDUTEGI BEREZIA

Kiroldegiko ohiko ordutegian ere aldaketak egongo dira: abenduaren 22an, 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da eta abenduaren 24an eta 31n eta urtarrilaren 5ean, 19:30ean itxiko dute. Urtarrilaren 6an, berriz, jaieguneko ordutegia dute: 08:30etik 14:00etara, hain zuzen.

Azkenik, hona hemen saskibaloia gustuko dutenendako oharra: Gabon torneoa abenduaren 27tik 29ra izango da, Iturripen.

LANDALUZE
HARATEGIA -TXERRIKITEGIA
BEREZITASUNAK
TRIPAKIAK
URDAIAZPIKOA
Zorionak eta
Urte berri on!!!
Iturritz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

MENDIZABAL OKINDEGIA

GABON ZORIONTSUAK!
Sebero Altube 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 60

ARPE
Ile apaindegiko artikuluak
• Kalitate onena, prezio ezin hobean.
• Aholkularitza.
• Konfiantzazko denda.
Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI · URDAITEGIA
Euskal okela, bertan egindako txorizoa eta janari prestatuak
Olarte kalea 20
ARRASATE
Ondo pasatu Santamasak!

ZABALA
oinetakoak
61 urtean elkarrekin ibili gara
Erdiko kalea 18
Tel.: 943 79 14 27

Jose Antonio
ile apaindegia
GABON ZORIONTSUAK!

Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

KONTZERTUA

# Gospelaz gozatzeko aukera, The Georgia Mass Choir taldearekin

## Abenduaren 23an The Georgia Mass Choir taldeak gospel soinuz beteko du Arrasateko Amaia antzokia


The Georgia Mass Choir taldea. GOIENKARIA

NAROA ODRIOZOLA

**Hilabete berezia dugu abendua. Ospakizunez beteta dago beti; Gabonak, Olentzero, bazkari eta afariak... eta gospela! Aurten ere gospel doinuez gozatzeko aukera izango dugu.**

Aurten ere gospel doinuz beteko da Arrasateko Amaia Udal Antzokia. Iaz, Tye Tribbett & G.A taldea izan genuen gurean kantari eta aurten, The Georgia Mass Choir talde estatubatuarra entzuteko aukera izango dugu Arrasaten.

Taldeak kontzertu bakarra eskainiko du Debagoienean, hilaren 23an, 20:00etan. Sarrerak dagoeneko salgai daude, 20 eurotan, eta *Generaltickts*-en webgunean eskura daitezke.

**Hilaren 23an The Georgia Mass Choir taldearen gospel musika Amaian (20:00)**

Ibilbide luzeko taldea dugu hori. Milton Bigghan agurgarriak Macon izeneko Georgiako herri batean sortu zuen, 1983. urtean. Edozelan ere, 1996. urtera arte ez zen ezagutzera eman. Urte hartan, The Georgia Mass Choir taldearen musika Atlantako Joko Olinpiarretan entzuteko aukera izan genuen; izan ere, hasierako eta amaierako ekitaldietan abestu zuen.

Horrez gainera, Whitney Houstonekin batera *Predikariaren emaztea* filmean kantatu zuen taldeak eta filmaren soinu bandako hiru kantu taldearen *Georgia Mass Choir Greatest Hits* diskoan daude. Era berean, disko hark 1997. urteko urtarrilean Billboard-eko gospel zerrendetan lehendabiziko postua eskuratu zuen.

Dagoeneko hamabi disko kaleratu ditu abesbatzak, eta, besteak beste, Stellar, Grammy eta Dove sariak irabazteko izendatua egon zen 1997. urtean. Horrez gain, Whitney Houstenekin batera NAACP saria irabazi zuen taldeak eta Stevie Wonder abeslariarekin kantatu du telebistako *Celebrated the Dream: 50 Years of Ebony* saioan. AEBetako hainbat telesaiotan ere azaldu da taldea.

Gospel tradizionalaren eta arrakasta handiko abestien errepertorioa aurkeztuko du The Georgia Mass Choir-ek Amaia antzokian.

Gospel musika XVIII. mendean jaio zen eliza afroamerikarretan, baina 30eko hamarkada arte ez zen ospetsu egin. Jatorrizko hitza *GodSpell* da eta *Jainkoari deia* esan nahi du. Fededunen musika bezala ezagutzen da; izan ere, abestietako letrak Jainkoaren gainekoak dira.


Izan zoriontsu 2010 urtean !!!
LEINTZ GARRAIOAK S.L
*Musakola 20 (Pereda)*
*20500 ARRASATE*
Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
e-maila: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com

oinesku
fisioterapia . podologia
Tel.: 943 77 07 89 Zarugalde 16 behea Arrasate
**Eider Zabala Casteig** (Kolg. Zenb.: 520)
Fisioterapia
Osteopatia
R.P.G. Berreziketa postural orokorra
**Idurre Osa Salegi** (Kolg. Zenb.: 239)
Podologoa
Ondo pasau Santamasak

LEHIAKETA

# Herriko dendariek gertu dituzte lehiaketarako erakusleihoak

## Abian da Santamasetako egitarauan eztabaidaezina den erakusleiho lehiaketa, eta aurten ere Ibai Arte elkarteko dendariak dira protagonista; sari banaketa abenduaren 21ean izango da, 18:00etan

JOKIN BEREZIARTUA

**Martitzenean, hilak 15, amaitu zen erakusleiho lehiaketan parte hartzeko epea; beraz, eguaztenetik martxan da sariketa: plaka eta 750 euro banatuko dira hiru onenen artean**

Santamasetako erakusleiho lehiaketa ekimen eztabaidaezina bihurtu da azken urteetan Santamasetako egitarauaren barruan. Santamas Komisiñuen beste ekitaldi garrantzitsu bat da, dudarik gabe.

Sariketa antolatzen dihardutenek ezin izan dute zehaztu zein urtetan egin zen lehenengoz lehiaketa, baina, ziurtatu dutenez, "badira urte batzuk".

Bada, herriko merkatariendako bultzada handia da lehiaketa; hau da, euren irudia eta erakargarritasuna hobetzeko aukera da. Izan ere, urte osoan zehar bezala, merkataritza-gune handiek Gabonetako salmenten zati handi bat kentzen diete merkatari txikiei. Hortaz, halako ekimenak lagungarri dira herriko merkatariendako.

**IBAI ARTE PROTAGONISTA**

Erakusleiho lehiaketan izen propiorik badago, hori Ibai Arte merkataritza elkartea da. Izan ere, aipatu elkarteko dendak dira lehiaketan parte hartzen dutenak, salbuespenak salbuespen. Aurten, antolatzaileek aditzera eman dutenez, elkartetik kanpo bi denda bakarrik dira lehiaketan izena eman dutenak.

**ABENDUAREN 16TIK 21ERA**

Martitzena, abenduak 15, izan zen Udaleko Kultura Sailean izena emateko azken eguna. Ordurako parte-hartzaileek muntatuta izan behar zuten euren erakusleihoa, eta eguaztenean abiatu zen lehiaketa. Hala, epaimahaiak abenduaren 21era arte izango



Iaz hirugarren egin zuen Buart loradendak; irudian, loradendako Eva Romero aurtengo erakusleihoa atzean duela. JOKIN BEREZIARTUA

BEREYA elektrizitatea

K21 KALITATEA Empresa Registrada Nº 3/02/003 Nivel 3

• ALARMAK. TB. SATELITEAK
• ANTENA KOLEKTIBOAK
• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
• TB ZERBITZU TEKNIKOA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• SOINU INSTALAZIOAK
• KONPONKETAK OROKORREAN
• ATEZAIN AUTOMATIKOAK
• LTD ANTENAK (Lurreko telebista digitala)




Ondo pasau Santamasak!

Etxagibel Notarioa 1 - 2. Pab - ARRASATE Tel.: 943 79 13 79 / 670 08 34 10 Faxa.: 943 77 15 34

LEHIAKETA

du hiru erakusleiho onenak aukeratzeko, egun horretan egingo da-eta sari banaketa.

### SANTAMAS ETA GABON GIROA

Udaleko eta Ibai Arte merkatari elkarteko kideek osatzen duten epaimahaiak hainbat ezaugarri izango ditu kontuan erakusleiho onena aukeratzeko orduan: hasteko, irudimena eta originaltasuna, betiko topikoetatik irtetea estimatu egiten baitu epaimahaiak.

Gero, publizitatemezuaren baliagarritasuna; izan ere, dendariak saltzea helburu duenez gero, erosleari mezu eraginkorra helarazi behar zaio.

Baita erakusleihoaren itxuraren kalitatea ere, erakusleiho erakargarria izatea ezinbestekoa dela uste baitu epaimahaiak. Eta azkenik, Santamas eta Gabon giroarekin zerikusia izan behar du saria merezi duen erakusleihoak, ospakizunetako egun bereziok islatzeak berebiziko garrantzia baitu.

Horretaz gustiaz gain, merkatariek dendan saltzen dituzten ohiko produktuak jarri behar dituzte erakusleihoan. Hortaz, parte-hartzaileek badituzte bete beharreko hainbat baldintza.

### HIRU PLAKA ETA 750 EURO

Urtero moduan hiru erakusleiho onenak izango dira saria jasoko dutenak. Plaka bana eta 750 euro banatuko dira saritan. Hala, lehenak plaka 300 euro jasoko ditu, bigarrenak plaka eta 250 euro eta hirugarrenak, azkenik, plaka eta 200 euro. Lehen bi sariak Udalak emango ditu eta hirugarren saria, berriz, Ibai Arte merkatari elkarteak.

Hala ere, epaimahaiaren iritziz hiru sarietako bat merezi duenik ez dagoela uste badu, aukera izango luke saririk ez banatzeko.

### ERABAKIA, ALDAEZINA

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta, antolatzaileek azaldu dutenez, komunikabideen bitartez jakinaraziko da, "bere garaian". Bestalde, epaimahaiaren lana errazteko erakusleihoak argiztatuta izatea eskatzen dute. Honakoa da antolatzaileek eskatu duten ordutegia: lanegunetan dendak ixteko ordura arte eta jaiegun eta bezperetan 21:00ak arte, gutxi gorabehera. Aurrez esandako moduan, sari banaketa abenduaren 21ean egingo da, 18:00etan.

### OTAMENDI, 'FABORITO'

Iaz Otamendi harategiak irabazi zuen erakusleiho lehiaketa. Bigarren saria Ehune apainketa dendak eskuratu zuen eta hirugarren erakusleiho onena, berriz, Buart loradendarena izan zen.

Bada, iaz bigarren geratu zen Ehune dendako arduradunek uste dutenez, aurten ere harategiak irabaziko du; "Gure ustez, Otamendi da faborito", jakinarazi zuten. Honakoa gaineratu zuten: "Oso erakusleiho polita jarri dute, ardi horiek zein kurioso jarri dituzten ikustea bakarrik...".

Erakusleiho erakargarria jarri badute ere –eskuinaldeko irudian, aurten muntatu duten erakusleihoa–, oraindik goiz da Otamendikoek irabaziko dutela esateko; hala ere, parte-hartzaileen artean ikusitakoak ikusita, harrigarria litzateke hiru onenen artean ez geratzea.

**Hiru plaka eta 750 euro banatuko dira hiru erakusleiho onenen artean**

**Irudimena, originaltasuna eta Gabon giroa ondo islatzea hartuko dituzte kontuan**



Iaz irabazle izan zen Otamendi harategiak aurten aurkeztu duen erakusleihoa. JOKIN BEREZIARTUA

lurrindegia perfumeria ZARRAOA

Oparirako artikuluak • Larruzko artikuluak • Bitxiak • Kosmetika

Kanpatorrea 4, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 12 19









AZOKA

# Artisauen langintzak, animaliak, fruta

GOIATZ ARANA

**Hamaika produktu ikusi eta erosteko aukera egongo da Santamasetan, baita hain ohikoak ez diren langintzak ezagutzekoa ere.**

Artisau, baserritar eta ganaduzaleen erakusleiho izango dira Arrasateko kaleak Santamasetan. Batzuen zein besteen lana eta produktuak ikusi eta erosi ahal izango dira Laubide plazan, Biteri etorbidean, Seber Altube plazan... Santamas eguneko saltoki handiak goizeko hamarretan irekiko ditu ateak, festa egunari hasiera emango dioten etxafuegoak bota eta ordubetera.

**GANADU FERIA**

Aurtengo ganadu feria iazkoaren antzerakoa izango da, baina nobedadeak ere izango ditu; esaterako, behietan, lau motatakoak izan dira: horien artetik hiru –asturiarrak, blondak eta suitzarrak– ikusi ahal izan ditugu lehenago ere Arrasateko kaleetan; aldiz, txarolesak lehen aldiz izango dira aurten. Charolen (Frantzia) dute jatorria arraza horretako behiek, zuri-krema koloreko ilajea dute eta haragi ekoizpenerako baliatzen dira.

Behirik ez da faltako, beraz, Santamasetako ferian, baina bestelakoak ere izango dira, noski: idiak, zezenak, astoak –tartean, euskal arrazakoak–, moxalak, behorrak, pottokak, poneyak, zaldiak, ahariak, ahuntz azpi-gorriak, latxa eta sasi ardiak, artzain-txakurrak... Animalien txokoa Laubide plazan egongo da.

Biteri plazak, berriz, hegazti erakusketa hartuko du: oiloak, oilaskoak, kapoiak, usoak, ahateak, antzarak... eta aurten, estreinakoz, zilar barietateko euskal oiloa.

**EUSKAL OILOA**

Orain hamarkada batzuk, oilo arraza hori oso jaki estimatua zen eta baserri askotan hazten zuten. Egun, ordea, desagertzeko arriskuan dago, nahiz eta pixkanaka ari den ugaritzen berriz ere, azken urtetan arrazaren zenbait zalek egindako lanari esker.

Bost barietate daude –gorria, marraduna, lepasoila, zilarra eta beltza– eta Atlantikoko oiloen ezaugarriak dituzte, Mediterraneokoek ez bezalakoak. Euskal oiloa larrean aske ibiltzeko hegaztia da, gogorra eta zainketa handirik behar ez duena. Haragitarako egokia da eta arrautzak ere erruten ditu –handi samarrak eta oskol ilunekoak–. Gandor soil eta ertainekoa da, belarritxo laburrak ditu eta hori koloreko hanka mardulak. Moko sendoa du, begi handi eta obalatuak, bizkarralde zabala eta sabel garatua.

**ARTISAUEN LANGINTZAK**

1978. urteaz geroztik, Santamas Komisiñuek gogotsu dihardu artisau feria antolatzen. Oraindik ere askok oroitzen dituzte garai hartako artisauak euren langintzak erakusten Portaloian; geroago, Herriko Plazako kontzejupean eta parrokiako arkupeetan egin zuten eta, 1994. urteaz geroztik, Jokin Zaitegi plazan. Bertan egingo da aurtengoa ere, 32. edizioa izango da eta 40 artisau batuko ditu.

**Berritasunak: euskal oiloa eta txaroles arrazako behiak**



Jende ugari hurbiltzen da azokan dauden produktuak erostera.

Frutak eta barazkiak erosi edo ikusi gura dituenak Seber Altube plazarako bidea hartu beharko du, eta epaimahaiak ere egingo du bertatik osteratxoa, alerik onenak aukeratu eta saritzeko.

Mokaduei eztarrian behera joaten laguntzeko aukera aparta Herriko Plazan egongo da: Aramaioko sagardogileen sagardoa dastatu ahalko da.



Herritarrak ere baserritar jantziak eramaten dituzte. IMANOL SORIANO

**DOINUA: "MARTXA BATEN LEHEN NOTAK" (MIKEL LABOA)**

ARGIZ JOSI ZAIGU HERRI DENA:
ETORBIDEA TA PLAZA,
GAZTAIN USAINA SUMA LITEKE,
HORI KUKURUTXO JASA!
HOTZAREN ONDORIOZ ARNASAK
SORTZEN DU LURRUNEZ TRAZA,
BAINA GABONEN MAGIAK POZIK
HARTARAZTEN DIGU_ARNASA!
OPARIAK ARBOLA AZPIAN,
BERE PAPER, BERE KAXA.
UME BAKOITZAK DIHARDU POZIK
JOLASTUZ BERE KASA.
NAHIZ TA ARAZOAK ERE EGON,
ETA EZ IZAN ERRAZA.
URTE BERRI ON GUZTI-GUZTIOI
TA GABONAK ONDO PASA!

EGILEA: XABI IGOA. 2 BAT.




Helena Azkarragaurizar. 2BAT. Taldea

Arrasate Herri Eskola

Arrasate INSTITUTUA

AZOKA

# ak, barazkiak eta sagardoa



IMANOL SORIANO



Hegaztiak ere ikusgai egongo dira aurten. IMANOL SORIANO



Postreak ere ugariak dira azokan. IMANOL SORIANO

ELKARRIZKETA J. A. ARETXAGA

## "Itxura eta zapore politeko sagardoa ekarriko dugu"

G.A.

**Aramaioko Sagarzaleen Elkartea arduratuko da herriko plazara joaten direnei sagardo nahiz sagar-zuku tragoxka eskaintzeaz. Gustura geratu ziren iazko esperientziarekin eta aurten errepikatu egingo dute.**

**Sagardo berria gorpuzten ari da oraindik; iazkoa ekarriko duzue. Zer moduzkoa dago?**

Polita dago kolore itxura zein zapore aldetik. Eguraldi onak sagar gozoak utzi zizkigun eta hori ona da sagardotarako.

**Zenbat litro banatzeko asmoa duzue?**

300-400 litro ekarriko ditugu.

**Eta sagar-zukua ere bai...**

Bai, eta merezi du probatzea, primerakoa dago-eta; Aramaion eta inguruan arrakasta handia izan du. Alkohol bakoa da, eta, beraz, edonork edan dezake; gure produktu izarra da.

**Zer iruditzen zaizu Santamasetako feria?**

Oso ondo. Baserritarrontzako garrantzitsuak dira horrelakoak, gure produktuak kalera ateratzen laguntzen digute-eta.

**Lan egin eta etxera?**

Ez, ez. Emango dut bueltatxo bat azokan eta aprobetxatuko dut zer edo zer erosteko; nekez bueltatuko naiz etxera esku-hutsik.



Oskar Elizburu. GOIENKARIA




BERTAKOTZEA

# Etorkinekin ikasi, gozatu eta elkar ezagutu

## Kultura aniztasunaren IV. jaia, Ekin Emakumeen eskutik

IKER BARANDIARAN

**Hilaren 26an kultura aniztasunaren jaia egingo dute Ekin Emakumeek, Nubik eta Elkar Hezik Herriko Plazan, 17:00etatik gauera bitartean**

Ekin Emakumeek urteak daramatzate etorkinekin eta bazterkeria arriskuan daudenekin lanean. Harrera egin, lagundu eta euskara eta euskal kulturaren ezagutza dira eskaintzen dietena.

Horren barruan, azken lau urteotan kultura aniztasunaren jaia antolatu ohi dute, herritarren eta kanpotik etorritakoen arteko integrazioa bultzatzeko.

**MUSIKA, GASTRONOMIA...**
Hala, hileko azken zapatuan, aurten, Nubi eta Elkar Heziren laguntzarekin jaia egingo dute Herriko Plazan. 17:00etan, umeendako talogintza, aurpegi margotzea eta sahararren moduan janzteko tailerrak egingo dituzte umeendako. Horren ostean, 18:30ean, Cinco para los Cinco eta Harresian Zulo taldeek kontzertua egingo dute Euskal Herriko eta atzerriko musika nahastuta. Eta dantza emanaldia ere izango da.

Jaiari bukaera emateko, 20:00 aldera, hainbat herrialdetako janaria eta tea prestatuko dute.

> **Etorkinei eta bazterkeria arriskuan daudenei laguntzen diete**

**ERAKUSKETA HARRESIN**
Eta, jai horrekin lotuta, zapatutik hilaren 31ra bitartean SOS Arrazakeriak utzitako *Emakume inmigrantea eta bizilaguna* erakusketa egongo da ikusgai Harresi aretoan. Arratsaldeetan, gutxienez, ikusi ahal izango da.


Beste herri batzuetako gastronomia dastatzeko aukera egongo da. EKIN EMAKUMEAK

JOMA
Urte Berri on!

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE



**ELKARRIZKETA** MAIDER UNDA GAZTA EGILEA

# "Baserria da ni zorion egiten nauena"

ENEKO AZKARATE

**Baserritarrak dira Santamas feriako protagonista nagusiak. Oraindik ere. Biterin eta Seber Altuben jarriko dituzte haien postuak. Horietako batean izango da erosgai Maider Unda aramaiorrak egiten duen Atxeta gazta.**

Biteri zeharbidean egongo da hegazti erakusketa: oilaskoak, kapoiak, usoak, ahateak, antzarak eta beste hegazti batzuk. Berritasuna izango da euskal oiloa. Baina, horretaz gain, egongo dira 60 postu, eta produktu ugari erosgai: gazta, erroskilak, euskal pastelak, eztia, turroiak, gozokiak, txorizoa, odolostea...; landareak, loreak, zuhaitzak...; baita Errioxako ardoa, txakolina eta sagardoa ere. Kataide txakolina, esaterako, Jabier Arregik eroango du eta Arantza Gordobil Xaxu gozotegikoa ere izango da. Gehienak Euskal Herrikoak, banaka batzuk Debagoienekoak eta bat edo beste Errioxakoa.

Seber Altuben, ostera, Debagoieneko baserritarren postuak izango dira: baratzeko sasoiko produktuak, gazta, txorizoa... 21 postu, guztira. Gehienak Arrasatekoak.

> "Gazta ona egiteko ez dago sekreturik; denbora eman behar zaio"

**ATXETA-TIK BITERIRA**

Biterin postua jarriko dutenen artean dago Aramaioko Atxeta baserriko Maider Unda borroka libreko txapeldun ezaguna –domekan izendatuko dute Aramaioko alaba kutun–. Zehatzago esateko, haren ama, Maria Luisa Gonzalez Audikana, egongo da, nahiz eta Maider bera den baserriko "negozioa" daroana, iaz "inbertsio gogorra" egin ostean. Bezperan, Bilboko Santo Tomasetan ama eta alaba izango dira, han "askoz ere gehiago" saltzen dutelako: 100 bat gazta; baina Arrasaten, ama bakarrik: "Ez da oso plaza ona", dio. Lau anai-arreba dira eta Maiderrek jarraitzen du baserrian gurasoekin: "Baserria da ni zorion egiten nauena eta hortik atera nahi dut bizimodua; gogorra da, baina merezi du", diosku.


Maider Unda, Aramaioko Oleta auzoko Atxeta baserrian. XABIER URTZELAI

Atxeta baserrian 300 ardi inguru dituzte. Ardi latxak dira, Idiazabal jatorri izeneko gazta egitekoak. 3.000 bat kilo gazta egiten dute urtean. Otsailetik uztailera arte. Etxean saltzen dute, baina baita ferietan-eta. Orain dela astebete, esaterako, Orozkon "sari nagusia" eroan zuen Atxeta gaztak. Gazta naturala da, ketu bakoa. Maider Undak dio gazta ona egiteko sekreturik ez dagoela. "Lan" egin behar da, "denbora dedikatu, tenperatura zaindu...", eta "ezinbestekoa da esnea ona" izatea.



BOULDER TXAPELKETA

# Euskadiko boulder txapelketa jokatuko da Santamasetan

## VIII. Santamas boulder lehiaketa bihar izango da; aurten, Euskadiko txapelketa ere izango da

NEREA MENOR

**Bihar bertan, goizeko hamarretan hasiko da dortsal banaketa herrikoia Uarkape pilotalekuan. 11:00etan, eliteena. Egun osoan eskalatzen ibili ondoren, iluntzeko seietan hasiko da finala.**






Jende askok hartu zuen parte iazko txapelketan; inguruan asko praktikatzen den kirola da. GOIENKARIA

Eskaladazale asko daude Euskal Herrian, "eta era berezian Arrasaten", dio Joxean Mulasek, Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko zuzendariak. "Txapelketetan parte hartzen duten lehiakide gehiago daude Arrasatekoak, Bilbokoak edo Gasteizkoak baino".

Horren arrazoia boulder eta eskalatzailezaleek eskuragai duten azpiegitura izan daiteke: tonifikazio zentroa eta rokodromo zainduak, adibidez. "Afizio sendoa dago eta gaztetxoak, hori ikusita, *harrapatuta* gelditzen dira", dio Mulasek. "Gure asmoa urtero 50 kide berri ingurru izatea da; badirudi lortuko dugula. Dagoeneko federatzen hasi gara".

Azkenaldian geroz eta jende gehiagok probatu du boulderra eta baita zaletu ere. "Adin guztietako lagunek praktika dezaketen kirola da; dinamikoa eta segurua, gainera", azaldu digu zuzendariak.

**ELITEKOA ETA HERRIKOIA**

Askotariko maila duten eskalatzaileendako proba izango da aurtengoa. Euskadiko txapelketa izan arren, antolatzaileek ez dute kutsu herrikoia alde batera laga nahi eta elite mailako atletak eta maila txikiagokoak lehiatu ahal izango dira bihar.

"Horrenbesteko arrakasta eman digun txapelketa herrikoiagoa ez dugu alde batera laga nahi". Alde batetik, maila herrikoiagokoak eta neskak lehiatuko dira eta, bestetik, elite mailako mutilak", dio Joxean Mulasek.

Kanporaketetan sei eta hamar boulder bitartean egongo dira, eta ordubete izango dute kirolariek ahal dituztenak igo eta puntuak lortzeko. Finalera heltzen direnek sei boulder igo beharko dituzte, bakoitza sei edo zazpi minutuan.

Finalean parte hartzeko, elite mailakoen taldean egotea ezinbestekoa da. "Partaideen kopuru handia dela eta, herri mailako taldea ez da finalean lehiatuko", azaldu zigun zuzendariak. "Gurean badaude probetan parte hartu nahi duten kide asko, baina hain maila handiko norgehiagoketan aritzera ez direnak ausartzen. Haietatik asko sartzen dira maila herrikoiagoko taldean, eta, probatu ondoren, hurrengo urtean elite mailako taldean sartzen dira, finaleraino heltzeko".

**Finalera heltzen diren kirolariek sei boulder igo beharko dituzte, sei edo zazpi minutuan bakoitza**

**Domekan ate ireki jardunaldiak egingo dituzte Uarkapeko boulder eremuan**

**ATE IREKIAK**

Domekan ate irekien jardunaldia egingo du eskalatzaile taldeak. "Uarkape frontoian izango da eta bertako boulderraz gain, federazioak gehiago ekarriko ditu", dio Mulasek. " Boulder konplikatuak egongo dira, baita errazagoak ere, umeentzat. Iaz jende asko gerturatu zen guregana eta aurten erantzun bera espero dugu".

Jose Ramon Otamendi
haragtegia
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!
Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili Santamasetan!
Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

ELKARRIZKETA | ANDONI EGAÑA | BERTSOLARIA

# "Plaza polita izaten da beti Arrasatekoa"


Andoni Egaña, 2009ko txapelketa nagusian. GOIENKARIA

NEREA MENOR

**Txapelketa nagusia lau aldiz irabazi duen bertsolari bakarra dugu Egaña. Aurtengo finalean, domekan, laugarren geratu zen eta oholtzari agur esan zion. Ez da txapelketan lehiatuko berriz. Hala ere, antolaketa lanetan jarraituko duela baieztatu du. Ez du bertsolaritza lagako. Domekan Arrasaten izango da.**

**Aurten ere Santamasetako saioan parte hartuko duzu. Zelako plaza izaten da Arrasatekoa?**

Duela 20 urte inguru hasi nintzen Santamasetan abesten; gogoratzen dut 89an bertan nengoela, baina agian aurretik ere. Amaia antzokiko urteak gogoratzen ditut, batez ere; batzuk parranda hasita etortzen dira saiora, besteak parranda hasi baino lehen, plaza polita izaten da beti Arrasatekoa.

**Urte askoan hartu duzu parte Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalean. Nola prestatzen da horrelako txapelketa garrantzitsu bat?**

Ba, daukan garrantzia emanez. Urduritasun puntu bat izatea b eharrezkoa izaten da. Aurtengoa nire zazpigarren finala izan da. Jakin behar dugu ez dela hil ala biziko ezer. Gainera, badakigu grina ere pixkanaka-pixkanaka urteekin joan egiten dela. Batez ere lehia kontua. Lehiakortasun hori galduz joaten da denborak aurrera egin ahala. Bizitzako beste esparru batzuetan ere izaten da hau; prozesu naturala da.

**Parte hartu eta garaile ere atera zara lau urtean. Hainbeste aldiz txapeldun izateak esanahi berezia dauka zuretzat?**

Ez du esanahi ikaragarririk. Txapelketa nagusia irabazten duzunean, bertso munduaren gunean eta jendearen begiradapean gelditzen zara. Baina, halakoetan, bakoitzak emango dio bere buruari nahi duen errepresentazio maila.

**19 urte zenituela hasi zinen bertsotan. Ordutik gaur egun arte urte nahikotxo igaro dira. Asko aldatu da ordutik hona bertsolaritza?**

19 urterekin hasi nintzen, bai; eta gauzak ez ziren orain bezala. Gainera, giro urbanistakoa nintzen ni; Zarautzen, herrian, bizi ziren bertsolariak ez ziren ohikoak. Nire kabuz lan egiten ikasi nuen asko. Ordutik hona asko aldatu da bertsolaritza: gai jartzaileen profila, alde batetik, epaimahaiko kideena, bestetik. Baina baita entzule eta bertsolarien ezaugarriak ere. Egunerokoan ez gara konturatzen, baina halako batean atzera begiratu eta egondako eboluzioaz konturatzen zara. Mailakatutako bilakaera izan du bertsolaritzak.

**Musikaren eta bertsolaritzaren arteko soka estutze aldera Bertsojazz izeneko proiektu aurrerakoian parte hartu duzu, ezta?**

Ez dut uste proiektu aurrerakoia denik; bertsolarientzako beste proba bat da, beste barik. Inprobizazioa asko landu beharra dago eta bertsoak tonu eta erritmo baten barruan sartzen ikasi behar da. Alde horretatik, zailtasun handiagoa du, proba zorrotza da. Duela bi urteko Jazzaldian hasi ginen eta egindako zortzi saioetan oso erantzun ona jaso dugu.

## Arrasaten parte hartuko dutenak


**Maialen Lujanbio**
Hernani

**Egañari lekukoa hartu, eta Maialen Lujanbio txapelketa nagusiko lehen emakume txapelduna da, domekan egindako saio borobilaren ostean.**


**Jon Maia**
Zumaia

**Urola Kostakoak bost aldiz hartu du parte bertsolari txapelketa nagusian eta aurtengoan hirugarren postua eskuratu du, Andoni Egañaren aurretik.**


**Erika Lagoma**
Lesaka

**Erika Filologia Hispanikoan lizentziaduna da. Birritan izan da Nafarroako eskolarteko txapeldun eta aurten Nafarroako txapelketan hirugarren postua eskuratu du.**


**Igor Elortza**
Durango

**Elortza 2005eko bertsolari txapelketa nagusian finalista izan zen. Euskal prentsan iritzi artikuluak idazten ditu, eta literatura lanak ere argitaratu ditu.**

## Finalaren errebantxa ikusteko aukera izango dugu?

**Arrasaten izango diren bertsolarien erdia baino gehiago aritu ziren domekan BECen: Jon Maia, hirugarren postua lortu zuena; Andoni Egaña, laugarren postua; eta Maialen Lujanbio, txapeldun nagusia. Momentu hunkigarriak bizi izan ziren bertan, hitz joko politak, algarak... Baina, batez ere, txaloak. Txalo zaparrada bertsolarientzat.**

IRUROK. S. L.
Eraikuntzak
Ondo pasa Santamasetan!
Meatzerreka, 5-bis Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 79 78 14
Apto. 246 • ARRASATE e-posta: irurok@irurok.com

MUSIKA

# Arrasate Musikaleko taldeek hainbat emanaldi egingo dituzte

## Gaur, egubakoitza, talde instrumentalen kontzertua Amaia antzokian; bihar, Txistulari Bandaren emanaldia Kulturaten; eta Gabon zaharretan, eguerdian, Bandaren ohiko kontzertua Amaian

EDU MENDIBIL

**Arrasate Musikaleko taldeek hainbat emanaldi iragarri dituzte datozen egunotarako. Lehen hitzordua gaur, egubakoitza, izango da, talde instrumentalen Gabonetako kontzertuarekin.**

Gaur, egubakoitza, 18:30ean izango da Gabonetako kontzertua, Amaia antzokian. Orkesta Gazteak, Banda Txikiak, talde mistoek eta tailer musikaleko haurrek hartuko dute parte; 200 bat neska-mutiko izango dira Amaiako eszenatokian.

Mikel Markiegik zuzentzen duen Orkesta Gazteak Beethovenen 5. sinfonia eskainiko du. Jarraian, haurren abesbatzarekin batera *Adeste fideles* Gabon kanta eskainiko dute. 5 urteko 50 haur inguruk jardungo dute kantuan Orkestrarekin.

**BANDA TXIKIA**

Banda Txikia 9-11 urte bitarteko 60 gaztetxok osatzen dute. Gaurko kontzertuan, Gaizka Gaztelurrutiaren zuzendaritzapean, hiru pieza joko dituzte, tartean Queen taldearen *We are the champions* kantu ezaguna. Jarraian, talde mistoen txanda izango da. Hiru taldek jardungo dute eta horietako bakoitza hamar lagunez osatuta dago. Arantzazu Idigoras da zuzendaria. Instrumentuei dagokienez, haize instrumentuak zein soka instrumentuak erabiltzen dituzte talde horietako musikariek. Besteak beste, *Monsoon* (Tokio Hotel) eta *This is the life* (Amy McDonald) joko dituzte. Gaurko kontzertuari emaiera emateko, Arrasate Musikaleko ikasle beteranoen eskutik, Los Jurasicos izeneko taldearen eskutik, Gramola izenburuko lana entzuteko aukera egongo da.


Arrasate Musikaleko Orkestra Gaztea. GOIENKARIA

**TXISTULARIAK ZAPATUAN**

Bihar, zapatua, Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du Kulturaten, 12:30ean. Zortzi txistularik osatzen dute taldea eta zuzendaria Juan Carlos


CAD/CAM

Prototipoak

Kontrolerako lanabesak

EKIDE S.L
San Andres auzoa 2. 4A pab.
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 43
Faxa: 943 71 21 43
e-mail: ekide@ekide.es

*Santamasetan eta Gabonetan ondo ibili!*

MUSIKA

Larreategi da. Hainbat euskal pieza eskainiko dituzte biharko emanaldian. Egitarauko piezen moldaketa gehienak Jose Inazio Ansorena donostiar txistulari ezagunak egindakoak dira.

**ABENDUAREN 31N**

Arrasate Musikaleko musikarien hitzorduekin amaitzeko, Gabon zaharretan kontzertua eskainiko du Bandak. Kontzertua Amaia antzokian izango da, 13:00etan, eta ohikoa denez, emanaldiaren aurretik kalejira egingo dute Bandako kideek. Hainbat urtetako hutsunearen ondoren, 1992an ibilbide berriari ekin zion Arrasateko Bandak. Gaur egun 65 lagunek osatzen dute eta Mikel Markiegi da taldeko zuzendaria. Gabon zaharreko kontzerturako hainbat pieza gertatu dituzte; euskal piezak bestelakoekin tartekatuko dituzte aipatutako emanaldian. Musika zale guztiei Amaia antzokira hurbiltzeko deia egin nahi diete antolatzaileek.

## Bandaren Gabon zaharreko kontzertuaren egitaraua

| | |
|---|---|
| 'Puenteareas' | R. Soutullo |
| 'Mendi-mendyan' | Jose Maria Usandizaga |
| 'Music for Christmas' | M. Carros |
| 'Music for Gladiator' | Hans Zimmer |
| 'The Phantom of the opera' | A. Webber |
| 'Benny Goodman memories' | Naohiro Iwai |



Arrasate Musikaleko Bandak emanaldia egingo du hilaren 31n Amaia antzokian. GOIENKARIA



Gaurko kontzertuan parte hartuko duen talde mistoetako bat, Arantzazu Idigoras irakaslearekin. GOIENKARIA



Banda Txikian 60 gaztetxok dihardute. Gaizka Gaztelurrutia da zuzendaria. GOIENKARIA




Amagara
Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

*Zorionak eta urte berri on!*

*Edertasuna ez da beharra, ondo sentitzea da*

*Aprobetxatu kabinako tratamenduen promozioa*

*Etxeko tratamenduen produktuetan beherapenak*

BADATOZ
SANTAMASAK!

AMETS
EDERRA
ITZALA
RUMBA
BENGOA
EXPRESS
MONTE
TXOKO
BRANKA
IAMAI
OKOROTEGI



**ELKARRIZKETA** IBAN GALAN | KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEA

# "Jendeak bi segundotan ulertuko duen kartela egin nahi izan dut"

NEREA MENOR

**Urte luzez Antton Olariaga ibili da Santamasetako kartela egiten. Aurten, gauzak aldatu egin dira eta lehiaketa deitu du Komisiñuek. Irudi aldaketa Iban Galanen eskutik gertatuko da; haren kartela ikusiko dugu kaleetan zehar.**

**Zorionak lehiaketa irabazteagatik. Espero zenuen?**

Eskerrik asko, oso pozik nago irabazle suertatzeagatik. Lehiaketa batean parte hartzen denean beti dago irabazteko aukera, baina uste dut inork ez duela bere burua irabazle ikusten, niretzako ezuste handia izan da. Gainera, norberak egindako kartela herrian zehar ikustea pozik egoteko arrazoia da.

**Zergatik aurkeztu zinen lehiaketara?**

Egia esan, nire ingurukoek bultzatuta animatu nintzen. Gainera, kanpoan bizita beti daukazu herrimin hori eta arrasatearra naizela sentitzeko modu berezi bat da. Horrexegatik aurkeztu nintzen.

**Zelan bururatu zitzaizun diseinu hori egitea?**

Betidanik izan dut nik pentsatzen ditudan gauzak azaltzeko gogoa eta kartel batean egitea modu erraza eta zuzena da. Badakigu gizartea ez dela bolada ona pasatzen ari: krisia, langabezia... Hori igartzen da kaletik zoazenean, nor bere munduan murgilduta dabil, presaka gora eta behera; horregatik, kartel sinplea egitea bururatu zitzaidan. Jendeak bi segundotan begiratu eta, denbora horretan, eman nahi dudan informazio guztia jasotzeko. Era berean, arreta emateko lau zatitan banatu dut eta kontrastearekin ikus-joko bat nabaritzen da kartela dinamikoagoa eginez.

**Orain Bartzelonan zaude. Etorriko zara Santamasetara?**

Lanik egin behar ez badut, Santamasetan izango naiz. Kartela herrian ikustea zer den jakin nahi dut. Esperientzia berezia da niretzat eta bertan egotea gustatuko litzaidake.



Bartzelonan Arte Ederrak ikasten dihardu Ibanek Iban Galanek. IBAN GALAN

**"Lanik egin behar ez badut, Santamasetan egongo naiz; nire kartela herrian ikustea zer den jakin nahi dut"**

**Arte Ederretako ikasketak bukatuko dituzu laster.**

Bai; bukaerako proiektua prestatzen ari naiz, eta oso gustura. Erakusketa bat egitea da nire helburua, eta, dena ondo badoa, ekainean aurkeztuko dut Arrasaten. Aurrerantzean marrazketarekin jarraitzeko asmoa daukat.

Jai zoriontsuak izan!



Garibai etorbidea 6
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11

"la Caixa"

**ELKARRIZKETA** ANTTON OLARIAGA ILUSTRATZAILE ETA MARRAZKIGILEA

# "Eguneko lanetan ilustrazioa aldarrikatu behar da"

NEREA MENOR

***Zakilixut*-en abenturak erakustegatik dugu ezagun, baina hori baino askoz gehiago da Olariaga: ilustratzaile, marrazkigile, euskal estiloa markatu duen sortzailea.**

**30 urtean egin dituzu Santamasetako kartelak. Urte hauetan guztietan, estilo eta teknika askotarikoak marraztu dituzu, ziur. Bereziki gustuko duzun baten bat badatorkizu burura?**

1977an-edo hasi nintzen Santamasetako kartelak egiten. Lehendabizikoz, Arrasateko zerbait jarri behar duzula etortzen zaizu burura eta herriko elementu arkitektonikoak bururatu zitzaizkidan; Portaloia, adibidez. Pixkanaka, Santo Tomasen inguruan pentsatzen, pertsonaia bati nagusitasuna emateagatik txerria aukeratu eta eman zezakeen joko ikaragarriaz konturatu nintzen. Baserri girotik atera eta txerriari, nahiz eta potoloa izan, salto bat emateko aukera eman nion, eta egoera ezberdinetan aurkeztu nuen. Hasieretako bat gogoratzen dut: oihanean sartu nuen txerri-tarzan bat, odolki eta txistor lianaz inguratuta zegoena. Oso gustura egin nuen kartel hura.

**Kritika onak jaso dituzu orokorrean?**

Sortzaileei askotan gertatzen zaiguna da ez dakigula zenbaterainokoa den egiten dugunaren oihartzuna. Hurrengo urteetan kartela egiteko eskatu zidatenez, pentsatzen dut gustukoa zela. Kutsu umoretsuarekin egindako lanak jendeak ulertuko dituen esperantzarekin egiten dira, baina askotan zaila da asmatzea.

**Aurten lehiaketa egon da; aurrerantzean, zer?**

Nik uste dut jende gazteari bidea eman behar zaiola horrelako lanak egiteko. Eta, batez ere, herrian bizi den jendeari. Askoz gertuagotik ezagutzen ditu, gaiak zorroztasun handiagoarekin tratatzeko. Hala ere, behar izanez gero lagunduko niela esan nien, oso harreman ona dugu, eta hemendik, Komisiñoko nire lagun zaharrei agur bero bat.

**Beste hainbat komunikabideren artean *Egin*-en eta *Egunkaria*-n egon zara. Orain, *Berria*-n ikus dezakegu *Zakilixut*. Nola sortu zen tira hori?**

Iritzi orrietan agertzen hasi zen. *Egin*-en hasieratik sartu nintzen, eta denbora-pasako orriak antolatzen ardura batzuk hartuko ote nituen proposatu zidaten. Geroago, Juan Karlos Egileor eta Jon Zabaleta etorri ziren kolaboratzaile moduan, eta niri, nahi izanez gero, egunero tira bat egiteko esan zidaten. Orduan, pertsonaia berri bat egitea pentsatu nuen: euskaraz eta sexuaren inguruan asko hitz egingo zuena egingo nuela argi nuen. Gero *Egunkaria*-ra joan zen eta gero *Berria*-ra. 32 urte pasa dira eta 8.000 tira baino gehiago egin ditut.



Antton Olariaga. JOSETXO ARANZABAL

**Nola ikusten duzu marrazkien eta ilustrazioen mundua?**

Onartua bai, errekonozitua ez dakit. Irudiak, badirudi, laguntzen duela: ondo pasatzen, ulertzen, dibertitzen…Baina gero, tamalez, kontraesan handia dago. Umeei ematen zaizkie irudiak, baina helduei ez. Nik beti aldarrikatzen dut hori; orain, edizio bereziak ilustratzen dira, baina eguneroko lanetan ilustratzea aldarrikatu behar da, gozamen hori ez dadila geratu. Sentsazioa badaukat marrazkilaria askotan gastu estra bat dela liburuaren egituran. Kostata lortu ditugu guk kontratuak. Orain, gutxienez, normalizatu egin dugu, baina nik ilustrazioa presenteagoa egotea errebindikatzen dut.

**Proiektu berririk baduzu esku artean?**

Kolaborazioak baditut komiki arloan, diseinugintzan ere jarraituko dut, beti bezala, maketak eta liburu barruak egiten. Ilustrazioak ere egiten ditut. Kartelismoan ere, aldian behin, baina dagoeneko gutxiago. Eguneroko lana ere badut, bihar *Berria*-n azalduko den tira egitea adibidez.

**"Kontraesan handia dago: umeei ematen zaizkie irudiak, baina helduei ez; nik beti aldarrikatzen dut hori"**

**"Santamasetako hasierako kartel bat gogoratzen dut, txerri-tarzan bat odolki eta txistor lianez inguratua"**

MANDOIN S.L.

MANDOIN ERAIKUNTZAK S.L.

GORA SANTAMASAK!

• ERAIKUNTZAK
• IGELTSEROTZA
• ERREFORMAK OROKORREAN
• GREMIOEN KOORDINAZIOA

San Andres, 2-A2 pabiloia ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 79 72 52 Mug.: 629 49 00 77
Biltegia. San Andres auzoa, 2 -2.(Lana) e-posta: *mandoin@terra.es*

KARTELAK

# Santamas kartel bilduma dotorea

## Santamasetako bederatzi kartel bildu ditugu, Antton Olariagak eginak

Santamas Komisiñuek 20 urte bete zituenean, ondorengo kartelak agertzen ziren karpeta kaleratu zuen.

Horrelako hiru orri betetzeko material nahikoa egon badago; izan ere, Antton Olariaga marrazkilariak 30 urtean egin ditu kartelak. Herriko paretak eta taberna sarrerak artista usurbildar horren lanekin apainduta egon dira urtetan. Bada, haren estilo bereziak gehienon begiradak jaso ditu, eta hitz politak ere.

**TXERRIA PROTAGONISTA**

Santamas eguneko protagonisten artean txerria dago eta merezi duen nagusitasuna ematen dio sortzaileak ondorengo irudiotan: elurretan eskiatzen ikus dezakegu urte batean eta hurrengoan Olinpiadetan jokatzen; konkistatzaile eta eskalaitzaile ere bada, baina beti du denbora jaietara hurbiltzeko.




1987ko kartela; txerria, eskiatzaile.




1988ko kartela: txerria, olinpiar.




1989ko kartela: txerria, *cowboy*.




1990eko kartela: txerria, txirrindulari.




1991ko kartela: txerria, aktore.




1992ko kartela: txerria, konkistatzaile.




1993ko kartela: txerria, eskalatzaile.




1994ko kartela: txerria, militar.




1995ko kartela: txerria, Marilyn.



ELKARRIZKETA JOSE RAMON ASKASIBAR BARAZKI ETA FRUTA LEHIAKETAKO EPAIMAHAIKIDEA

# "Tamainan txikia baina kalitatean handia da Santamasetako azoka"

MIRARI ALTUBE

**Gesalibar auzoko alkatea eta udal langilea da Jose Ramon Askasibar, baina Santamasetan aparteko eginbeharra du: fruta eta barazki lehiaketako epaimahaiko kide izatea. Horretan jardungo du, azken bost urteotan legez, martitzenean.**

**Zeintzuek osatzen duzue epaimahaia?**
Arrasateko hainbat auzotako alkateek; tartean, Udala, Meatzerreka, Uribarri, San Andres eta Gesalibar.

**Fruta eta barazki kontuetan aditua izan beharra dago?**
Ez, aditua izateraino ez, baina komeni da apur bat ezagutzea.

**Zelakoa izaten da Santamasetako azoka?**
Tamainan txikia, baina kalitatean handia. Goi mailako produktuak izaten dira eta presentazioa asko zaintzen dute: txukuntasuna… Goi mailako azoketan izaten diren produktu berdintsuak daude gurean ere.

**Zenbatek parte hartu izan dute beste urte batzuetan?**
25 edo 30en batek; batzuek bietatik izaten dute eta beste batzuek multzo bakarra, barazkiak edo frutak.

**Gehienak arrasatearrak izaten dira ala kanpotik ere asko datoz?**
Erdiak bertakoak direla esango nuke, eta beste erdiak kanpokoak. Gipuzkoarrak dira guztiak eta gehienak debagoiendarrak, nahiz eta bakarren bat etorri Goierri aldetik.

**Zerbait eskatzen zaie, baldintzaren bat bete beharra?**
Bakarra: etxean bertan egin edo ustiatutako produktuak izatea.

**Zer hartzen duzue kontuan epaitzerakoan?**
Dena, apur bat: produktuen itxura, kolorea, tamaina, usaina… Eta postuaren presentazioa ere bai, noski.

**Eta probatzeko aukerarik baduzue?**
Gura izanez gero bai. Ukitu ere egin daitezke, baina usaindu egiten dugu, gehienbat.

**Izan ere, itxurak zeresan handia izan arren, ez da guztiz fidagarria izango.**
Horixe, itxura kontuan hartuta bakarrik ezin da baloratu.

**Alde batetik fruta baloratzen duzue eta bestetik barazkiak, ala dena batera?**
Bereiztuta baloratzen ditugu eta multzo bakoitzeko produktu bakoitza hartzen da kontuan; hau da, barazki bakoitza bananbanan: piperrak, porruak… Eta fruten kasuan, berdin.

**Lan handia izango da, orduan…**
Bai, apur bat bai. 08:30 inguruan elkartu eta 09:30ak arte ibiltzen gara epaimahaikook postuz postu taula batzuk esku artean ditugula. Gero, ordu erdi inguru behar izaten dugu erabakia hartzeko. Tarte horretan postuetako produktuak ez dira salgai egoten.


Epaile lanetan ibiliko den Jose Ramon Askasibar. GOIENKARIA

**Eta samurra izaten da erabakia hartzea?**
Iritzi guztiak ez dira bat etortzen gehienetan eta geure artean eztabaidak izan ohi ditugu, baina, azkenean, adostasuna nagusitzen da.

**Haserretu izan zaizkizue parte-hartzaileak saririk ez dutelako eskuratu?**
Haserretu ez, baina begirada zorrotzen bat bota izan digute. Izan ere, etxeko produkturik onenak eroaten dituzte eta postua gertatzen ahalegin handia egiten dute; hortaz, halako lana hartu ondoren sariak gustura jasotzen dira.

**Zenbat sari izaten dira?**
Hiru sari barazkien alorrean, beste hiru frutenean eta gero, orokorra postuari. Gainera, sari berezia egoten da produktu ekologikoak dituztenendako.

**Saria eman ostean produkturen bat oparitu izan dizuete epaimahaikooi?**
Ez, gaur arte ez, baina nork daki aurten…

**Urte batetik bestera aldea egoten da?**
Bai, urtearen arabera –lehorra, euritsua…– kantitatean eta kalitatean alde handia egoten da.

**Eta aurten zelako produktuak egongo dira?**
Urte oparoa izan da; hortaz, onak egongo direla pentsatzen dut.

**Saria jasotako baserritarrek gero samurrago saltzen dute?**
Bai, salmenetan eragin handia dauka.

**"Dena hartzen dugu kontuan: itxura, usaina, tamaina… Postuaren presentazioa ere bai"**

**"Etxeko produkturik onenak eroan eta postua gertatzen ahalegin handia egiten dute"**

tipi tapa
Umeentzako oinetakoak eta abar...
Ondo pasa Santamasetan!

Otalora Lizentziatua 21- ARRASATE
Tel.: 943 79 67 78

Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA
marsans viajes
Santamas jai zoriontsuak!
Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

PILOTA

# Masters-ak erabakiko du ze aurrelari izango diren Uarkapen

## Abenduaren 22an, 18:00etan hasiko da pilota jaialdia


Aimar Olaizola Uarkapen izango da Masters txapelketan egingo duenaren arabera. DEPORTES.ORANGE.ES

XABIER URTZELAI

**Abenduaren 22an pilota jaialdia izango da Uarkapen, Udalak eta Asegarcek antolatuta. Jaialdia 18:00etan hasiko da, eta sarrerak 20 euro balioko du.**

Santamasetan Asegarcek nominan dituen pilotari erakargarrienetako batzuk ekarriko ditu Uarkapeko jaialdira. Baina egunotan jokatzen dabiltzan Masters BBK txapelketak baldintzatuko du nortzuk egongo diren Uarkapen.

Dagoeneko baieztatuta dago jaialdiko lehenengo norgehiagoka zeintzuek jokatuko duten: Diaz nafarrak Beobide bizkaitarra izango du bikotekide eta aurrean izango dituzte Olaetxea eta Oteitza gipuzkoarrak.

**PARTIDU NAGUSIA**

Lehenengo norgehiagoka jokatu ostean etorriko da partidu nagusia. Eta hor, aurreratu bezala, Asegarcek puntako pilotariak ekarriko ditu. Bi bikoteetako bat baieztatuta dago, Berasaluze VIII.ak eta Beginok osatuko dutena. Beste bikotean aurrelaria erabakitzeke dago, eta ikusteko dago Masters txapelketan nork egiten duen aurrera. Atzean Belokik jokatuko du, hori ere segurua da, eta, berez, haren aurrelaria Aimar Olaizola izatea aurreikusten badute ere, leitzarrak txapelketan aurrera egiten badu Bengoetxea VI.a izango da ordezkoa.

Hain zuzen ere, bi aurrelari horien gainean egin digu berba Asegarceko ordezkari Manolo Zubillagak: "Aimar pilotari osoagoa da, ez dago zalantzarik, baina orain momentuan Oinatzek beste txispa bat duela esango nuke. Akaso, aurreko koadroetan ibiltzeko ikusgarriagoa da". Bata egon edo bestea egon, jaialdia ikusteko mereziko du sarrerako 20 euroak ordaintzea.

**Sarrerak aurrez erosi ahal izango dira, edo egunean bertan**

Sarrerak Uarkapen bertan erosi ahal izango dira jaialdia hasi baino apur bat lehenago, edo, bestela, 656 799 423 telefono zenbakira deituta erreserbak egin daitezke.



GOIKOBALU

# 20 urte musikaz gainezka, harro egoteko moduko ibilbidea

**Santamas eguneko ospakizunetara batuko da abesbatza: datorren martitzenean herriko plazan kantuan arituko dira**

NEREA MENOR

**Daukan ibilbideagatik herriko abesbatza ospetsuena bihurtu da. Arrakasta izugarriak lortu ditu denbora honetan, eta baita erronka asko gainditu ere. Izaera askotariko pertsonak batzen ditu musikak Goikobalun.**



Gaur egun 145 kidek baino gehiagok osatzen dute Goikobalu abesbatza: nagusien taldeak, gazteenak, txikienak eta haurren tailerrak. GOIENKARIA

Duela 20 urte sortu zen Goikobalu abesbatza. Atzera begira eta urte hauetako nondik norakoak ikusteko garai apropoa. "Oraingo egoera nahiko ona eta egonkorra dela esango nuke", dio Rakel Murgiondok, gazteen taldeko zuzendariak. "20 urtean gure ibilbidea nahiko txukuna izan dela esan genezake, harro egoteko modukoa. Dena den, gugan ere krisiak eragina du, eta, Udalaren dirulaguntzaren menpe gaudenez, aurrekontuei aurre egiteko arazoak izaten ari gara. Beraz, datorren urterako ekintza asko ezin izango ditugu aurrera eraman".

**URTE BEREZIA**

Urte osoan zehar hainbat ekintza antolatu dituzte urteurrena ospatzeko. Apirilean, San Frantzisko elizan abestu zuten. 20 urteotan zehar abesbatzan ibilitako lagunek Mozarten *Requiem* abestu zuten. Bakarlari ezagunak ere ekarri zituzten: "Benetan hunkigarria izan zen emanaldia eta maila bikaina erakutsi genuela uste dugu", dio Murgiondok. Aste Santuan Granada aldean ibili ondoren, azaroan izan zen euren ekitaldirik esanguratsuena: Goikobalurekin harremana izan duten hainbat abesbatza gonbidatu zituzten eurek antolatutako musikalera. Gainera, Tolosako nazioarteko abesbatzen txapelketa aprobetxatuz, bertan parte hartu zuen Hungariako Discantus taldea ekarri zuten. "Azaroaren 20an gure eguna izan zen, Goikobaluko talde guztiek parte hartu genuen eta bukaeran, denok elkarrekin, XX. urteurrena ospatzeko konposatutako kantua estreinatu genuen: Jagoba Astiazaren *Bi begirada, zeru bat*, azaldu digu gazteen zuzendariak.

Herriaren babesa eta berotasuna oso gertu sentitzen dutela dio Murgiondok, batez ere kaleko emanaldietan, Maalako jaietan eta Gabonetan kalez kale ibiltzen direnean. "Esan beharra dago Udalaren babes ofiziala ere hor dagoela; hura gabe ezin izango genuke gure jarduera aurrera eraman. Hor egon da beti gure sorreratik".

**KONTZERTU HUNKIGARRIAK**

Euskal Herrian, eta hemendik kanpo, kontzertu asko eman dituzte. Hunkigarrienak, Murgiondoren iritziz, Argentinako euskal etxeetan emandakoak. "Euskal kantuak entzuterakoan bertakoak negarrez ikusteak eztarrian korapiloa sortzen zidan, eta ez dut inoiz ahaztuko".

## Gabonetan emanaldiz betetako agenda izango dute

**Gabonetan ez dituzte oporrak hartuko Goikobalukoek. Hilaren 22an, Santamasetan, plazan abestuko dute; 24an, kaleetan zehar kantuan ibiliko dira nagusiak; eta 26an, banatu egingo dira: Errenteriako Gabon kantuen txapelketan lehiatuko dira haur eta gazteak eta nagusiek kontzertua emango dute Bedoñan; auzotarrek antolatu dute emanaldia eta bertan abestera gonbidatu dituzte. Gabon kantuez gain, baina, euskal kantuak, erlijiosoak, folklore kutsukoak eta beste hainbat entzun ahal izango dira.**







ELKARRIZKETA | ENRIKE DOLARA | ARRASATEKO GAITEROAK

# "Erantzun onak lortzeko formulak aldatzen ditugu"

NEREA MENOR

**Enrike Dolara hasieratik dabil Arrasateko Gaiteroak taldean. Dagoeneko 30 urte bete dituzte kaleak alaitzen. Elkarrizketa egiteko arrazoi ezin hobea.**

**30 urteotako ibilbidea jasotzen duen CD-DVDa kaleratu berri duzue. Pozik egindako lanarekin?**

Bai, oso pozik. Urte eta erdi eman dugu proiektua lantzen aurrera eramateko. Gure ustez, bai grafikoki baita musikalki ere nahiko ondo azaltzen da zein izan den Arrasateko Gaiteroen ibilbidea. DVDan oso ondo ikus liteke zein izan zen gure hasiera, zein egoera, zeintzuk izan diren gure maisuak, zenbat lagun egin ditugun eta mugitu garen arlo ezberdinak.

**Zer jasotzen da bertan?**

CDan 16 obra grabatu ditugu. Horiek aukeratzeko orduan ondorengo irizpideak hartu ditugu kontuan: gaita munduan gehien erabiltzen diren erritmoak (kalejirak, balsak, fandangoa, arin-arina, abestekoak, dantzak eta salteroak ere); eta Arrasaterekin lotura handia duten abestiak: *Ziorla, Maritxu, Polonesa*, eta abar.

**Non grabatu duzue?**

CDa, gaita grabaketak, Shot! estudioetan egin genituen. Arrasate Musikaleko bandarekin, hari taldearekin eta haize eta perkusio taldearekin grabatu beharrekoak, aldiz, Aita Menni ospitaleko aretoan landu ditugu; eta Sakanako Haize Berriak musika bandarekin egindakoa Altsasuko Iortia kultura etxeko aretoan grabatu zuen.

Jose Marcos Morenoren laguntza ere izan dugu. Harena da *Maitia nun zira* abestia. Alemanian bizi denez, bertako estudio batean grabatu zuen eta gero hona bidali, guk gaitarekin nahasteko.

*Hasiko naiz* obraren organo eta tinbalak Arrasateko San Juan Bautista parrokian grabatu zituzten Aitor Oleak eta Nestor Moralesek, hurrenez hurren. Horrelako proiektu batek denbora luzea eskatzen du; koordinazio aldetik, gehienbat.



Taldekideak harro agertzen dira jai guztietan herriko kaleetan zehar. GOIENKARIA

> "Bai grafikoki baita musikalki ere, proiektuan nahiko ondo azaltzen da zein izan den Arrasateko Gaiteroen ibilbidea"

> "Urtean zehar 40 eta 50 emanaldi inguru egiten ditugu: San Juan jaietan, Santamasetan, Aratusteetan, Maritxutan..."

**Urtean zenbat emanaldi egiten dituzue?**

Gutxi gorabehera, 40-50 emanaldi egiten ditugu. Aurten gutxiago, DVD-CD proiektuarekin nahiko lanpetuta egon garelako. Arrasaten emanaldi asko egiten ditugu: San Juan jaietan, Santamasetan, Aratusteetan, Santa Ageda jaietan, Maritxutan, dantza taldeekin, musika bandarekin…

**30 urte hauetan asko aldatu da kaleetako giroa?**

Erabat, ohiturak asko aldatu dira. Gaur egungo jaietan lehen baino eskaintza zabalagoa dago. Herritarren erantzun ona lortzen jarraitzen dugu; horretarako, guk ere formulak aldatu egiten ditugu musika talde ezberdinekin.

LUKAS
ZERKAOSTETA

• Delicatessen
• Ardo denda
• Jatetxea
• Berezitasunak

Iturriotz 11, behea
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
Tel.: 943 79 48 79 / 943 79 22 76
Faxa: 943 71 27 89
info@zerkaosteta.com

• EGUNEKO MENUAK
• LARUNBATETAN MENU BEREZIAK ETA BABAJANAK TALDEENTZAKO
• OILASKOAK ERRETZEN DIRA

Gabon Zoriontsuak opa dizkizuegu

www.zerkaosteta.com




angela
estetika zentroa
*Masajea harriekin
*Esfoliazioa imanekin
*Aurpegiko masajea
kuartzoarekin, e.a
Zorionak
Arrasate
Edertasuna oparitu!
Aurten Olentzerok argi dauka non erosi...
eta zuk?
Ferrerias 35 - 20500 Arrasate - Tel: 943 79 88 23
www.angelaestetika.net

**MUSIKA** > EMANALDIAK

# Gabon kontzertuak egunotan herriko musikarien eskutik

Akordeoi Orkestrak bihar egingo du eta martitzenean Musika Eskolako ikasleek

Abenduaren 27an abesbatzak eskainiko du Franzesena organo-jotzailearekin batera



Txistu ikasleek eta dantzariek eguaztenean eskainitako emanaldia herriko plazan. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Gabonak aitzakia hartuta, musikaren inguruan lan egiten duten herriko hainbat taldek kontzertuak eskainiko dituzte datozen egunotan.

Akordeoi Orkestrak bihar du emanaldia parrokian (20:30). Juanjo Orobengoaren esanetara lan egiten duten 20 bat neska-mutilek hainbat kantu eskainiko dizkiete elkartutakoei.

Martitzenean, ostera, Leizarra musika eskolakoen txanda izango da. Dagoeneko hainbat emanaldi egin dituzte azken asteotan –tronpeta, pianoa, flauta, dantza...– eta martitzenekoa Gabonetako kontzertu nagusia izango da. Hainbat musika tresnatako ikasleek elkarrekin joko dute eta bi saio eskainiko dituzte, leku arazorik ez izateko: 18:30ean eta 19:30ean.

**ABESBATZA, ORGANOAREKIN**

Abenduaren 27an, ostera, Aretxabaleta abesbatzaren txanda izango da parrokian (19:00). Jose Luis Franzesena Azpeitiko organojotzailea gonbidatu dute, beste urte batzuetan legez, eta hainbat kantu elkarrekin abestuko dituzte. Aurtengo kontzertua, gainera, Eduardo Mokoroa organojotzaile tolosarrari eskainiko diote eta hark konposatutakoak izango dira emanaldiko kantu guztiak.

**ERRETIRATUAK**

## Santo Tomas eguna dute astelehenean Basotxon

Kantu zaharren txapelketako sariak banatuko dituzte ospakizunean

**M.A.** > ARETXABALETA

Santo Tomas eguna ospatuko dute astelehenean, hilak 21, Basotxo erretiratuen elkarteko egoitzan (17:00). Mokadutxoa izango dute lehenengo eta 40 opari sorta zozketatuko dituzte gero.

**SARIAK KANTARIEI**

Urtero egiten duten ospakizuna aprobetxatuta, kantu zaharren txapelketako sariak banatuko dituzte. Antolatzaileak oso pozik daude txapelketak izan duen harrerarekin. Bederatzi lagunek hartu dute parte eta 40 bat abesti jaso dituzte.

Musika alderdia baloratu du epaimahai batek, eta historia eta kultura, beste batek. Azken horiek zortzi kantu aukeratu dituzte guztien artetik. Azken erabakia, baina, parte-hartzaileek eurek izan dute, eta horretarako eguen goizean elkartu ziren.

Saria hiru onenek bakarrik jaso arren, egindako lanak behar bezala gordetzea merezi duela jakinarazi dute antolatzaileek.

> UDALA

### Maider Aizkorbe izango da gizarte laguntzaile berria

Gizarte laguntzaile lanpostua betetzeko dei egin zuen Udalak orain dela hilabete inguru eta 12 lagunek azaldu zuten interesa. Azterketa praktikoa egin zuten haiek eta dagoeneko hautatu dute udaletxean izango den hirugarren gizarte laguntzailea: Maider Aizkorbe aretxabaletarra.

Abenduaren 28an hasiko da eta egun erdiz egingo du lan, arratsaldeetan. Aldi baterako kontratua du, bederatzi bat hilabeterako.




M.A.

## Lurreko Telebista Digitala zer den argitzen dabiltza

Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) gaineko zalantzak argitzeko autobusa dabil argibideak ematen herriz herri. Astelehen goizean izan zen gurean, baina beste bi egunetan ere etorriko da Durana kalera (herriko plaza azpian): gaur arratsaldean (16:00-19:00) eta hilaren 28an (09:00-13:00).

Hilabete baino gutxiago geratzen da telebista analogikotik digitalerako saltoa emateko.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

MAPFRE
Gabon zoriontsuak guztioi!
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**AISIALDIA** > GAZTETXOAK

# Gabon egitaraua ludotekan eta gaztelekuan

## Bilboko eta Eskoriatzako Gabonetako parkeetara joateko izenemate epeak zabalik daude

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Egitarau bereziak dituzte gaur hasi eta oporrak bukatu artean ludotekara joaten diren umeek, gaztetxoek –8 eta 12 urte– eta gaztelekuko neska-mutilek.

Gaur, Gabonei ongietorria egiteko jaialdia izango da ludotekan (17:00-19:00) ume guztiendako. Eta domekan, mahai futbol txapelketa eta merienda izango dituzte 8 eta 12 urte artekoek, ludotekako bazkide izan edo ez. Bestalde, hilaren 30ean Bilboko Gabonetako parkera joateko irteera antolatu dute horiendako. Izenemate epea gaur bukatuko da ludotekan, eta hilaren 23an, Gazteria Zerbitzuan –*gazteria@aretxabaleta.net*–. 10 euro da.

Umeak –4 eta 7 urte artekoak–, ostera, Eskoriatzako Gabonetako parkera joango dira hilaren 28an. Horiek ere aurrez eman behar dute izena ludotekan.



Gaztelekuko kideak Bergarako Txapa Irratian joan den domekan. TXATXILIPURDI

**GAZTELEKUKOEK HAINBAT IRTEERA**

Atxagazte gaztelekuan ere hainbat ekintza egingo dituzte hilaren 26tik 30era: besteak beste, irteerak Gasteizko izotz pistara eta Donostiara eta azken jaia, kontzertu eta guzti. Urtarrilaren 2tik 4ra, ostera, Elosuko aterpetxera joango dira –10 euro–. Argibide gehiago gura duenak gaztelekura edo Gazteria Zerbitzura jo dezala.




**KIROLAK** > FUTBOLA

# Egutegiak oparituko dizkie UDAk bazkideei domekan

**M.A.** > ARETXABALETA

Domekan, hilak 20, Amurrioren aurka jokatuko du hirugarren mailan dagoen futbol taldeak lehenengo bueltako azken partidua. Aretxabaleta Kirol Elkarteko kideek egutegiak oparituko dizkiete egun horretan partidura doazen bazkideei, horiek txartela erakutsita. Gainerakoendako, salgai jarriko ditu. Gainera, Gabonetako otarrea zozketatuko dute partiduaren atsedenaldian.

**FUTBOL ESKOLAKO TXAPELKETA**

Bestalde, futbol eskolako neska-mutikoek Gabonetako txapelketa jokatuko dute Ibarran hilaren 23tik urtarrilaren 5era, Bergara, Arrasate eta Oñatikoen aurka.




Aretxabaleta Kirol Elkartearen egutegia. UDA

## Oharrak

DEIALDIA

**> Batzar orokorra gaur Murrukixok**

Gaur egingo du Murrukixo Mendizale Elkarteak batzar orokorra (19:00).

ZINEMA

**> Helduendako 'Agora' eta gaztetxoendako 'Pequeños invasores'**

Helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00) dute *Agora* eta umeek domekan (17:00) *Pequeños invasores*.

DEIALDIA

**> Batzarra bihar Urkulu elkarteak**

Bihar, hilak 19, batzarra egingo du Urkulu elkarteak. Lehen deialdia 15:30ean da eta bigarrena 16:00etan. Estatutu aldaketa eztabaidatuko dute.

MERKATARITZA

**> Puzgarriak bihar herriko plazan**

Merkataritza bultzatu guran puzgarriak jarriko dituzte bihar herriko plazan (17:00-19:00).

MEZA

**> Familia meza bihar**

Katekesian dabiltzan umeendako eta familiendako meza egingo dute bihar parrokian (19:30).

AZOKA

**> Bidezko merkataritzako azoka**

Bidezko merkataritzako azoka bihar (10:00-14:00) plazan.

JENDARTEA

## Elkartasun denda zabalduko dute bihar

**M.B.** > OÑATI
Oñatiko Pastoral Barrutiko Misio Taldeak bidezko merkataritza denda zabalduko du bihar Kale Barrian; hain zuzen ere, Pullangua denda egon zen lokalean. Abenduan eta urtarrilean egun batzuetan egongo da zabalik: hain zuzen ere, abenduaren 19an, 21ean, 22an, 23an eta 26an; eta urtarrilaren 2an, 4an eta 5ean. Egubakoitzean eta zapatuan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute, eta gainerako egunetan, 18:00etatik 20:00etara arte.

**AFARI SOLIDARIOA**
Bestalde, urteko azken afari solidarioa egingo dute gaur Bidaurretako fraideen etxean 20:30ean. Patata tortilla letxugarekin afaldu ondoren, Beasaingo Herriak Elkarlanen Misio taldeko kide Gorka Eskalantek hitzaldia egingo du.

### Gabonetako gehigarria gaur Oñatin

GOIENKARIArekin batera, 16 orriko gehigarria jasoko duzue Gabonetako gaiekin. Besteak beste, Andoni Egañari egindako elkarrizketa .




**LEHIAKETA** > ERRETRATUAK

# Argazki onenak sarituko ditu Aloña Mendik arratsaldean

Ekitaldia kultura etxean egingo dute 19:00etan

Julian Gilek eta Jokin Astigarragak irabazi dituzte lehen sariak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Aloña Mendi elkarteko mendi sailak gaur arratsaldean egingo du VI. mendia eta natura argazki lehiaketako sari banaketa. Hain zuzen ere, kultura etxeko erakusketa gelan bilduko dira 19:00etan mendi taldekoak eta saridunak: besteak beste, lehen saria irabazi duten Julian Gil legazpiarra eta Jokin Astigarraga oñatiarra. Gilen *Hielo* argazkia izan da onena mendia eta natura atalean; eta Astigarragaren *Zergatik ez aske?* erretratua, salaketa atalean.

Abenduaren 9an jakinarazi zuten epaimahaiko kide Jose Agustin Gurrutxaga, Benito Cantero eta Josu Garai argazkilariek lehiaketako irabazleak nortzuk ziren. Mendia eta natura atalean 111 argazki jaso dituzte. Bigarren saria Ricardo Gartzia bergararraren *Halcon* argazkiak irabazi du, eta hirugarren saria, Errikarte Agirre legazpiarraren *Etna* erretratuak. Bestalde, atal honetan herriko argazkilariek aurkeztutako lan onenaren saria Andoni Camposek eroan du, *Austria I* argazkiarekin.

**SALAKETA ATALEKOAK**
Salaketa atalean 44 erretratu lehiatu dira, eta bigarren saria mendia eta natura ataleko iazko irabazle Luis Francisco Llavorik egindako *Kurpila* argazkiarendako izan da. Aldiz, hirugarren saria Javier Pedro Fernandez bergararraren *Niños callejeros* erretratuarendako izan da.

Bestalde, Andoni Camposen *Yesa II* delako argazkiak jasoko du atal honetako herriko argazki onenaren saria. Azkenik, alpinismoko argazki onena Bergarako Juan Jose Lopezek irabazi du, *Neila* izeneko erretratuarekin.

**PROFESIONALEN ANTZERA**
Aloña Mendi elkarteko mendi taldekoak pozik daude lehiaketak izan duen erantzunarekin: "Guztira, 43 argazkilariren 155 argazki jaso ditugu: 111 mendia eta natura atalerako, eta 44, denuntzia atalerako. Argazki batzuen maila ikaragarria izan da. Parte-hartzaile batzuek ia profesionalak direla erakutsi dute". Urtez urte argazki kopurua berdintsua izan da.

**ERAKUSKETA EGINGO DUTE**
Gaurko sari banaketa ekitaldia bukatu ondoren, lehiaketako irabazleekin eta argazki onenekin erakusketa zabalduko dute, urtarrilaren 3ra arte. Erakusketa 18:00etatik 20:00etara egongo da ikusgai egunero.



Jokin Astigarraga oñatiarraren *Zergatik ez aske?* erretratuak jasoko du salaketa ataleko lehen saria. IOKIN ASTIGARRAGA

> ELKARTASUNA

### Elkar Hezikoek Belengo jaiotza irudikatuko dute herriko plazan gaur

Elkar Hezi Ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoek Belengo jaiotza irudikatuko dute gaur. Etxaluzetik irtengo dira 17:30ean, eta kalerik kale joango dira plazaraino kantuan. Han, Jesus haurtxoa gurtzeko aukera izango dute guztiek. Elkar Heziko ikasleak eta irakasleak mozorrotuta joango dira. Herritar guztiek izango dute aukera jaiotza ikusteko.

Bestalde, eguaztenean, Lehen Hezkuntzako eraikinean Olentzeroren bisita izango dute, eta opariak jasoko dituzte.

> HAURRAK

### Bihar, Hipo eta Tomax pailazoen emanaldia Zuazola Institutuan

Errekalde Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak pailazo emanaldia antolatu du biharko. Hipo eta Tomax pailazoek emanaldia egingo dute Zuazola Institutuko aretoan, 17:00etan. Sarrerak hiru eurotan salduko dituzte. Amaieran, pintxoak jateko aukera izango dute guztiek.

Hipotolomeok pilotariendako frontoia prestatzen dihardu, eta Tomax agertzen da. Pilotalekua tresnaz beteta dagoela aprobetxatuz, apustuak egiten hasiko dira, eta guztia hankaz gora jarriko dute.

> DEIALDIA

### Ganbara Txikikoek Santo Tomas txosna jarriko dute bihar

Ganbara Txikikoek Santo Tomas txosna egingo dute bihar herriko plazan. 19:30etik aurrera txistorra eta gazta pintxoak, eta askotariko edariak hartzeko aukera izango dute guztiek. "Abesbatzarendako dirua batu gura dugu, eta horregatik herritar guztiak gonbidatu gura ditugu", esan digute. Ganbara Txiki abesbatzako umeek eta euren gurasoek parte hartuko dute txosnan.

Bestalde, hilaren 27an eta 28an egingo duten *Beltz* ipuin musikalerako sarrerak salgai dituzte kultura etxean.

> DEIALDIA

### Olentzerorendako gutunak jasoko ditu Bizar Zurik domekan

Bizar Zuri domekan helduko da Oñatira, eta herriko ume guztien gutunak jasoko ditu. Olentzeroren postaria gaztelekuko kubora helduko da 18:00etan astoaren laguntzarekin, eta gutunen truke gozokiak banatuko dizkie ume guztiei.

Bestalde, Olentzero hilaren 24an iritsiko da Oñatira. Otadui Zuhaiztitik irtengo da 18:00etan musika eskolako triki-pandero taldearen laguntzarekin. Kalerik kale ibiliko da, eta 19:00etan umeen azken gutunak jasoko ditu herriko plazan.

> DEIALDIA

### 33 merkatarik parte hartuko dute erakusleiho lehiaketan

Oñatiko Udalak eta Txandak antolatutako II. erakusleiho lehiaketan 33 merkatarik parte hartuko dute – iaz baino 11 gutxiago–. Guztiek prest dituzte erakusleihoak epaimahaikoek euren iritzia eman dezaten.

Herritarrek euren gustukoena bozkatzeko aukera dute oraindik. Botoa udaletxean, turismo bulegoan edo Garapen Ekonomiko, Enplegua eta Merkataritza bulegoan eman daiteke hilaren 26a baino lehen. Sari banaketa ekitaldia hilaren 30ean egingo dute udaletxean.


Eguen eguerdian Olentzeroren laguntzaileek umeen eskutitzak jasoko dituzte herriko plazan. GOIENKARIA

UDALA

### Udal zerbitzuek ordutegi berezia izango dute

Gabonekin batera, udal zerbitzuen ordutegian aldaketak izango dira. Udaletxea izango da aldaketa gutxien izango duena: abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an itxita egongo da eta abenduaren 24an eta 31n goizez baino ez da zabalik egongo, 13:30ak arte. Kultura etxean zerbitzurik ez da eskainiko abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra arte (biak barne).

Kiroldegiak ere ordutegi berezia izango du: jaiegunetan itxita egongo da eta abenduaren 24an eta 31n ere ordutegi berezia edukiko du: 09:30etik 13:00etara, hain justu ere. Igerilekua, bestalde, itxita egongo da urtarrilaren 1etik 6ra, garbiketa lanengatik. Hilaren 26an eta 27an, berriz, umeendako uretako parkea egongo da han eta, hortaz, igerilariek mugatuta izango dute sarrera: zapatuan, 09:30etik 10:45era eta 14:30etik 15:45era; eta domekan, 09:30etik 10:45era.

**GABONAK** > EKITALDIAK

# Oporretan aspertzeko astirik ez dute izango herritarrek

Luis Ezeizan Olentzeroren bisita izango dute gaur; erretiratuek, berriz, txistorra jango dute

Domekan umeek marrazkiak egingo dituzte eta musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Gabonetarako egun gutxi batzuk baino ez dira geratzen eta dagoeneko horrekin lotutako ekitaldiak egiten hasi dira herrian. Luis Ezeiza ikastetxeko ikasleek, esaterako, Olentzeroren bisita izango dute gaur goizean. Umeez gain, erretiratuek ere plan ederra dute gaur: urtero moduan, Santo Tomas dela-eta, txistorra-jana izango dute egoitzan, 17:30ean. Olazar elkarteak gogorarazi du bazkide guztiak daudela gonbidatuta, eta txistorra jan ostean opariak banatuko dituztela.

**DOMEKAN, MARRAZTERA**

Domekan, 4 eta 12 urte bitarteko umeek marrazteko duten abilezia erakutsi ahal izango dute pilotalekuan, 17:00etan. Jarraian, txokolatea banatuko dute parte-hartzaileen artean. Hori amaitzean, urteroko Gabonetako kontzertua eskainiko dute musika eskolako ikasleek, parrokian, 19:00etan.

Martitzenean, hilak 22, etxeko txikienek sukaldaritza tailerra izango dute ludotekan. Hain justu, galletak egiten ikasiko dute 3 eta 8 urte bitartekoek. Eguaztenean, berriz, elurrezko panpinak egingo dituzte adin bereko umeek.

**OLENTZERO, APOTZAGATIK**

Eguaztenean ere umeak izango dira protagonistak, Olentzero noiz agertuko den irrikan egongo dira-eta. Eguerdirako Gabonetako kantuak abesteko hitzordua egin dute, ikazkinaren laguntzaileek eskutitzak jasotzen dituzten bitartean. Betiko moduan, gaztaina-erreak jateko aukera egongo da plazan. 18:00etan, berriz, Apotzagatik datorren Olentzerori ongietorria egingo diote. Gabon egun horretarako herritar guztiei euskal jantziak janzteko gonbita egin diete.

Olentzeroren opariak probatzeko astia izan ondoren, abenduaren 26tik 29ra Gabonetako parkea gertu izango dute umeek; lehenengo bi egunetan igerilekuan jarriko dute uretako parkea, eta gainerakoetan, kiroldegiko kantxan askotariko puzgarri eta jokoak egongo dira. Gune horretan ibili ahal izateko bonoen prezioa ez da aldatu: egun bakarrekoak 4 euro balioko du eta lau egunekoak, berriz, 10 euro.

Horrez gain, Gabonetan beste hainbat ekitaldi ere izango dira; tartean, abenduaren 31ko San Silbestre probak.

> UMEAK

### Abenduren 30ean Bilboko PINean primeran ibiliko dira

Hasiera baten Bilboko PINerako irteera astelehenerako (abenduak 21) aurreikusita bazegoen ere, Gazteria Zerbitzuak jakinarazi digu data hori aldatu egin dela: abenduaren 30ean joango dira 8 eta 12 urte bitarteko eskoriatzarrak.

Hortaz, oraindik izena eman daiteke. Hilaren 21ean eta 22an Gazteria Zerbitzuan eman ahal da, 10 euroren truke; eta plazaren bat libre badago, abenduaren 28an eta 29an herriko kiroldegian jarriko duten Gabonetako parkean ere sarrerak salgai egongo dira. Abenduaren 30ean 10:00etan irtengo da autobusa.

## Atxorrotz mendiko gaztelu zaharraren zati bat, Ibarraundin

Ikusmina sortu zuen Atxorrotz mendian egindako indusketa arkeologikoen harira martitzenean Ibarraundin egindako hitzaldia. Indusketa horietan ibilitako Iñaki Sagredo eta Nahia Senper arduratu ziren horien gaineko azalpenak emateaz. Bada, horren harira gertatutako erakusketa urtarrilaren 15era arte bisitatu ahalko da museoan.


MIRIAN BITERI

**KIROLAK** > NORGEHIAGOKA

# Aurtengo frontenis txapelketako parte-hartzaileen maila handia nabarmendu dute antolatzaileek

Honako hauek lehiatuko dira biharko finalerdietan: Odix Alonso, Xabier Jauregi, David Marcos, Alex Oiartzabal, Gaizka Oruna eta Eder Arranz

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Frontenis txapelketak aurrera segitzen du. Joan den asteburuko partidu guztiak aurreikusi bezala irten ziren eta zapatu arratsaldean, bereziki, jende nahikotxo batu zen pilotalekuan. Norgehiagoka politak ikusteko aukera izan zuten han egon zirenek; gainera, joan den urteko txapelketarekin alderatuz, aurten maila hobea dago.

Iazko finalistek aurrera egin badute ere, oraindik lehia garrantzitsuak falta dira eta zaila izango da asmatzea txapelketa zeinek irabaziko duen. Biharko lehen finalerdian, Odix Alonso, Xabier Jauregi eta David Marcos lehiatuko dira; eta bigarrenean, Alex Oiartzabal, Gaizka Oruna eta Eder Arranz. Lehen partidua 11:00etan hasiko da, eta bigarrena, 12:30ean.

**FINALA DOMEKAN IZANGO DA**

Finalerdi bakoitzean nagusitzen diren pilotariek finala jokatuko dute domekan, 13:00etan; eta bigarren sailkatzen direnak, berriz, hirugarren eta laugarren postuei begira lehiatuko dira, 12:00etan.

Aurten ere sariak daude. Irabazleak txapela, kopa, botila bat ardo eta herriko Txalaparta tabernan afaria izango ditu; bigarrenak, kopa, bi txuleta eta botila bat ardo; hirugarrenak, kopa eta bi txuleta; eta laugarrenak, botila bat ardo. Antolatzaileek esan dute pilotalekura joaten direnendako sorpresa gertatu dutela.

> GAZTEAK

## Elosuko aterpetxera joateko izenematea zabalik dago

Gaztelekukoek hiru eguneko irteera antolatu dute urte hasierarako: hain justu, Elosuko aterpetxera joango dira urtarrilaren 2tik 4ra. Izenematea abenduaren 26ra arte dago zabalik eta interesatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Irteera 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago eta asmoa da askotariko ekintzak egitea han, hala nola lehiaketak, mendi ibilaldiak eta gaubeilak.

Bestalde, hilaren 28an Gasteizko izotz pistara joango dira. Gaztelekuan eman behar da izena.

**MERKATARITZA** > GABONAK

# Martxan da urteroko 'Eskoitzan erosi eta sari bikainak irabazi' promozioa

**M.B.** > ESKORIATZA

Urtero moduan, herriko merkatariek *Eskoitzan erosi eta sari bikainak irabazi* izeneko Gabonetako promozioa egingo dute bezeroen artean. Aurtengo edizioan 26 komertziok parte hartuko dute.

Egunotan erosketak egiterakoan denda bakoitzean txartelak banatuko dizkiete dendariek bezeroei; eta urtarrilaren 5ean zozketa egingo dute, eguerdi partean. Hona hemen banatuko dituzten sariak: irabazleak 1.000 euroko bonua eta bi lagunendako afari ederra lortuko ditu; horretaz gain, urtero moduan, 100 euroko bost sari zozketatuko dituzte bezeroen artean.

Sariak aurtengo kanpainan parte hartzen duten dendetan gastatzeko erabili beharko dira, hiru eguneko epean.


Maluta dendan eman zuten iaz lehen saria; Arkaitz Riberak irabazi zuen. M.B.



**JAIA** > INDEPENDENTZIA EGUNA

# Herri izaera lortu izana aldarrikatuko dute bihar

Antzuolak Bergararekiko independentzia lortu zuela abenduaren 12an bete ziren 380 urte, baina hilaren 19an egingo dute ospakizuna

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

1629ko abenduaren 12an Felipe IV.ari zilarrezko bost mila dukat ordainduta lortu zuen Antzuolak Bergararekiko independentzia.

Erabateko independentzia lortu aurretik, Antzuola hasia zen bere nortasuna aldarrikatzen, alardeen bidez. 1391ko urtarrilaren 20an antzuolarrek Bergarako hiribilduaren jurisdikziopean sartzea erabaki zuten, eta bergararren babes, betebehar eta eskubideak eureganatu. Betebehar haien artean zegoen alardea Bergarako plazan eta Bergarako banderapean egitea. Mendekotasun hark tirabirak sortu zituen bi herrien artean, eta antzuolarrek ezezkoa eman zioten Bergarara joateari. Bergararrek ordenaren aurkako jarreratzat hartu zuten eta, liskarrak konpontzen ez zirenez, antzuolarrek 1539ko urtarrilaren 28an Valladolideko Chancilleriara jo zuten; han, alardeak Antzuolako plazan egiteko baimena eman zieten.

**OSPAKIZUNAK**

Aurten, independentzia lortu zenetik 380 urte bete dira. Orduko herri izateko nahiari gaur egungo balioak txertatu, eta beste modu batean ospatzen da orain, Independentzia Egunarekin. "Antzuolarren autoafirmazio erritoa da eta, balioak aldatu arren, gure arbasoek zuten herri izateko nahiak gaur egun ere zutik dirau", esan digute jaia antolatu duten Gazte Asanbladako kideek.

## Egitaraua

**12:00** Salda eta txorizoa gaztetxean, trikitilariek alaituta.
**Bazkalordura arte** Poteoa.
**14:30** Baba-jana, frontoian.
**17:00** Herritarren arteko jolasak, frontoian.
**20:00** Afaria gaztetxean Unai Gaztelumendi eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin.
**22:00** Kontzertuak gaztetxean: Darling Shoes, Unsain Anaiak.

Bihar, abenduaren 19an, izango da Independentzia Eguna. Antolatzaileen esanetan, "Antzuolako herriak Bergararekiko independentzia eta herri izaera lortu izana ospatzen da".

Egun hori ospatzeko lehen pausoak herriko gazte talde batek eman zituen orain dela hamar urte pasa, eta orduan gaztetxearen bueltan zebiltzanek hartu zuten jaia antolatzeko ardura.

Baina aurrez ere izan zen bestelako ekintzarik herritartasuna aldarrikatzeko. Esaterako, 90eko hamarkada hasieran Bergarako Bitorianatxo *bahitu* zuten Antzuolak ordaindutako 5.000 dukat haiek berreskuratzeko, eta Bergarako jaietan antzuolarrek manifestazioa ere egin zuten.

**HERRITAR GUZTIENDAKO**

Azken urteotan Gazte Asanbladaren dinamika falta zela-eta etena izan da egunaren antolaketan, baina aurten berriz heldu diote jaiari. "Gure helburua herria piztea eta elkartzea da, egunerokotasunetik irten eta herri bateratua garela erakutsi ahal izateko".

Batez ere gazteekin pentsatutako egitaraua osatu dute, baina antolatzaileek argi utzi nahi dute jaia herritar guztiendako dela. Guztiendako, eta ez antzuolarrendako bakarrik; izan ere, Antzuolaren eta Aiherraren senidetzaren 25. urteurrena dela-eta Antzuolako gaztetxekoek gonbidatuta Aiherrako gazteak etorriko dira Independentzia Egunera.

**KIROLA**

## Frontoi txikiko txapelketako finalerdiak

**I.A.** > ANTZUOLA

Final-laurdenetako partiduak jokatuta, erabakita dago zein lau lagun pasako diren frontoi txikiko txapelketaren finalerdietara. Zapatuan, abenduaren 19an, jokatuko dira finalaurrekoak, 10:00etan.

Txapelketa espero bezain ondo joan dela esan digute antolatzaileek, eta parte-hartzaileek seriotasunez jardun dutela.

Finalerdien ostean, abenduaren 26an izango da finala 19:00etan eta ondoren afaria egingo dute parte-hartzaile guztiek eta han banatuko dituzte sariak.

### Partiduak

**FINAL LAURDENAK**
> Irimo 22-Altzol 15
> Mikel 22-Bidaurre 18
> Jon Iturbe 22-Ota 8
> Agirre 22-Faran 15

**FINALERDIAK**
> Irimo-Mikel
> Jon Iturbe-Agirre

**ZERBITZUAK** > EGUNEKO ZENTROA ETA BABESPEKO ETXEAK

## Ate irekien jardunaldia dago etzi, domeka, Torresoroan

**I.A.** > ANTZUOLA

Torresoroa gizarte etxeko eguneko zentroa eta babespeko etxebizitzak barrutik ezagutzeko aukera izango da abenduaren 20an, 12:00etatik 13:30era eta 17:30etik 19:00etara. 12:30ean hitzaldia egingo dute gaur egungo eta etorkizuneko zerbitzuen gainean.

Eguneko zentroan 18 lagunendako tokia dago eta gaur egun Antzuolako eta Bergarako 17 lagun daude han. Garraio zerbitzua, bazkaria eta merienda eta zaintza eta laguntza ematen dizkiete. Errehabilitazio fisikorako eta kognitiborako ere laguntza jasotzen dute.

Babespeko lau etxebizitza ere badaude eta horietatik bitan bizi da jendea. Etxearen eta arropen garbiketa egiten diete bizilagunei, eta jatorduetan zerbitzua eskaini ere; errehabilitazio saioetan parte hartzeko aukera ere badaukate.



Torresoroan daude eguneko zentroa eta babespeko etxebizitzak. I. AGIRREAZALDEGI

**JANTOKI SOZIALA**

Domekako hitzaldian etorkizuneko asmoez ere jardungo dute. Ideia da 2010ean barrena jantoki sozial bat abian ipintzea beharra duten herritarrendako. Horretarako, baloratu egin beharko da zeinek duen beharra, eta baldintza batzuk ere ipiniko dituzte.

Gonbita egin nahi diete herritarrei, hitzaldira ez ezik, gizarte etxea bisitatzera joateko.

> BERTSOLARITZA

### Kruz Azkarateren liburua domekan aurkeztuko dute

*Kruz Azkarate (1916-2008) Ondorengoak jakin dezaten* liburuaren aurkezpena egingo dute abenduaren 20an, 12:00etan, Torresoroan. Aurkezpenean izango dira Patxi Olabarria Kultura zinegotzia, Joxe Mari Iriondo liburuaren egilea eta Belen Azkarate, Kruz Azkarateren biloba.

Liburu horretan jaso dituzte urteetan barrena Kruz Azkaratek idatzi, kantatu eta koaderno batean txukun jasotako bertsoak, eta Torresoroan ere bere bertsoak abestuko dituzte.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

DEKORAZIOA ABAD PINTURAK ANTZUOLA PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

LARREA TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**KIROLA** > PILOTA TXAPELKETA

# Gaur erabakiko dira finalistak

19:00etan hasiko dira finalerdiak Udal Pilotalekuan; jokoan, Urtezahar eguerdian jokatuko diren bi finaletarako txartelak

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Egun garrantzitsua dute gaur, barikua, herri mailako 4 t'erdiko pilota txapelketan aurten parte hartu duten 21 bikoteek. Finalerdiak eta afaria egingo dituzte gaur. Bi finalak Urtezahar eguerdian jokatuko dira, baina oraindik erabakitzeko dago nortzuk egongo diren kantxan. Hori gaur 19:00etan hasita erabakiko dute.

**TXAPELERAKO FABORITOAK**

Kiniela egiteko eskatuta, gaztetan jendeak nahiko argi dauka aukera gehien David Peñalverrek eta Txomin de Vegak osatzen duten bikoteak duela. Nagusien mailan, ordea, borroka gogorragoa aurreikusten da. Finalerako txartelak garestiago daude maila horretan.

**ANTOLATZAILEEN LAN FINA**

Ligaxkako partiduak amaitu diren honetan, balorazioa egiteko ordua ere bada. Hainbat parte-hartzailek antolatzaileek egindako lana nabarmendu dute. "Merezi dute txapela eta txalo zaparrada", adierazi du Haritz Gallastegik. "Kirola egiteko eta luzaroan gutxi zapaldu ostean frontoira bueltatzeko aitzakia ezin hobea izan da", azaldu du. Eta horrela izan da. Oxel Erostarbe alkateak hauxe esan du: "Ikusi besterik ez dago azken asteetan zenbat elgetar aritu den frontoian entrenatzen".

Herrian giroa sortu eta jendea frontoira erakartzen duela esan du. Parte-hartzaileen mailari dagokionez, baina, alde handiak daudela adierazi du batek baino gehiagok, batez ere gazteen txapelketan.

## Sailkapenak, ligaxka amaituta

| 40 URTETIK GORAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** Angel Ibarluzea - Alberto Telleria (sailkatuak) | 8 | 8 | 0 |
| **2.** Koldo Goenaga - Alex Arantzabal (sailkatuak) | 8 | 6 | 2 |
| **3.** Asier Morales - F. Zenitagoia (sailkatuak) | 8 | 6 | 2 |
| **4.** J. M. Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu (sailkatuak) | 8 | 6 | 2 |
| **5.** Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre | 8 | 4 | 4 |
| **6.** Joseba Arbulu - Mikel Elkoro | 8 | 3 | 5 |
| **7.** Luis Antonio Alkorta - Gorka Bolinaga | 8 | 2 | 6 |
| **8.** Pello Larrea - Jesus Belamendia | 8 | 1 | 7 |
| **9.** Julio Calleja - Mikel Arkarazo | 8 | 0 | 8 |

| 40 URTETIK BEHERAKOAK<br>A LIGAXKA | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** David Peñalver - Txomin de Vega (sailkatuak) | 5 | 5 | 0 |
| **2.** Jon Irazabal - Mikel Ormaetxea (sailkatuak) | 5 | 4 | 1 |
| **3.** Oier Billa - Enrike Elkoro | 5 | 3 | 2 |
| **4.** Oxel Erostarbe - Gorka Arizmendiarrieta | 5 | 2 | 3 |
| **5.** Igor Irazabal - Gaizka Bolinaga | 5 | 1 | 4 |
| **6.** Haritz Gallastegi - Kepa Odriozola | 5 | 0 | 5 |

| 40 URTETIK BEHERAKOAK<br>A LIGAXKA | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** Unai Alkorta - Etor Garate (sailkatuak) | 5 | 4 | 1 |
| **2.** Iban Retolaza - Jabier Larrañaga (sailkatuak) | 5 | 4 | 1 |
| **3.** Sergio Bouzas - Asier Osoro | 5 | 3 | 2 |
| **4.** Luis Atorrasagasti - Samu Gorrotxategi | 5 | 3 | 2 |
| **5.** Koldo Erostarbe - Argoitz Arantzabal | 5 | 1 | 4 |
| **6.** Satur Ramos - Gaizka Etxebarria | 5 | 0 | 5 |



L.Z.

## Kalteak Asentzioko lanetan

Eguazten goizean ezuste desatsegina hartu zuten Asentzion lanean diharduten beharginek. Bidea eta aparkalekua apurtuta aurkitu zituzten, eta lanen gunean autoak atzera eta aurrera ibili ziren arrastoak. Alkateak ere gogor kritikatu ditu txikiziook: "Horrelako jarrerek ekartzen duten bakarra da lanak atzeratzea eta gastua handitzea".

**ONGIZATEA** > IKASTAROAK

# Hiru ikastaro proposatu ditu Udalak urtarrilerako

Nagusien zaintzan, web orrien diseinuan eta antzerkian trebatzeko ikastaroak

**L.Z.** > ELGETA

Guztiak doan eskainiko ditu Udalak: lehenengo biak nagusiendako eta hirugarrena, 3. mailatik gorako umeendako, euren artean irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin.

Lehenengo web orrien diseinuaren gainekoa hasiko da. Urtarrilaren 11tik 22ra eskainiko dute, egunero bi ordu: 18:00-20:00. Ez dute adin mugarik ipini, eta izena emateko epea zabalik dago urtarrilaren 7ra bitartean udaletxean.

**NAGUSIEN ZAINTZA**

Urtarrilaren 19an, berriz, nagusien zaintzan trebatzeko ikastaroa ipiniko dute martxan. Doakoa eta 12 ordukoa izango da. Herritarrak gonbidatu nahi ditu Udalak parte hartzera, horrelako egoeretan "hutsune handiak daudelako eta azpiegitura gutxien haiek dituztelako". Eibarko Adindu gerontologia zerbitzuko psikologo batek gidatuko ditu martitzenetan eta eguenetan 15:30etik 17:30era egingo diren saioak.

**ANTZERKI TAILERRA**

Umeendako, berriz, Eibarko Zurrumurruka taldearen antzerki tailerra proposatu du Udalak. Zapatu arratsaldeetan egingo da, 16:00etan hasita.

## gabonetan

### OLENTZERO

ABENDUAK 22, MARTITZENA
**Olentzero, eskolan**
09:30ean Olentzero herri eskolara etorriko da.

ABENDUAK 23, EGUAZTENA
**Olentzeroren bila Intxortara**
Urteroko mendi txangoa egingo dute umeek. Plazatik 11:00etan irtengo dira.

ABENDUAK 23, EGUAZTENA
**Olentzeroren etorrera**
18:30ean Olentzero etorriko da herriko plazara. Aurretik, Gabon kantuak egongo dira plazan.

### PARKEA

ABENDUAK 28, ASTELEHENA
**Gabonetako jolasparkea**
Puzgarriak, eskujokoak eta askotariko jolasak 16:00etatik 19:00etara Udal Pilotalekuan.
Prezioa: 2,5 euro.

ABENDUAK 29, MARTITZENA
**Jokoak**
Oka joko erraldoia eta *Ilargiraino jolasean* egingo dituzte 6 urtetik gorako umeendako 16:00etatik 17:00etara. Txikiendako jolasak egongo dira. Mozorro festa, txokolatejana eta disko festa 17:00etatik 19:00etara egingo dituzte.

### BESTELAKOAK

ABENDUAK 26 - URTARRILAK 2
**Umeen pilota txapelketa**
Hilaren 26tik 29ra aurrebenjaminen, benjaminen, alebinen, infantilen eta kadeteen partiduak. Finalak urtarrilaren 2an, 10:30ean hasita. Izenematea udaletxean.

ABENDUAK 31, EGUENA
**Nagusien pilota txapelketa**
Urtezahar eguerdian, hilaren 31n, jokatuko dira finalak.

URTARRILAK 3, DOMEKA
**Stake saioa**
11:00etatik 12:30era Espaloian. Prezioa: 2 euro.
Izenematea ludotekan.

## oharrak

ERRETIRATUAK
**> Podologoaren abenduko kontsulta hilaren 28an izango da**
Ez ditu 22 bezero baino gehiago hartuko. Komeni da, beraz, txanda hartzea. 943 76 80 77.

FRONTENIS
**> Izena emateko epea hilaren 31ra arte Espaloian**
Gabonen ostean hasiko da txapelketa. Izena emateko epea zabalik dago antzokian.

ESTATU FONDOA
**> Proposamenak egiteko epea**
Hirigintza batzordeak hil amaierara arteko epea zabaldu du Espainiako Gobernuaren 113.513 euroekin zer egin proposamenak jasotzeko.

INGURUMENA
**> Beira birziklatzeko aholkuak**
Debagoieneko Mankomunitatearen karpa ibiltaria plazan izango da gaur, 17:00etan hasita.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

ERDIko DENDA
Janari denda - Ogia - Kafea
Gabon zoriontsuak elgetar guztioi!
Gudarien bidea 6 ■ 943 76 81 07 ■ Elgeta



Udal Gobernuko kideak martitzenean osoko bilkuren aretoan egindako agerraldian. JULEN IRIONDO

**UDAL GOBERNUA** > SALAKETA

# Gobernuko kideek gogor kritikatu dute oposizioa

## Alkateak uste du "lotsagarria" dela bere aurkako epaiketaren kontrako mozioan abstenitu izana

**J.I./A.B.** > ARAMAIO

Aramaioko Udal Gobernua osatzen duten ordezkariek gogor salatu dute oposizioak alkatearen kontrako epaiketaren aurkako mozioa onartu ez izana. Data atzeratu ostean, azkenean, otsailaren 10ean epaituko dute Asier Agirre, 2007ko irailean herrian AHTren gaineko herri-galdeketa egin zuelako.

Azken osoko bilkuran, gobernuko kideek epaiketaren kontrako mozioa aurkeztu zioten udalbatzari. Fiskalak 1.800 euroko isuna eta bederatzi urterako alkatea gaitasun gabe uztea eskatzen du. Mozioak, berriz, akusazioa eta zigor eskaera erretiratzeko eskatzen zion fiskaltzari, prozedura judiziala erabat "bidegabea" izateagatik. Mozioa aurrera atera zen, baina bultzatzaileen babesarekin bakarrik. EAJko eta EAko zinegotziak abstenitu egin ziren. Hori "lotsagarria" dela uste dute gobernuko kideek; Asier Agirre alkateak adierazi du bera herritar guztien ordezkaria dela, baita oposizioko kideena ere, eta abstentzioarekin alkatearekin zer gertatuko den inporta ez zaiela erakusten dutela egotzi die EAJ eta EAri.

**OPOSIZIOAREN ERANTZUNA**

EAJren Aramaioko Uri Buru Batzarrak ere eman gura izan du gaiaren gaineko iritzia. Adierazi dute eurak ere galdeketa egitearen alde zeudela, eta aurreko agintaldian alkatetza euren esku zegoela planteatu zutela galdeketa egitea; baina Espainiako Gobernuaren ordezkaritzak galdeketa legez kanpokoa izan zitekeela esatean, eta izan zitzakeen ondorioak aztertuta, galdeketa ez egitea erabaki zutela. Horregatik kritika asko jaso zituztela eta orain mozioaren aurrean abstenitu izana euren garai bateko erabakiarekiko kontsekuente izatea dela adierazi du EAJk.

EAko zinegotzi Andres Osinagak, berriz, azaldu du alkateak sekula ez duela epaiketaren prozesuaren berri eman eta informazio falta dagoela. Horrez gain, salatu du galdeketa egiteko orduan ere Udal Gobernuko kideek ez zutela bera kontuan hartu eta orain "ez duela balio" bere babesa eskatzea.

agenda 21 txokoa

# Partaidetza du oinarri Agenda 21 proiektuak

**UDAL TALDE 21** > ARAMAIO

Jakingo duzuen moduan, Tokiko Agenda 21a **partaidetza**n oinarritzen den prozesua da, **iraunkortasuna**ren hiru ardatzak lantzen dituena: **ingurumena**, **gizartea** eta **ekonomia**. Aramaioko Udala Zuiako **Udaltalde** 21en barruan dago eta prozesua berarekin batera hasi duten udalerriekin (Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia) elkarlanean ari da **diagnosia** eta **ekintza plana** prestatzen. Prozesu honen beste ezaugarri garrantzitsu bat **betikotasuna** da.

Bada, aste honetan jolas bat proposatu nahi dizugu: hain zuzen, aurreko paragrafoan letra lodiz dauden Tokiko Agenda 21en ezaugarriak bila itzazu hurrengo letra-zopan.

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | K | M | I | N | T | Z | I | P | O | L | I |
| R | A | U | N | K | O | R | T | A | S | U | N |
| O | E | N | T | E | R | I | U | R | E | B | O |
| T | L | I | A | U | D | A | L | T | A | L | D |
| R | O | M | E | L | I | T | Z | A | G | E | U |
| E | Z | I | L | E | P | O | D | I | P | N | R |
| A | I | S | O | N | G | A | I | D | O | G | R |
| I | R | E | R | T | A | U | Z | E | N | I | E |
| N | E | L | G | I | Z | A | R | T | E | A | T |
| O | M | A | I | K | O | N | A | Z | N | B | U |
| Z | A | P | S | I | M | O | N | A | L | I | I |
| I | G | U | O | N | U | S | E | A | I | O | K |
| N | U | S | A | T | O | K | I | T | E | B | O |

### Agenda 21 martxan ipintzeko prozesuaren gaineko informazioa, udal webgunean

Tokiko Agenda 21 txokoa lehenengo aldiz atera genuenetik hona, datuen bilketan jarraitzen dugu. Aste honetan, gainera, udaletxean egindako bilerara etorritako elkarteetako ordezkariekin harremanetan ipini gara, diagnosian euren ekarpenak ere jasotzeko. Prozesuak martxan jarraitzen du! Udal webgunean duzue eskuragarri Agenda 21 proiektuaren gaineko informazioa.

UDAL TALDE 21 — AGENDA LOCAL • BERTAKO AGENDA

Mezuak: *al21zuia@gmail.com*

**KULTURA** > EKITALDI BIKOITZA

# Unda Aramaioko alaba kutun izendatuko dute domekan

## Ekitaldi horrekin inauguratuko dute Sastiña eta 'Emakume kirolariak' erakusketa zabalduko dute

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Domeka eguerdian (13:00) ospakizun bikoitza izango da: Maider Unda herriko alaba kutun izendatuko dute eta ekitaldi hori aprobetxatuko dute Sastiña ermita inauguratzeko.

Ainara Inuntziaga Kultura zinegotziak azaldu du Maider Undak Aramaioren izena mundu guztian zehar zabaldu duela parte hartutako txapelketen bitartez eta lortutako sari piloarekin. Horixe izan da, beraz, borroka libreko kirolari oletarra alaba kutun izendatzeko arrazoi nagusia.

Aramaioko lehenengo alaba kutuna izango da Unda, gainontzekoak gizonezkoak direlako. Guztiak daude gonbidatuta domekako ekitaldira. Hain justu ere, Aramaioko seme kutun Patxi Uribarrenek emango dio alaba kutun bihurtuko duen pina. Alkateak ere eskainiko dizkio hitz batzuk eta Bixente Goikoetxea abesbatzak hainbat kantu abestuko ditu.



Maider Unda. WWW.MAIDERUNDA.COM

Esan bezala, ekitaldi horrekin irekiko ditu berriro ere ateak Sastiña ermitak. 2008ko maiatzean itxi zuten eta Espainiako Tokiko Inbertsioen Estatu Fondotik jasoko dirulaguntzekin konpondu dute. Domekan bertan *Emakume kirolariak* izeneko erakusketa zabalduko dute; Maider Unda bera, Yahaira Agirre, Maialen Chourraut, Reyes Azkoitia, Elaia Torrontegi eta Josune Bereziartua dira erakusketako protagonistak.

### Aramaioko seme kutunak

- > Patxi Uribarren
- > J.M. Velez de Mendizabal
- > Sabin Salaberri
- > Jesus Mari Elejalde
- > Mariano Errasti
- > Pedro Pujana
- > Bixente Goikoetxea abesbatza

> KONTZERTUA

### Abesbatzen topaketa egingo dute zapatuan Aramaioko elizan

Oleta, Otxandio, Legutio, Arrasate eta Aramaioko abesbatzek Gabon giroa ekarriko dute aste bukaeran herrira. Hala, bihar, zapatua, abesbatzen topaketa egingo dute elizan, 19:30ean hasita. Abesbatza bakoitzak bizpahiru abesti kantatuko ditu eta bukatzeko, denek batera abestuko dute. Guztiak ere Gabon kantuak izango dira. Kontzertua amaitu ostean herriko kaleetan barrena ibiliko dira abesten.

Bixente Goikoetxea abesbatzak datorren domekan ere (abenduak 27) kontzertua emango du meza ostean.

**JAIAK** > EKITALDIAK

# Bihar jarriko dituzte Gabonetako apaingarriak plazako aterpean

Azken urteotan elizpean jarri arren, lekuz aldatzea erabaki dute Gureleko kideek; Udala argiak jartzekotan dago

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Bihar eguerdian (12:00) elkartuko dira Gureleko ume eta gurasoak Gabon apaingarriak jartzeko San Migel plazan; hau da, pilotalekuko aterpean. Materiala gertu dute eta Gabonekin zerikusia duten pertsonaiak jarriko dituzte bertan. Azken urteotan elizpean jarri arren, aurten pilotalekura aldatzea erabaki dute. Apaintze lanak bukatzen dituztenean txistorra jatera eta barrua berotzera joango dira neska-mutikoak Toki Eder elkartera.

**GABON EGUNEAN, KANTUAN**

Eguenean, abenduak 24, Gabon kantuak abestera joango dira baserriz baserri, urtero egiten duten legez. Aurten ez dute kantuen entsegurik egin, baina abestirik ezagunenak dituen orritxoa banatu dute Gureleko kideek, etxean egiteko entseguak.

Aurten aldaketatxo bat egiteko asmoa daukate antolatzaileek: talde osoak ibilbide guztia egin beharrean, bi taldetan banatu. Talde batek Olaun aldeko baserrietara joko du eta handik Arabako mugaraino, bidean dauden baserrietatik pasatuta. Beste taldea, ostera, Goierri auzora eta inguruko baserrietara joango da: "Umeak nahiko txikiak dira, eta astunegia izan ez dadin erabaki dugu aldaketa. Horretarako, baina, eguraldi ona behar dugu eta ikusi egin behar da zer datorren", jakinarazi dute.

Bi taldeak herrian elkartuko dira gero, eta kalez kale jardungo dute kantuan. Bien bitartean, bazkaria gertatuko diete Toki Eder elkartean.



Urte baten Goiko plazan jarritako Olentzero eta jaiotza. GOIENKARIA

**EGURALDIA** > ELURRA

# Elurrak tontor batzuk zuritu arren, ez du sortu aparteko arazorik

Elurra kentzeko makinek lanean jardun dute astean, baina Udalaren kamioia ez dute atera

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Neguaren atarian ailegatu dira lehen elur malutak eta tenperatura hotza gurera. Astelehenean hasi zuen elurra eta iluntzerako tontorrik garaienak, Olaun eta Dominaga aldea esaterako, zurituta geratu ziren. Martitzenean, oraindik ere, elur gehiago egin zuen, baina ez herria zuritzeko beste. Baserri inguruetan bai, haietan zuritu egin zuen: "Elur askorik ez du egin, baina zurituta utzi ditu bazterrak eta ezin kendu dago", jakinarazi ziguten.

**GATZA BOTATZEN**

Hori horrela, elurra kentzeko makinek lanean jardun dute aste guztian, bai Arlabango errepidean, bai herritik pasatzen den bidean. Eta gatza ere bota dute; izan ere, izotza egin du eta horrek are arriskutsuago bihurtzen ditu errepideok. Edozelan ere, ez da aparteko istripurik eta arazorik izan Gatzagako errepideetan atzo bitartean.

Elurra egiten duenean pala jartzen diote Udalaren kamioitxoari, baserrietara doazen bide bazterrak garbitzeko. Baina oraingoan ez dute halakorik behar izan: "Ez dugu inongo baserritatik laguntza deirik jaso", azaldu dute Udaleko langileek.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedunen txokoa
Abenduko irabazleak

SARIAK IRABAZTEKO:
943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedunentzat soilik.
Harpidetzeko erabili bide berdinak.
Kuota: 10 euro

**EUSKARAZKO JOSTAILUAK**
Umeentzako euskarazko jostailuak
Itxaro Artola Lizarralde (Arrasate)
Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
Esteban Barandiaran (Arrasate)
Zezilio Berezibar Altuna (Arrasate)
Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)
Rafa Zabaleta Lamariano (Oñati)

**ANTZERKIRAKO SARRERAK**
Txalo konpainiaren Ate joka antzezlana.
Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

**UMEENTZAKO LIBURUAK**
Pamiela etxearen umeentzako liburuak.
Juanita Lizarralde Arrazola (Arrasate)

**SASKIBALOIRAKO SARRERAK**
Lagun Aro - Real Madrid partidurako sarrerak.
Ainara San Vicente Zumalde (Oñati)

**EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA**
Euskal Kirol Federazioen Batasunaren zira.
Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)

SARI NAGUSIA
IRAILA-ABENDUA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



Itziar Baltzategi (Bergara)

**AHTEC NETBOOK LUG N011**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux. **Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb). **Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB). **Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA. **Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED. **Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea. Backlit, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)
Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 *www.baster-aldejatetxea.com*

**Eskaintza**

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 *www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**






## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria.**



## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

**Igande gauean itxita.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

**ESKALADA** > SANTAMASETAKO PUNK THAT ROCK TXAPELKETA

# Punta-puntako eskalada bihar Uarkapen

Dagoeneko itxita dago biharko txapelketarako izenemate epea, baina antolatzaileek berandu dabiltzanei lekua egingo diete

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE
Bihar 10:00etan hasiko dute Uarkapen Santamasetako boulder txapelketa. Goizean lehiatuko dira kategoria herrikoian izena eman dutenak, baita emakumezkoak eta 20 urtez azpiko kategoriak. Elite mailakoen txapelketako finala, baina, Euskadiko txapelketa izango dena, 18:00etan hasiko dute.

Txapelketan esku hartzeko Debagoieneko Eskalatzaileek erabaki dute izenematea aurrez egitea, azken orduan lan kargarik ez izateko, baina astelehenean taldeko kide Mikel Castillok eta Egoitz Unamunok GOITBko *Harmailatik* kirol saioan adierazi zuten berandu dabiltzan eskalatzaileei azken orduan ere lekua egingo dietela. Txapelketa egiteko boulderreko panelak pilotalekuan jarriko dituzte, eta eskalatzaileek teknikariek jarritako zailtasunak gainditu beharko dituzte: "Bide erdia eskalatuz gero puntuak jasoko dituzte eta panel bakoitza ahalik eta azkarren gainditzeak ere puntu gehiago emango ditu", adierazi zuen Castillok.

KONTUAN HARTZEKO

## Ikusleak, doan

Horrelako txapelketa batek kostu handiak ditu, baina Debagoieneko Eskalatzaileak taldekoek ez dute sarrerarik kobratzeko asmorik: "Sarrera doakoa izango da eta taberna txiki bat jarriko dugu diru apur bat batzeko". Hori bai, klubekoek errifak salduko dituzte; horra hor laguntzeko modua.




Iazko elite mailako txapelketan, eskalatzaile bat lanean hasi barik, katu-oinak janzteke zituen-eta oraindik. JOSETXO ARANTZABAL




ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**


BERMEA 2 URTE
1200 b/min
7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2712
FAGOR
420 €


BERMEA 2 URTE
1000 b/min
6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3F-1610
FAGOR
335 €


1000 b/min
5 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-110
aspes
280 €


BERMEA 2 URTE
185 x 60 x 60
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA DREAM G-185
edesa
490 €


144 x 55 x 60
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AFD-145
aspes
295 €


BERMEA 2 URTE
TELEBISTA TX-L32X10Y
LCD 32”
Panasonic
470 €


BERMEA 2 URTE
TELEBISTA 32LH-3000
LCD 32”
LG
475 €


BERMEA 2 URTE
TELEBISTA TX-P42X10Y
PLASMA 42”
Panasonic
635 €


A Sailkapen energetikoa
PIROLISIS LABEA 6H-755 X
FAGOR
405 €


A Sailkapen energetikoa
LABEA ETA BITROZERAMIKA
aspes
360 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Aitor Mendizabal
Pilotaria
Antzuola



Oihana Kortazar
Mendi lasterkaria
Elgeta



Aitor Zabaleta
Auto gidaria
Bergara



Mari Sol Ramos
Atleta
Oñati



Jonathan Perez
Atleta
Arrasate



Maider Unda
Borrokalaria
Aramaio

**SARI BANAKETA** > DKS'09

# Debagoieneko Kirol Sariak banatuko dituzte gaur Oñatin




Ekitaldian batuko dira 2009an kirol lorpen handienak lortu dituztenak, eta baita kirolaren alde lanean dabiltzanak ere

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Gaur, egubakoitza, arratsaldean banatuko dituzte Oñatiko Santa Ana antzokian (19:00) Debagoieneko Kirol Sariak. Ekitaldian 2009an kirolari onenak izan direnak aukeratuko dituzte –goian dituzue finalistak–, eta horrekin batera banatuko dituzte, besteak beste, talde onenaren saria, teknikari aipagarrienaren saria, babesle fidelenaren saria eta herritarren saria, jendeak Internet bidez (*www.kirolsariak.com*) aukeratutakoa.

Hain zuzen ere, DKSko koordinatzaileek azken sari horrek izan duen harrera ona azpimarratu dute: "Proposamen mordoa jaso ditugu webgunean, baina izenetatik eta zenbakietatik haratago, asko poztu gara ikusi dugulako jendeak eman dituen arrazonamenduek bat egiten dutela DKSk duen filosofiarekin, herriko kirolaren alde urte mordoa boluntario lanean dabiltzan jendea izan delako botatuena", adierazi du Artemaneko Gorka Etxabek.

**19:00ETAN HASIKO DA EKITALDIA**

Iazko DKSn moduan, aurten ere ahaleginduko dira ekitaldi arina egiten, entretenigarria. Momentu hunkigarriak ere izango ditu, oñatiarrek omenaldi berezia egingo diote-eta aurten hil den Jose Luis Agirreri, herrian oso estimatua zen gizona eta Aloña Mendiren alde horrenbeste lan egin zuena.

Epaimahaiko kideek erreze-lo handiz gorde dituzte sarituen izenak, eta onartu dute asko kostatu zaiela sarituak aukeratzea, ez baita batere erraza kirol modalitate ezberdinetan jarduten duten lagunen lana baloratzea.

**DKS 'HARMAILATIK' SAIOAN**

Gaur DKS ekitaldia bertatik bertara jarraituko ez duzuenok astelehenean bertan izango duzue sari banaketa telebistaz ikusteko modua, GOITBko *Harmailatik* saioa berezia izango delako (22:15). Horrekin batera, Gabonetan ere DKS ekitaldia eskainiko du Goiena Telebistak.

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

## UDAK etxean domekan eta Mondrak eta Aloñak derbia

Domekan Amurrio izango da Ibarran; larri dabiltzan Mondrak eta Aloñak derbia jokatuko dute Mojategin

**XABIER URTZELAI** > HERRIA

Hirugarren mailan, Aretxabaletak (24) urtea *play-off* postuetan amaitu nahi duen Amurrioren (29) bisita izango du domekan Ibarran (16:30). Joan den astean UDAko mutilak Portugaletetik kolpe handia jasota itzuli ziren etxera, eta arantza hori etxeko zaleen aurrean atera nahi dute, nahiz eta kontrario gogor baten aurrean izan. Urtea amaitu aurretik, baina, aretxabaletarrek Agurainera egin beharko dute bidaia urteko azken asteburuan (hilak 27), sailkapenean azken postuan dagoen Salvatierra taldearen kontra jokatzera.

**DERBIA ZAPATUAN**

Ohorezko erregional mailan, Mondrak (15) eta Aloña Mendik (14) derbia jokatuko dute zapatuan Mojategin (16:30). Bi talde horiek ez daude Olentzerotarako, eta kontrarioa *lagun* dutela ahaztuta zelairatuko dira bihar, seguru. Bergarak (19), berriz, jaitsiera postuetan murgilduta dagoen Real Unionen (12) zelaira egingo du bisita bihar, zapatua (15:30).

Urtea amaitu aurretik beste jardunaldi bat izango dute. Eta, Bergarak eta Mondrak derbia jokatuko dute.



**> HISTORIA**
'Euskal burdinoletako bizimodua' Azpiazuren liburu berria **> 38**



**> MUSIKA**
The Georgia Mass Choir taldeak gospel emanaldia egingo du Arrasaten **> 39**



**> TELEBISTA**
Arrasateko Santamas jaien gaineko 'Magazinea' berezia **> 45**



Bertsolaritzaren gaineko dokumentala filmatzen dihardu Asier Altunak. Goian, Berako Bertso Eskolan grabatu zuteneko irudia.

# Bertsoak, plazatik pantaila handira

**DOKUMENTALA** Bertsolaritzaren gaineko dokumentala egiten dabil Asier Altuna bergararra

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bertsolaritzaren gaineko dokumentala filmatzen dihardu Asier Altuna *Kixi*-k. Hain zuzen ere, joan den domekan BECen jokatutako Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko finalean irudiak grabatzen jardun zuen zinemagile bergararrak. Talde txikiarekin egindako lana izango da. *Kixi*-rekin batera, Gaizka Bourgeau argazki zuzendariak, Pablo Bueno soinu teknikariak eta Sonia Eguren kamera laguntzaileak hartuko dute parte. Gaizka Bourgeau eta *Kixi* elkarrekin lan egindakoak dira *Brinkola* telesailean.

Dagoeneko hainbat material eskuan dutela, hurrengo urratsa 5-10 minutuko trailerra egitea da, finantzazioa lortzen laguntzeko. Orain arte, Jaurlaritzaren eta EITBren laguntza jaso dute.

**EZAGUTZERA EMAN**

Besteak beste, Andoni Egaña txapeldun ohia eta John Foley bertso aditu estatubatuarra elkarrizketatu dituzte, eta, esan bezala, final eguneko irudiak jaso. *Kixi*-k zera dio: "Bertsolaritza kanpoan ezagutzera ematea da helburua, eta horretarako, besteak beste, jatorria, historia eta gaurko egoera jorratuko ditugu. Badira dokumental zaharrak, baina 20 urtetik hona, esaterako, asko aldatu da bertsolaritza, soziologikoki edo antropologiatik aztertuta. Uste dugu kanpotarrak harritzeko moduko ohitura dela bertsolariena eta hori islatu nahi dugu, ikuspegi poetikoa emanez eta tarteka artxiboko irudiak erabilita. Bertsozale Elkarteak laguntza handia eman digu".

**LUJANBIO ETA ITURRIAGAREKIN**

Maialen Lujanbio txapeldun berriak eta Unai Iturriagak gidoia egiten kolaboratuko dute *Kixi*-rekin, urtarriletik aurrera. Lujanbioren txapela jomuga bat izan da txapelketarako: "Une historiko bizi izan genuen domekan BECen, eta ikustekoak ziren emakumeen emozioak, ikusleek horrelako egun baten azaleratzen dituzten emozioak". Beste irudi bat ere geratu zitzaion grabatuta: "Atsedenean, bazkaltzera joateko orduan, BEC hutsik eta aulkiak ikusleen jaka eta berokiekin okupatuta. Oso leku gutxitan ikusten da halako besteekiko konfiantza".

Dokumentala uda alderako amaituta egotea espero dute. Ordu eta erdi ingurukoa izango da, eta, lehenbizi, zinema aretoetan erakutsi nahi dute. Bertsoak, plazatik pantaila handira.

## Lujanbio txapelduna, domekan Arrasaten

Maialen Lujanbio txapeldun berria izango da domekako Amaia antzokiko bertso saioko izar nagusia. Eguaztenean Arrasate Irratia-n jardun zuen, Oihana Elortza kazetariarekin: "Oraindik lortutakoaz guztiz jabetu gabe nago; domekakoa hozten doan heinean lortuko dut hori. Finala zortzi orduko maratoia izan zen eta txapelketarako prestaketa intuitiboa izaten da, buruko jarrera egokia ezinbestekoa da. Gorputzez ondo sentitzeak ere laguntzen du, noski, eta nire kasuan, behintzat, mendian ibiltzea gustatzen zait, oinez hobeto pentsatuko banu bezala...". Txapela *estreinatuko* du Arrasaten: "Santamasetako saiotik oroitzapen politak dauzkat".

**ikuspuntua**



Ainhoa Agirreazaldegi

## Galderak egitera kondenatuta

Emakume batek txapela irabazteak zein ondorio izango dituen galdetu didate. Maialen Lujanbiok txapela irabazteak zein ondorio izango dituen galdetu behar genieke geure buruei. Bada aldaketa franko Andoniren bertsokeratik Maialenen bertsokerara, artikulu mordoxka idazteko adinakoa, eta izatekotan, horregatik izango du eragina txapel aldaketak. Oso bertsolari on batek irabazi du txapela eta, txapelduna emakumea da. Horra hor titularraren hurrenkera naturala.

Txapela, sinbolo izan daiteke, edo ez. Txapela, sinbolo baino gehiago izan daiteke, edo ez. Hamasei urtez izan da txapeldun Egaña, eta horrek eragina izan du azken urteotako bertsolaritza garatzeko moduan. Sorpresarako gaitasuna, umore eta ziri anitzak, ahots kritikoa… jaso ditugu Andoniren bertsokeran, eta ezaugarri horiek landu ez ezik, imitatu ere egin dira sarri. Hari luzea leukake gai honek.

Egun, Lujanbio da txapelduna. Pozten naiz orain zortzi urte ez zuelako txapelik irabazi. Bestenaz, agian ez zukeen egingo, txapeldunaren fokopetik kanpo baino egin ez daitekeen sakoneko ibilbide hori. Bila ari zen orain zortzi urte ere, eta galderak egiten jarraitu zuen, zer eta nola kantatu nahi zuten bere erraiek, bere bihotzak, bere eztarriak, bere ahots euskaldunak, bere ahots kritikoak, bere ahots baztertuak, bere ahots sentiberak, bere barne-indarrak… Emakumea izanik, gizonezkoena zen munduan galdera horiek bere buruari erantzutera kondenatua zegoen, aurretik eredurik ez dagoenean eta bat gainontzeko kideak ez bezalakoa sentitzen denean hainbat esparrutan, beste biderik ez dago. Eta artista izan da galdera horiek bere buruari erantzun eta guri bertsotan erantzunak ikusarazten. Modu sotilean, sotiltasunak izugarrizko indarra hartzeraino.

> **"Bakoitzak bere ibilbidea egin behar duela ikasi dugu Maialenekin. Zorionekoak gu"**

Bakoitzak bere bidea egin behar duela ikasi dugu Maialenekin. Zorionekoak gu, eta gerora etorriko diren bertsolari guztiak. Emakume eta gizon, guztiontzako ikasgaia baita hori. Txapelduna imitatzea baino, hobe dugula geure barruan bila aritzea… Hori baino opari hoberik txapeldun baten erraietatik, bihotzetik, eztarritik! Eta irabazleen sinbologia maite dutenek, berdin neska nahiz mutilek, emakume nahiz gizonek, lehen ez bezala, orain aukeratu ahal izango dute Amets edo Maialen izan nahi duten. Eta horrek ere badu bere garrantzia, batez ere, Ametsek Maialenengandik asko ikasi nahi izan duelako.

Zorionak, Maialen, eta batez ere, eskerrik asko!



Maialen Lujanbio, domekako finalean, Joxe Agirrerekin. BERTSOZALE

Jose Antonio Azpiazu > Historialaria

# "XVI. mendean burdina zen Gipuzkoako oinarri ekonomikoa"

EDU MENDIBIL > BERGARA

***La historia desconocida del lino vasco* eta *La empresa vasca de Terranova* lanen ostean, Jose Antonio Azpiazu historialariak *Euskal burdinoletako bizimodua. La vida en las ferrerías vascas* (Lenbur fundazioa) liburua aurkeztu zuen atzo Legazpin. Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundean lanean jardundakoa, erretiratu berria da Azpiazu, haren moduko idazle emankor bat inoiz erretiratzen bada...**

**Legazpin, jaioterrian, aurkeztu duzu liburua; izan ere, Legazpi burdinari oso lotuta dago...**

Bai, Legazpi burdinaren inguruan eraikitako herria izan zen, nekazariendako nahiko lur pobreak baitziren haiek. XVI eta XVII. mendeetan burdinolek sekulako garrantzia zeukaten eta burdina zen Gipuzkoako oinarri ekonomiko nagusia. Produkzioa ez zen nolanahikoa, penintsula osora eta Amerikara esportatzen baitzen. Aizkorri azpian, Zalduondo garraiobide garrantzitsua zen garai haietan. Nagusiki, janarien truke (Arabatik garia eta ardoa jasotzen zuten) egiten zen esportazioa.

Eta ez burdina bakarrik. Altzairua ere esportatzen zen eta Arrasatekoa, esaterako, Milangoarekin, Europako altzairu onenarekin parekatzen zen.

**Noiz etorri zen burdinolen gainbehera?**

XVIII. mendean, ikatz faltak eta konpetentziak eraginda. XIX. mendean burdinolak desagertzear zeuden. Aurretik Azkoitiko Zaldunak-eta saiatu ziren industria hura berritzen, baina ezinezkoa izan zen, mendiak nolabait agortuta zirelako, etxeak edo itsasontziak egiteko egur piloa erabili zelako eta ez zegoelako ikatzik aurrera egiteko.



Jose Antonio Azpiazu. GOIENKARIA

**"Ikatz faltak eta konpetentziak eraginda, XIX. mendean burdinolak desagertzear zeuden"**

**"Olagizonak modernoak ziren, teknika arloan oso jakintsuak "**

**Burdinolen garaiko bizimodua aztertu duzu liburuan, ala?**

Bai, burdinoletan erabiltzen zituzten tekniketan baino, nahiago izan dut bizimodu hura jaso. Hain zuzen, olagizonak ez ziren ke eta su artean ibiltzen ziren gizon primitiboak, jende askok uste duen moduan. Gizon modernoak ziren, teknika arloan oso jakintsuak eta merkatuari begira lan egiten zutenak. Industria haren garrantziaren lekuko zera dugu: gaztelerak berak maileguan hartu zituen euskaraz erabiltzen ziren hitz asko eta asko, armagintzarekin gertatu bezala.

Liburua zenbait argazkirekin eta Jose Andueza artista legazpiarraren marrazkiekin lagunduta dator. Lenbur fundazioak bultzatutako lana izan da. Ez da burdinolen gainean idazten dudan lehenbizikoa; 1980an, Mirandaolaren 400. urteurrena ospatzeko, *Ferrerías en Legazpi* argitaratu genuen taldetxo batek.

**Etorkizunerako zein proiektu duzu esku artean?**

Datorren urtean Azpeitiak 700 urte egingo ditu herri bezala, eta monografia batzuk egingo dira, Juantxo Madariagaren zuzendaritzapean. Niri, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako merkataritza eta industriari buruzko lana enkargatu zidan, eta sekulako material pila dago.Etorkizunean, Debagoienko istorio antropologikoak jaso nahi nituzke liburu baten. Hainbat proiektu ditut *disko gogorrean* oraindik.



GABONETAKO ESKAINTZAK

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Mirari jantzi dendak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

**MUSIKA** > GOSPEL

# The Georgia Mass Choir taldearekin gospel kontzertua eguaztenean Amaian

Milton Ray Biggham-ek 1983. urtean sortu zuen taldea eta 12 disko kaleratu dituzte dagoeneko; hamabost kantarik eta lau musikarik osatzen dute The Georgia Mass Choir



The Georgia Mass Choir. Eguaztenean gospel saioa eskainiko dute Arrasaten, Amaia antzokian. GOIENKARIA

**E. MENDIBIL** > ARRASATE

Gabonen atarian ohikoa bilakatu denez, aurten ere gospel emanaldia izango dugu Arrasaten. The Georgia Mass Choir talde estatubatuarrak emanaldia egingo du eguaztenean, hilaren 23an, Amaia antzokian, 20:00etan. Sarrerak Servikutxako kutxazainetan edo 943 00 12 00 telefono zenbakian eskura daitezke, 20 eurotan.

Ibilbide luzeko taldea da The Georgia Mass Choir. Milton Ray Biggham agurgarriak 1983. urtean sortu zuen taldea, Macon-en, Georgian. 1996. urtean mundu zabalean ezagutzera eman zen; izan ere, urte hartan jokatutako Atlantako Joko Olinpiarretako hasierako eta amaierako ekitaldietan abestu zuten.

**HAMABI DISKO**

Dagoeneko hamabi disko kaleratu ditu Georgiako abesbatzak, eta, besteak beste, Stellar, Grammy eta Dove sariak irabazteko izendatuta egon zen 1997. urtean, *Georgia Mass Choir Greatest Hits* (Savoy Records) izenburuko lanari esker. Aipatutako diskoan entzun daitezkeen hiru kantu Whitney Houstonen *La mujer del predicador* filmeko soinu bandan jaso zituzten. Aldi berean, Whitney Houstonekin batera NAACP saria irabazi zuen taldeak eta Stevie Wonder abeslariarekin kantatu zuten *Celebrated the Dream: 50 Years of Ebony* saioan, 1996an.

*They That Wait* (2000) eta *They Got the World* (2002) dira taldearen azken lanak. Milton Ray Bigghamen zuzendaritzapean, 15 abeslari (sopranoak, altuak eta tenoreak) eta lau musikari dira eta emanaldietan gospel tradizionala eta taldeko abesti ezagunenak tartekatzen dituzte.

> MUSIKA

## Jan Vermeire organo-jole belgikarra domekan Oñatin

Jan Vermeire organo-jole belgikarrak emanaldia egingo du domekan Oñatiko San Migel parrokian. Kontzertuaren lehenbiziko zatia 11:30ean izango da eta meza ostean, 12:45ean, bigarrena. Besteak beste, Cesar Franck, Pierre Froidebise, Flor Peeters eta Theodore Dubois-en piezak joko ditu, XIX. eta XX. mendeetako konpositoreenak, hain zuzen. Schola Furnensis Henricus Beauvarlet-eko zuzendaria da Vermeire eta klabikordio kontzertuak ematen ditu sarritan.

> ERAKUSKETA

## 'Natura eta mendia' argazki erakusketa Oñatiko kultura etxean

Aloña Mendik antolatutako *Natura eta mendia* argazki erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, kultura etxeko erakusketa gelan. Erakusketa urtarrilaren 6ra bitartean izango da zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean itxita izango da erakusketa.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**



**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan etxebizitza salgai. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, terraza, trastelekua eta garajea. 626 89 15 94.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. 630 03 41 65 edo 669 05 80 33.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproposa pertsona bakarrarentzat edo bikotearentzat. 600 euro hilean. 943 85 06 23.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, bi komun eta trastelekuarekin. Txaro. 653 71 22 42.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Egoera onean. Merke. ( Telefono finkora gauetan deitu, mesedez). Deitu 667 03 10 42 edo 943 79 25 16 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailuarekin. Prezio onean. 666 40 65 58 edo 690 79 78 00.

**Bergara.** Bi logela eta bi komuneko etxebizitza ematen da errentan, Ibargarai 15ean. Deitu 659 44 58 06 zenbakira.

**Bergara.** Plazan bi logelako etxebizitza errentan ematen da. 686 48 55 48.

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan Salbador kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. 650 23 10 19.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza. Bi komun, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzita. 645 71 98 84.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikote langile eta arduratsuak etxebizitza alokatuko luke Ibarra edo Aramaion. 699 40 73 35 edo 669 15 36 58.

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. 691 03 25 02.

**Bergarako** neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. 649 40 72 49.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Sagasti auzoan pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua da eta terraza dauka. 618 12 08 01.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. Deitu 610 82 02 17 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 670 59 73 62.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu lau gelako etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira bertan. Deitu 605 77 51 66 edo 943 79 46 13 zenbakietara.

**Arrasaten** etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 653 71 44 57 telefonora.

**Bergara.** Logela bat behar da urtarriletik 1etik, bost hilabetez, australiar mutil gazte batentzat. 943 76 31 42.

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Deitu 655 71 41 24 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Astean bi egunez, etxea garbitu eta plantxa egiteko pertsona arduratsua behar da. Deitu 625 70 92 05 telefono zenbakira.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Lan egingo nuke garbiketa lanetan: elkarteak, tabernak, bulegoak eta abar. Astean zehar zein asteburuetan. Erreferentzia onak. Deitu 648 19 10 38 telefonora.

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Neska gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. Sukaldean, barran zein jangelan. Ordutegi malgua. Legezko paperak dauzkat. Santamasetan ere lan egingo nuke. Deitu 620 54 60 59 telefonora.

# IRAGARKI SAILKATUAK

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU<br>102. EROSI<br>103. ERRENTAN EMAN<br>104. ERRENTAN HARTU<br>105. ETXEAK OSATU<br>106. BESTELAKOAK | 301. SALDU<br>302. EROSI<br>303. ERRENTAN EMAN<br>304. ERRENTAN HARTU<br>305. BESTELAKOAK | 501. JASO<br>502. EMAN<br>503. BESTELAKOAK | 701. SALDU<br>702. EROSI<br>703. EMAN<br>704. BESTELAKOAK | 901. AGURRAK<br>902. HARREMANAK<br>903. DEIAK<br>904. BESTELAKOAK |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| 201. SALDU<br>202. EROSI<br>203. ERRENTAN EMAN<br>204. ERRENTAN HARTU<br>205. BESTELAKOAK | 401. ESKAINTZAK<br>402. ESKAERAK<br>403. BESTELAKOAK | 601. SALDU<br>602. EROSI<br>603. ALOKATU<br>603. KONPONDU<br>604. BESTELAKOAK | 801. SALDU<br>802. EROSI<br>803. EMAN<br>804. HARTU<br>805. TRUKATU<br>806. GALDU<br>807. AURKITU<br>808. BESTELAKOAK | |

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Aretxabaleta.** Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Arrasate edo Bergara.** Emakumea gertu arratsaldeetan edo asteburuetan nagusi eta umeak zaintzeko. 697 93 73 32.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 636 25 56 68 edo 943 25 02 94.

**Arrasate.** Emakumea gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. 662 70 31 68.

**Arrasate.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**AUKERA**

**Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan.**
**Lehen mailako materialekin.**
**Eraikuntza bukatua.**
**PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Korosti inmobiliaria**
**Ibargarai 3 – Bergara Tel.: 943 76 97 97**
***www.inmokorosti.com***

**Arrasate.** Neska euskalduna arratsaldez nagusiak zaintzeko gertu. Automobil propioa. Deitu 696 37 92 29 telefonora.

**Bergara edo Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke, egunez. Deitu 943 53 28 18 edo 696 84 19 51 telefono zenbakira.

**Bergara eta Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 691 03 25 02 telefonozenbakira.

**Bergara.** Aste bukaeretan garbitasun lanak egingo nituzke taberna batean. Paperak ditut. Deitu 616 20 49 83 telefono zenbakira.

**Bergara.** Paperak dituen emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Deitu 696 19 05 15 telefonora.

**Bergara.** Tabernan, garbitasun lanak egiten edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Ana. 648 60 27 87.

**Debagoiena.** Emakume esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke. Legezko paperak ditut. Deitu 689 50 61 24 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere arituko nintzateke. 676 28 87 84.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Deitu 619 92 40 86 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. Paperekin. Deitu 606 64 16 09 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukalde laguntzaile edo lisatze lanak egiteko. Hiru urteko esperientzia. 647 16 40 49.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Lan egiteko baimena daukat. 618 98 31 50.

**Debagoiena.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Garbiketa egiteko ere gertu. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17.

**Debagoiena.** Ile-apaintzaile lanetan jardungo nuke. Deitu 639 00 35 57 zenbakria.

**ARETXABALETA**

**Taberna-jatetxea errentan.**
**Bezero fidelak.**
**80 pertsonarendako.**
**943 77 21 24**
**696 02 42 10**

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. Deitu 626 78 22 95 telefonora.

**Debagoiena.** Manikura eta pedikura egiten dut etxez etxe. Azazkaletan marrazkiak ere bai. Kolonbiako produktuekin. 10 euro. Deitu 654 79 07 58 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntzan, lantegietan edo dendetan lan egiteko. Deitu 689 92 82 67 telefonora.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko aste bukaeretan, jaiegunetan edo arratsaldeetan. Klinikako laguntzaile titulua daukat. 943 74 82 09.

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egin zein nagusiak zaintzeko. 686 73 63 53.

**Debagoiena.** Neska ukrainarra etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izateko edo orduka lan egiteko gertu. 690 13 13 99.

**Debagoiena.** Pertsona edadetuen eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. 606 85 67 08.

**Debagoiena.** Pertsona esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko gertu (Maite). 943 53 27 11 edo 650 17 74 87.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak garbituko nituzke. Deitu 669 98 46 47 zenbakira.

**Garbiketak.** Neska langile eta esperientziduna garbiketak egiteko prest, orduka. Deitu 669 20 57 98 edo 665 70 00 63 telefono zenbakietara.

**Kamioi gidari** baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. 610 67 18 60.

**Oñati.** Neska portugaldarra (gaztelania dakit), oso arduratsua, zaharrak nahiz umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota edozein motatako garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu 697 50 41 90 telefono zenbakira.

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Eskoriatza.** DBHko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. Deitu 668 69 00 08 telefonora.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 telefonora.

**Arrasate.** Goi Ingeniaritzako ikasle arduratsua eskola partikularrak emateko prest. Deitu 625 74 91 50 zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89.

**Ingelesezko elkarrizketak.** Bergaran ingelesezko elkarrizketak eskaintzen ditut, 'one to one'. 654 94 87 26.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Yamaha FZ6 Facer S** motorra salgai. 600 cc. 98 ZP. 2007koa. 32.000 km. Givi maleta ekipo osoa. Estrak. 4.500 euro. Deitu 679 81 87 87 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 943 79 62 63.

**Bi cocker salgai.** Gorriak. Arrak. 2009ko urriaren 10ean jaiotakoak. 696 54 24 20.

**Kanarioak** salgai. Anilladunak. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Banku-billeteak** eta txanponak saldu eta erosiko nituzke. 688 61 85 02.

**Baserritar arropa.** 6-8 urteko mutikoarendako alkandora, 6 eurotan; eta gomazko abarka beltzak, 10 eurotan. Artilezko galtzerdiak opari. 656 78 64 64.

**Bikiendako** EasyWalker markako karroa salgai. Deitu 943 03 66 80 zenbakira.

**Eski alpinoko** ekipoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Eskiak: Salomon, 1,60 m neurrikoak (250 euro). Botak: Atomic, 41 neurrikoak (130 euro). Makilak eta funda opari. Deitu 690 83 98 53 zenbakira.

**Eskiak.** Eski alpinoko pare bi eski salgai. Rossigol, 1,75 m neurrikoak: 60 euro. Dynastar (Look fijazioak), 1,85m neurrikoak: 60 euro. Deitu 690 83 98 53 telefonora.

**Eskiatzeko materiala.** Buzoa, 10 neurrikoa, 15 eurotan; botak, 6-7 urteko umeentzat, 20 eurotan; 1,40 neurriko eskiak, 15 eurotan; eta metro bateko bastoiak, 6 eurotan. Gore-Tex eskularruak opari. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

**Ordenagailua.** Pentium 3. Windows 98. 256 MB RAM. Word, Excel, Access, Publisher teklatua, sagua, CD irakurgailua eta bozgorailuak. 60 euro. 666 24 86 40.

**Samsung J700** poltsikoko telefonoa salgai. Oso ondo dago. 30 euro. 615 49 09 36.

**Snow-taula** salgai. Fijazio eta guzti, 85 eurotan; eta taula bakarrik, 50 euro. Egoera onean. 671 92 06 49.

**Soinua.** Zero Sette markako soinua salgai. Ia berria. Deitu 647 51 52 80 telefonora.

**Umeendako motxila.** Salewa etxekoa. Aulkia, motxila, eguzkitik babestekoa eta ez bustitzeko zakua. 60 euro. Deitu 645 72 08 11 zenbakira.

### 802. EROSI

**Akordeoi-pianoa** erosiko nuke. 120 baxukoa. Deitu 699 10 74 45 telefonora.

### 803. EMAN

**Egongelako mahaia** oparitzen dut. Baxua, kristalezkoa eta altzairuzkoa. Deitu 635 72 58 14 telefonora0.

### 804. HARTU

**Bi sofa** hartuko nituzke. Botatzeko badituzu, deitu 679 09 33 34 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Bandolera** beltza galdu nuen Arrasateko Iturripe frontoi inguruan. McMinley etxekoa. Barruan dokumentazioa eta argazki zahar batzuk daude. Balio sentimental handikoak dira. Aurkitu badituzu, mesedez, eraman itzazu BAZera. Eskerrik asko.

**Betaurrekoak.** Umearen betaurreko graduatu urdinak galdu genituen zapatuan, azaroaren 28an, Arrasaten, Iturriotz eta San Andres artean. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 665 72 23 06 telefonora.

**Nintendo DSa** galdu dut, Oñatin. Urdin argia da. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu. 943 71 65 35 edo 635 55 67 23.

**Paparreko orratza** galdu nuen Bergaran azaroaren 21ean; Espoloitik zaharren egoitzara bitartean. 676 36 64 12.

**Tronpeta** salgai. Deitu 638 89 78 76 telefonora.

### 807. AURKITU

**Arrasate.** Ikasle Egunean, Arrasateko Basati tabernan, Trango markako txamarra beltza trukatu nuen poltsikoan MP3a zuen beste batengatik. Txamarra eta MP3a errekuperatu nahi badituzu, dei iezadazu 626 32 04 72 telefono zenbakira.

**Betaurreko gorriak** aurkitu nituen Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Galdu badituzu deitu: 943 74 18 69.

**Bizikleta Oñatin.** Bizikleta beltza agertu zen abenduko zubian, Lazarraga kalean. Nahiko berria da. Zure bada, deitu zenbaki honetara: 626 17 73 55.

**Eskumuturrekoa** aurkitu nuen azaroaren 24an Aretxabaletan, Azbeko aparkalekuan. Zilar kolorekoa. Zurea baldin bada, deitu. 615 79 20 66.

**Gurpildun aulkia** agertu zen zapatuan, azaroaren 21ean, Bergarako kiroldegiko taberna aldamenean. Galdu duena pasa dadila tabernatik.

**Kaskoa** aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. 658 75 64 65.

### 808. BESTELAKOAK

**Bergaratik Gasteizera joan-etorria** egiten dut egunero, autobidetik. Bergaratik 09:00etan irten eta buelta Gasteiztik 17:00etan egiten dut. Norbaitek autoa osatzea nahi badu, dei diezadala 606 96 23 80 edo 943 76 32 23 telefono zenbakietara.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero joaten gara. 08:00etan heltzen gara eta irten 17:00etan. Interesatzen bazaizu, deitu. Deitu 635 20 33 14 telefonora.

Gipuzkoa2.0
KULTURA KOLOREZTATUZ, ZUREKIN AURRERA
www.gipuzkoa2.net

**“ Euskal kulturaren erabilera guztion ohitura izatea helburu duen bide orria.”**

“ La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca.”

*“ La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l'usage de la culture basque.”*



**zure, gure, denon ahotsak.**

*Ahotsak.com*, *Goiena.net*, *Blogak.com*, *Berria.info*, Dantzan.com, KDE4 eguneraketa,Sustatu.com, Bularretik mintzora, Hitza.info, 28kanala.com, Euskalkultura.com, Otamotz.com, Euskarazko software katalogoa, Zuzeu.com, Facebookera widgeta, Bertsoa.com, Guraso.com, Flysch, Haitzen Haitza, Erlotelebista.com, Estropa.net, API garapena, Euskalmapa.com, elgoiBARREn.net, Bidasoamedia.com, Hernanibertsotan.com, Zugaz.com, Uztarria.com, Pausuirratia softwarea, eta gehiago....

GIPUZKOA | KULTURA ETA EUSKARA DEPARTAMENTUA
zurekin, aurrera

# Debagoieneko
# GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
*f.oyanguren@ctv.es*

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**IZBAR**
BERGARA
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea,
Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.




Arrasateko Santamas egunean ateratako argazkia. IMANOL SORIANO

# Santamas jaien gaineko 'Magazinea' berezia

## Opariak emango dituen lehiaketa ere egingo dute martitzeneko saioan

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Datorren martitzenean, abenduak 22, Santamas eguna ospatuko dute Arrasaten, eta GOITB horren lekuko izango da. Egun horretako *Goiena magazinea* programa, adibidez, berezia izango da. Santamasak izango dira saio horren ardatz eta jai horrek beteko ditu iluntzeko *Magazinea*-ren minutu gehienak. Santamas eguneko azoka, txerria, kaleko giroa, talogileak, musikariak... denek hartuko dute tokia martitzeneko *Magazinea* berezian. Bestalde, Santamas egunaz gain, Loteria Nazionalaren eguna ere bada abenduaren 22a. Eta loteriak beste dirurik ez, baina opariak emango duen lehiaketa egingo dute, gainera, martitzeneko programa berezi horretan.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Martitzena, 19:45

## Jarraitu Santamasak irratitik

**O.E.** > ARRASATE

Arrasate Irratiak Santamasen gaineko irratsaio berezia egingo du datorren martitzenean, abenduak 22. Gainera, sarrerak izango ditu entzuleen artean zozketatzeko; bai pilota partiduetara joateko, baita gospel kontzertuaz disfrutatzeko ere. Horretarako, baina, irratia entzun behar da. Bestetik, Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu hilaren 23an eta datorren urtarrilaren 7an arrankatuko du berriz autobusa.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Aste barruan, 10:00



GOIENKARIA

## DKS sariak 'Harmailatik' programan

Debagoieneko Kirol Sarien banaketa eskainiko dute astelehenenko *Harmailatik* programan. Urte osoan egindako kirol lorpenengatik ibarreko kirolari onenei epaimahaiak emandako sariak, ibarreko hainbat udalek ematen dituztenak eta herritarren saria.

**GOITB, 'Harmailatik'** > Astelehena, 22:15

### telebegi

**Oihane Agirre**
> 'oagirre@goiena.com'

## Elkarlana abiapuntu

Aurten irudia gehitu diogu Durangoko Liburu eta Disko Azokari. Goiena Telebistak kudeatuta, ETB3 eta Hamaika Telebistarekin elkarlanean, proiektu interesgarria gauzatu dugu. Azoka Telebista abiatu dugu; pantaila erraldoi batean, azokako nobedadeak iruditan erakutsi ditugu. Elkarlanean aritu ez bagina, nekez gauzatuko litzateke telebista berri hau.

Aurten, Tokiko elkarteko toki telebistok bertsolari txapelketaren gaineko *Puntuz puntu* saioa ekoiztu dugu. Proiektu hau ere elkarlanean oinarritu da. Tokian tokiko bertso saioak grabatu ditugu, eta Iñaki Apalategik zuzendu eta aurkeztu ditu saioak.

Hementxe elkarlanetik abiatutako bi adibide. Eta sinistuta nago hauxe izan behar dela jarraitu beharreko bidea. Tokiko edukiez gain, toki telebistok eskaini behar ditugu beste saio batzuk ere; baina esfortzuak batuta, betiere.

### arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

### astea GOITBn

**Egubakoitza, 18**
**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 19**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** Kantari.
**14:00** On Ein.
**14:30** Udazken loreak.
**15:00** Barrebusa.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**18:30** Gipuzkoa Kultura.
**19:00** Kale kantoi.
**19:30** Itsasoari begira.
**20:30** 28 Klip.
**21:00** Ilunpean.
**21:45** On ein.
**22:15** Ikusten.
**22:45** Ikusmira.
**23:15** Wazemank.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 20**
**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasoari begira.
**12:30** Wazemank.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Ur eta Lur.
**14:15** Puntuz Puntu.
**14:45** Kale kantoi.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Barrebusa.
**19:15** Kantari.
**21:15** Wazemank.
**22:00** Erreportajea.
**22:45** GipuzkoaKultura.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 21**
**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Sakonduz.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klipa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** DKS Sariak.
**23:15** Ikusmira.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

**Martitzena, 22**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** DKS Sariak.
**16:20** Itsasora begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Wazemank.
**18:15** Gipuzkoa Kultura.
**18:45** Berriak
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Wazemank.
**23:45** Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 23**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Perretxikoak.
**14:45** Itsasoari begira.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** On Ein.
**16:20** 28 Klipa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** DKS Sariak.
**18:15** Ur eta Lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Ikusmira.
**20:45** Kantari.
**21:15** Berriak
**21:45** Kalekantoi.
**22:15** Erreportajea
**23:00** Mugaz kanpo
**23:45** Ilunpean.
**00:45** Emisio amaiera.

**Eguena, 24**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** On Ein.
**12:00** Perretxikoak.
**12:30** Mugaz kanpo.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Barrebusa.
**15:30** Olentzero filma.
**16:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**19:00** 28. kanala.
**19:30** DKS Sariak.
**20:30** 28 Klip.
**21:00** Olentzero filma.
**22:15** Gipuzkoa Kultura.
**23:15** Eskolaniak.
**01:15** Ahotsenea.
**02:00** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

PILAK BIRZIKLATZERA

**Irakurle batek galdetu digu erabilitako pilak dendetara eraman ezean, ea badagoen beste modurik birziklatzeko: "Beste tokiren batera bota daitezke erabilitako pilak?".**

Debagoieneko Mankomunitatean esan digute pilak saltzen dituzten dendetan egoten direla erabilitako pilak jasotzeko edukiontziak, baita udaletxe, ikastetxe eta osasun etxeetan ere. Baina denda horietara eramateko modurik ez dutenek beste bi aukera dituzte: batetik, garbiguneetara eramatea, astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; zapatuetan goizez.

Bestetik, Puntu Berde Mugikorrera eramatea. 09:00etatik 13:00etara bitartean egoten da furgoneta hamabostean behin honako egunetan eta tokietan: Antzuolan, frontoi ondoan, egubakoitzetan; Aretxabaletan, Gernika plazan,astelehenetan; Arrasaten, Laubide plazan, egubakoitzetan; Bergaran, Merkatu plazaren ondoan, zapatuetan; Eskoriatzan, Eduardo Gorosarri plazan, egubakoitzetan; eta Oñatin, Merkatu plazan, zapatuetan. Elgetan, Mendizaleen plazan jasotzen dituzte egubakoitzetan 16:00etatik 20:00etara bitartean; eta Gatzagan, herriko plazan, 13:30etik 14:30era, astelehenetan.

Bota daitezkeen pilak dira alkalinoak, botoi-pilak, poltsikoko telefonoen bateriak... Baina karkasa edo aparailu elektrikoak, poltsikoko telefonoak edo haien kargadoreak eta pilak eramateko erabilitako poltsa ez dira pilak jasotzeko edukiontzietara bota behar.

Pilak Recypilas SA enpresara bidaltzen dira eta pilak osatzen dituzten metalak errekuperatu: merkurioa, kadmioa, beruna... Oro har, toxikoak direnak.



Pila alkalinoak, botoi-pilak, poltsikoko telefonoen bateriak... jasotzen dituzte. GOIENKARIA

SARRERAK

**Oñatitik deitu digu irakurle batek. Ganbara abesbatzak eskainiko duen *Beltza* ipuin musikala ikustera joan nahiko luke eta galdetu digu ea sarrerak aurrez salgai egongo diren. Honakoa jakin nahi luke: "Non eta noiz izango dut sarrerak erosteko aukera? Zenbat balio dute?".**

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Oñatiko Udaleko Kultura Zerbitzuan esan digute abenduaren 14an ipini zituztela salgai emanaldi guztietarako sarrerak. Abenduaren 27an 19:30ean izango da ikuskizuna eta abenduaren 28an 17:00etan eta 19:30ean. Bost eurotan erosi ahal izango dira kultura etxean. Bestalde, salgai ipini dituzte baita ere Patata Tropikala antzerki taldeak egingo duen *Baso sorgindua* antzezlana ikusteko sarrerak. Urtarrilaren 3an bi saio izango dira: 16:30ean eta 18:00etan. Sarrerek hiru euro balio dute.

Gainera, Kultura Zerbitzuan jakinarazi digute Olaitturri elkarteak abenduaren 26an eskainiko duen *1542-Oñatiko Hitzarmena* antzezlanerako sarrera doanekoa dela, baina gonbidapenak aurrez hartu behar direla eta emanaldi bakoitzeko sarrerak kolore ezberdina izango duela.

Kultura etxean astelehenetik egubakoitzera 16:30etik 20:30era bitartean eta zapatuetan 10:00etatik 13:30era erosi ahal izango dira sarrerak, baita gonbidapenak eskuratu ere.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 19**
Eguna lainotsu esnatu eta elur apur bat egingo du eguerdira arte. Gauean ateri, baina lainoak izango dira.



**Domeka, 20**
Goizean laino gutxi batzuk izango dira; eguerdirako eguzkiak giroa pixka bat berotu arren, gauean berriz hoztuko du.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan, goiza lainotsu esnatuko da eta elur pixka bat ere egingo du, goizean ez ezik baita eguerdian ere; arratsalde eta iluntzerako argituz joango da eta domekan eguzkia nagusituko da.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Astelehena, 14 — 0º C

**MAXIMOA** Eguena, 10 — 16º C

**ASTEKO EURIA** ($l/m^2$) — 23,2 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria $l/m^2$ |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 9 | 15 | 3 | - |
| Eguena, 10 | 16 | 3 | - |
| Egubakoitza, 11 | 12 | 3 | - |
| Zapatua, 12 | 8 | 5 | 0,3 |
| Domeka, 13 | 8 | 2 | 1,4 |
| Astelehena, 14 | 2 | 0 | 1,2 |
| Martitzena, 15 | 2 | 0 | 20,3 |

## bono fotoa



## Gure bailarako zein herritan dago etxe hau?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Arrasateko **Pilar Urkia**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Zumeltzegi dorrea**

Garmendia Ardoak
ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak
eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

**ERANTZUNA** ..................................
IZEN-DEITURAK ..................................
HERRIA .................... TELEFONOA ....................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 19 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 20 | Español | Araba Etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 21 | Ruiz | Nafarroa Eorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 22 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 79 16 30 |
| Eguaztena, 23 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 24 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 25 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 19 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 20 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 21 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 22 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 23 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 24 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 25 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 19 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka,20 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 21 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 22 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 23 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 24 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 25 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 19 | Agirre | Gorosarri, 1 (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Domeka, 20 | Agirre | Gorosarri, 1 (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Astelehena, 21 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 22 | Anitua | Belorrieta, 1) | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 23 | Anitua | Belorrieta, 1) | 943 08 11 43 |
| Eguena, 24 | Anitua | Belorrieta, 1) | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 25 | Anitua | Belorrieta, 1) | 943 08 11 43 |

URTEURRENA

## Elisabeth Taapken Schellenberg

1921.06.03 / 2008.12.24

*Erraza izan zen zu maitatzea,
ezinezkoa zu ahaztea.*



Etxekoak.
Bergaran, 2009ko abenduaren 18an.

URTEURRENA

## Jose Antonio Usatorre Pagoaga

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzako **Joana Gomez** eta Arrasateko **Iñaki Gartzia** datorren zapatuan, abenduaren 26an, ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan eta ospakizuna Gure Ametsa jatetxean egingo dute. Zorionak eta egun zoragarria izan, koadrilako lagunen partetik.

URTEURRENA

## Juan Vallejo Marcos

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Nicolasa Albizu Agirre

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, abenduaren 19an,
19:00etan, Oñatiko Mikel
Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## hildakoak

- **Jose Ignacio Agirrebeña Goenaga.** Bergaran, abenduaren 9an. 58 urte.
- **Hilario Merino Fernandez.** Bergaran, abenduaren 10ean. 77 urte.
- **Ana Irazoki Larralde.** Bergaran, abenduaren 11n. 85 urte.
- **Manuel Gutierrez Gutierrez.** Bergaran, abenduaren 11n. 75 urte.
- **Paula Zangitu Kortabarria.** Bergaran, abenduaren 11n. 83 urte.
- **Kasiano Larrea Narbaiza.** Antzuolan, abenduaren 12an. 76 urte.
- **Angela Eguren Irazabalbeitia.** Bergaran, abenduaren 15ean. 85 urte.
- **Felisa Ibabe Larrañaga .** Arrasaten, abenduaren 16an. 85 urte.
- **Mariana Gil Parra .** Arrasaten, abenduaren 16an. 93 urte.
- **Maria Anparo Igartua Irizar.** Oñatin, abenduaren 16an. 83 urte.

URTEURRENA

## Facunda Lascurain Albistegui

E. Olaortuaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
11:00etan, Antzuolako
Antiguako elizan ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Iñarra Larrea

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parroian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Jose Ignacio Aguirrebeña Goenaga

**2009ko abenduaren 9an hil zen, 58 urte zituela.**

Hileta-elizkizunera joandakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko abenduaren 18an.

URTEURRENA

## Jesusa Zabala Iñarra

Angel Olabarria Zabalaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parroian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Nikolasa Aldazabal Salegi

**2008ko abenduaren 15ean hil zen, 89 urte zituela.**

Lehen urteurreneko meza zapatuan,
abenduaren 19an, 19:00etan, Oñatiko Mikel
Deunaren eliza nagusian ospatuko da.

—

*Elkarturik gatoz zugana
eskeintzera muxu eta
besarkada bana*

*zoragarria izan da
zurekin bizi izana,
betiko egongo zara
gure bihotzean, amama.*



Bertaratuko zareten guztioi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Kasiano Larrea Narbaiza

**2009ko abenduaren 12an hil zen, 76 urte zituela.**

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2009ko abenduaren 18an.

URTEURRENA

## Martin Beain Biain

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parroian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Emeterio Murguiondo Larrañaga

'Aierdi'

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 20an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parroian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

## Jose Inazio Garaikoetxea Etxaniz

**Bergaran hil zen 2009ko abenduaren 17an, 63 urte zituela.**

Koinatua: Jose Ramon Madinabetitia (Maria Pilar Garaikoetxearen alarguna). Osaba-izebak: Agustin Garaikoetxea eta Loli. Ilobak: Amaia eta Estepan, Asier eta Ana Belen, Larraitz eta Garikoitz. Joanes, Garazi eta Maialen. Eta gainerako senideak.

Haren aldeko hileta elizkizuna gaur, egubakoitza, abenduak 18, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian izango da.



Bertaratuko zaretenoi,
aldez aurretik eskerrak sendikoen izenean.

# Abenduak 18-23

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



BERGARA
**> Basque Country Pharaons eta Super Big Mamma zapatuan gaztetxean**
Iñigo *Cabezafuego* eta konpainia Jon Spencer Blues Explosion, Kuraia eta Barricadaren *teloneroak* izan dira. Super Big Mamma iruindarrak etorriko dira haiekin. Txapa Irratiaren 25. urteurreneko ospakizunen barruan. Bihar, 23:00etan.

## Musika



OÑATI
**> Juan Carlos Irizar zapatuan eta Jan Vermeire organo-jolea domekan**
Juan Carlos Irizarrek *Euskal abesti enblematikoak* lana aurkeztuko du bihar, zapatuan, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Domekan, berriz, Jan Vermeire organo-jole belgikarrak (argazkian) emanaldia egingo du San Migel parrokian, 12:00etan.

## Erakusketa



ARRASATE
**> 'Naturaren argazkilariak' erakusketa domekara arte, Kulturaten**
1964 urtetik jokatzen den *Naturaren argazkilariak* lehiaketako 83 argazki jarri dituzte ikusgai Kulturaten; 82 herrialde ezberdinetatik jasotako irudiak dira. Kulturateko aretoa arratsaldez dago zabalik, 17:30etik 20:30era.

BERGARA
**> Juanjo Altuna Akizuren margoak Nahikarin**
Altuna Akizuk 26 lan jarri ditu ikusgai.
Nahikari tabernan, urtarrilaren 3ra arte.

ARETXABALETA
**> Bainika erakusketa Arkupe kultura etxean**
Bainika ikastaroan parte hartu duten ikasleen lanak jarri dituzte ikusgai.
Arkupen, abenduaren 31ra arte. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

# Bertsoak

ARETXABALETA
**> Bertso afaria Peñagarikano eta Lizasorekin gaur**
Loramendik antolatuta, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanorekin bertso afaria izango da gaur, egubakoitza, Muru-Alde elkartean.
Txartelak Loramendi elkartean, 20 eurotan.

# Ikastaroak

ARETXABALETA
**> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik**
Saioak martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Ekainera arte.

# Antzerkia

OÑATI
**> 'Herri kirolak' Hipo eta Tomax pailazoekin**
Barrez lehertzeko ikuskizuna, hainbat abestirekin girotua. Oñatiko Errekalde herri eskolako gurasoek antolatuta.
Bihar, zapatua, Zuazola Institutuko areto nagusian, 17:00etan. 3 euro.

# Musika

ARRASATE
**> Arrasate Musikaleko taldeen Gabonetako kontzertua**
Orkestra Gaztea, Banda Txikia, talde mistoak eta kantu ikasleak arituko dira.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

ARRASATE
**> Arrasateko Txistulariak bihar**
Juan Carlos Larreategiren taldeak hainbat euskal pieza eskainiko ditu.
Bihar, zapatua, Kulturaten, 12:00etan.

BERGARA
**> The Covers, Haritz Elizegi, Underdidge eta Tabula Rasa**
*Xpressionk!!!* jardueraren barruan.
Bihar, zapatua, Muniben, Domingo Iralan, Frontoian eta Simon Arrietan, 18:00etan.

ARRASATE
**> Txalaparta emanaldia Juan Mari Beltranen eskutik**
*Ttakun ttan ttakun* ikuskizuna eskainiko du Beltranek.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. 10 euro.

OÑATI
**> Oñati abesbatza bihar**
Gabonetako kontzertua.
Bihar, zapatua, agustindarren elizan, 20:15ean.

ARRASATE
**> Sorkun eta Keu Agirretxea zapatuan 3 aretoan**
Keu Agirretxearen emanaldia akustikoa izango da.
Bihar, zapatua, 3 aretoan, 22:30ean. 6 euro.

BERGARA
**> Gabonetako kontzertua zapatuan Udal Pilotalekuan**
Bergarako Udal Musika Bandak, Aritzetak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoiak hartuko dute parte.
Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. 5 euro.

BERGARA
**> Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo eta Gabero domekan**
Abeslari gaztetxoen saioa.
Domekan, Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.

# Erakusketak

BERGARA
**> 'Euskal Herria Argien mendean' erakusketa**
Hamar panelez osatutako erakusketa da. Erakusketaren gaia *Zientzia, Teknologia eta Gizartea Euskal Herrian Argien mendean* da. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak eta EHUk Bergarako Udalaren babesarekin antolatuta.
Abenduaren 20ra arte. Lanegunetan: 18:00-20:00; eta jaiegunetan, 12:00-14:00.

BERGARA
**> Beart elkarteko kideen erakusketa Aroztegin**
Bergarako artisten lanak izango dira ikusgai Gabonetan.
Aroztegin, abenduaren 18tik 27ra. Azaroaren 29ra arte Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

PROPOSAMENA



ARRASATE
**> Bertso jaialdia domekan Amaia antzokian**

AED elkarteak antolatutako bertso jaialdian Maialen Lujanbio izango da, Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusiko txapeldun berria. Hernaniarrarekin batera, lau alditan txapeldun izandako Andoni Egaña, Jon Maiak (hirugarren postua eskuratu zuen domekan BECen, goiko argazkian), Igor Elortzak (finalista orain dela lau urteko txapelketan) eta Erika Lagomak (hirugarren Nafarroako txapelketan) jardungo dute domekan bertsotan. Gai jartzailea Egoitz Aizpuru izango da.
Domekan, abenduaren 20an, Amaia antzokian, 20:00etan.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**GAIA ERAKUSKETA IRAUNKOR BERRIA!** 1000 m² baino gehiago handitu berri dugun erakusketa. **Energia** eta **Natura** dira erakusketa honetako ardatz nagusiak. Energiaren kontsumo eraginkor batekin, gure Natura hobeto zaintzeko aholku eta konpromezuak, modulu interaktibo eta audiobisualen bitartez.

**PLANETARIUM**
**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.**
12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
Kartoizko suziriaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa .
**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

**JAIOTZA-ERAKUSKETA**
Abenduaren 12tik urtarrilaren 5era.
Museko sarrerarekin ikusga.

**SIMULAGAILUEN BERRIREKITZEA**
Abenduaren 19tik aurrera, Errusiar Mendia eta Tranbia gidatzailea berriz ere frogatzeko aukera.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo *jaikielkartea@ayahoo.es* helbidean.

BERGARA

**> Erromeriako dantzak eta dantza soltea**

Jardun euskara elkarteak antolatuta, erromeriako dantzen ikastaroa otsailetik maiatzera, martitzenetan 19:30etik 21:00etara. Fandangoa eta arin-arina Juantxo Urbietak erakutsiko ditu eguenetan, 19:30etik 21:00etara: hastapen maila urtarrilean eta otsailetik maiatzera maila guztiak.

Izenematea urtarrilean hasiko da. Argibideak Jardunen (943 76 08 19).

DEBAGOIENA

**> Hainbat ikastaro urtarrilean Bizikasiren eskutik**

Arrisku handiko elikagaien manipulazioa, urtarrilaren 13an eta 14an edo urtarrilaren 27an eta 28an Bergaran; web orrien tailerra, urtarrilaren 11tik 22ra Elgetan; mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza, urtarrilaren 19tik otsailaren 4ra Elgetan; sukaldaritza begetarinoa, urtarrilaren 12tik aurrera Bergaran eta Angiozarren.

Argibideak Bizikasin, 943 76 93 94 telefono zenbakian.

## Hitzaldiak

BERGARA

**> 'Komunikatzen ikasi eta erlazioak hobetu'**

Bizikasik antolatuta.

Urtarrilaren13an Miguel Altuna institutuan, 18:00etan.

ESKORIATZA

**> 'Pentsaera positiboa'**

Bizikasik eta Amuska emakume elkarteak antolatuta.

Urtarrilaren 20an Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etan.

## Lehiaketak

BERGARA

**> Amodiozko gutunen lehiaketa Jardunek deituta**

Lehiaketaren 18. ekitaldia da aurtengoa. 1995ean edo lehenago jaiotakoek parte har dezakete eta lan guztiek jatorrizkoak, sekula argitaratu gabeak eta euskaraz izan beharko dute. Lau sari banatuko dituzte otsailaren 13ko ekitaldian: lehenengoa, 500 euro; bigarrena, 250, euro; bergarar onenarendako, 150 euro; eta irakurle gazteek emandako saria (26 urtetik beherako parte-hartzaileentzat), 150 euro.

Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 7ra arte dago zabalik. Argibideak: 943 76 08 19.

ARRASATE

**> Jokin Zaitegi beka, Herta Müller itzultzeko**

Azken Literaturako Nobel saridun Herta Müller idazle errumaniar-alemanaren *Atemschaukel* (*Arnasaren kulunka*) eleberria itzularaztea da xedea.

Argibideak AED elkartean: 943 77 12 28.

# Zinema




## (500) Días juntos **

**Zuzendaria:** Marc Webb.
**Aktoreak:** Joseph Gordon-Levitt, Zooey Deschanel. AEB, 2009. 95 minutu.

Orokorrean, oihartzun mediatiko handia duten filmak kopiu kopuru handi batekin estreinatzen dira, aste gutxitan bukatu da haien ibilbidea eta DVDan irteteko gertu izaten dira. Badira zinema gutxitan estreinatzen diren filmak eta ia bi hilabete pasatu ondoren oraindik zinema geletan mantentzen direnak. Horixe da *(500) Días juntos*-en kasua. Gertatutakoa ontuan izanik, eta nahiko kritika onak jaso dituela ikusirik, filma ikusteko gogoa dago, eta, hori egin ondoren, esan behar dut zinema aretotik dezepzionatu samar atera naizela.

Ameriketako Estatu Batuetatik heldutako komedia erromantiko hau ez da film txarra, ikus daitekeen horietakoa da, eta aspergarria ez den arren, nahiko komedia *light* gertatzen da. Marc Webb zuzendariak bikote baten 500 eguneko harremana kontatzen digu. Ez du ordena kronologikorik erabiltzen, denboran aurrera eta atzera egiten du, pertsonaien harremanen egoera desberdinak, momentu onak eta txarrak erakusteko. Eta ez dago gaizki halako istorio bati egitura desberdin bat ematea, baina zuzendaria ez da gertatzen diren egoeretan sakontasunez sartzen. Horrekin ez diot eskatu nahi Ingmar Bergmanek egiten zituen bikoteari buruzko disekzioak egitea, baina bai eszena bakoitza dramatikoki gehiago garatzea. Eszena motzak dira, horietako askok abestiekin apaindutakoak, filmak itxura liraina har dezan, eta, horrela, istorioa azalean geratzen da.

Eszena onak dituen komedia da, eta hona hemen bi adibide: protagonistak festa baten gertatzea irudikatzen duenean eta errealitatean festa horretan benetan gertatzen dena, biak batera ikusten denean, edo bikoteak parkeko banku baten duen elkarrikzeta. Edozein modutan, orokorrean espero nuena baino arruntagoa azaltzen da *(500) Días juntos*.

**Antonio Zabala**

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Agora**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Pequeños invasores**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Luna nueva**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Barriola, San Adriango azeria**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**Duplicity**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Hotel para perros**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**La vida de Brian**
Eguaztena: 21:30.

### ARAMAIO

**KULTUR ETXEA**

**Revolutionary road**
Egubakoitza: 22:15.

**Wall.E**
Domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**Avatar**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 16:00, 19:15, 22:30.
Domeka: 16:00, 20:00.

**COLISEO 1**

**Amelia**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**(500) Días juntos**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

**Avatar**
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Avatar**
17:00, 18:00, 20:15, 21:30.

**Planet 51**
17:00, 18:45.

**Donde viven los monstruos**
17:00, 19:45, 22:30.

**Luna nueva**
20:30.

**Algo pasa en Hollywood**
17:30, 20:00, 22:30.

**Dos canguros muy maduros**
17:00, 20:35.

**Spanish movie**
18:45, 22:30.

**El baile de la Victoria**
17:30, 20:15.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Celda 211**
18:00, 20:15, 22:30.

**Planet 51**
18:00. Euskaraz.

**El erizo**
18:00, 20:15, 22:30.

**Mal día para pescar**
17:30, 20:00, 22:30.

**In the loop**
20:15, 22:30.

**El secreto de sus ojos**
17:30, 20:00, 22:30.

**La ventana**
20:15, 22:30.

**Toda la culpa es de mi madre**
17:30, 20:00, 22:30.

**Lluvia de albóndigas**
18:00,

Egubakoitzetik eguenera.

**YELMO CINEPLEX**

**Avatar**
(3-D emanaldiak)
15:50 (zapatuan eta domekan), 18:55,22:00.

**Avatar**
17:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 21:00, 23:00, 00:00.

**Lluvia de albóndigas**
17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**Blindado**
(3-D emanaldiak)
21:45,23:45.

**Cuento de Navidad**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30.

**Luna nueva**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**Spanish movie**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Paranormal activity**
22:10, 00:10.

**Planet 51**
16:15 eta 17:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Celda 211**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Dos canguros muy maduros**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10.

**Siempre a tu lado, Hachiko**
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:30.

**2012**
15:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 21:30, 00:30.

**El baile de la Victoria**
19:20, 21:50, 00:20.

**G-Force: licencia para espiar**
15:30(zapatuan eta domekan), 17:30 .

**Agora**
20:05, 22:25, 00:45.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
19:15, 21:45, 00:15.

**Hermandad de sangre**
22:10, 00:10.

Egubakoitzetik domekara. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Avatar**
15:45, 16:30, 18:50, 19:45, 22:00, 22:45, 01:00.

**Celda 211**
18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

**Lluvia de albóndigas**
16:15, 18:15, 20:15.

**Dos canguros muy maduros**
16:25, 18:20, 20:20, 22:20.

**Algo pasa en Hollywood**
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**El baile de la Victoria**
22:20, 01:00.

**2012**
18:45, 21:45, 00:45.

**Spanish movie**
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:15.

**Hermandad de sangre**
16:05, 18:10, 20:15.

**Luna nueva**
16:15, 17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

**Paranormal activity**
22:25, 00:30.

**Planet 51**
16:00, 16:30, 18:30, 20:25, 22:15.

Abenduaren 18tik 22ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



**Luna nueva**
Zuzendaria: Chris Weitz. AEB, 2009. 130 minutu.
Bella Swan uztea erabaki du Edward Cullenek, banpiroen mundutik aldentzeko. Bella triste dago, eta Jacob Blacken laguntza izango du. Konturatu gabe, gizotsoen munduan murgilduko da... Efektu berezi ikusgarriak dituen filme honek izugarrizko arrakasta lortu du mundu zabalean. Izan ere, *Crepusculo*-ren bigarren zatia da. Robert Pattinson eta Kristen Stewart aktoreak dira protagonista.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El secreto de sus ojos**
Argentina 2009. Zuzendaria: Juan Jose Campanella.
Buenos Aireseko epaitegi bateko idazkaria da Benjamin Exposito. Erretiratzera doa, eta duela 30 urte gertatutako zerbaiti buruzko eleberri bat idazteari ekingo dio. 70eko urteak ekarriko ditu gogora: orduan izandako hilketa bat eta, aldi berean, gauzatu gabeko maitasun istorio bat.

**Celda 211**
Espainia, 2009. Zuzendaria: Daniel Monzon.
Espetxe funtzionario batek lehen eguna du kartzelan. Egun horretan bertan, presoen matxinada baten artean geldituko da harrapatuta. Bizirirra eta kartzelako arduradunek ez dakite nola jokatu harekin. Espetxetik kanpo, funtzionario-presoak haurdun dagoen emaztea du zain...

**Malditos bastardos**
AEB-Alemania, 2009. Zuzendaria: Quentin Tarantino.
Naziek Frantzia okupatu dute, eta Shosanna Dreyfusek familia nola hil dioten ikusi du. Ihes egingo du Parisera, eta zinema areto bateko zuzendari lanean hasiko da, beste izen batekin. Europako beste herri batean, Aldo Raine tenienteak talde bat sortuko du, soldadu juduekin osatutakoa, naziak hiltzeko...

### nire aukera



**Nagore Narbaitza**
Bergarako Udaleko Hezkuntza teknikaria

## Bilbora zapatu arratsaldean

Berriztarra sortzez, Markina-Xemeinen bizi da Nagore Narbaitza, Bergarako Udaleko Hezkuntza teknikaria. Orain dela bost urte hasi zen Bergaran lanean. Orain dela zazpi hilabete pasatxo ama izan zen (Aratz izeneko mutikoa daukate) eta ordutik hona, hari begira antolatzen dute aisialdia.

Oraingo asteburuko ez dute plan berezirik, baina, edozein modutan, zapatu arratsaldean Bilbon *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko manifestazioan egoten ahaleginduko da Nagore. Gabonak datozela-eta, Gabonzalea ez dela dio; "Gehien abenduaren 24ko iluntzeko giroa eta txikiteoa atsegin dut, baina azkenaldian huts egin dut...".

**Asteburuan, zer?**
Ez daukat ezer planeatuta. Zapatu goizean kirol apurtxo bat egiten ahaleginduko naiz; korrika egitea atsegin dut. Ondoren, etxean bazkaldu eta arratsaldean ea Bilbora, *Egunkaria*-ren aldeko *manifara* joaten garen... Asmoa hori da, behintzat. Eta domekan, ba lasai ; bueltatxo bat goizean, patxadaz bazkaldu eta arratsaldean filmeren bat ikusi etxean...

**Gabonetan oporrik bai?**
*Egun gorriak* bakarrik... Gainera, Bergaran izaten diren hainbat ekitaldi (Olentzero, Erregeen kabalgata, jolasparkea...) jarraitzea tokatzen zait.

**Kirolaz aparte beste zaletasunik?**
Antzerkira joatea atsegin dut, baina orain umearekin zaila...

**Zer ari zara irakurtzen?**
Durangon erositako bi liburu dauzkat mesanotxean: Unai Iturriagarena (*Londres kartoizkoa da*) eta Joan Mari Irigoienen trilogiaren bigarren zatia: *Haragiaren gauak eta egunak*.

**Zer eskatu diozu Olentzerori?**
Nagoen moduan jarraitzea; lan kontuak-eta zelan dauden ikusita, txarrera ez egitea, behintzat...

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-12-18

# Elgetatik Afrikara motorrean

**BIDAIA** Bixente Askasibar elgetarrak makina bat bidaia egin du Afrikara; gehienetan, furgonetan ibili da

**IBILBIDEA** Afrika zeharkatuko dute Lurmutur Hiriraino, zailtasun gutxien dituen kostaldeko bidetik

**ABENTURA** Turismo pixka bat egitea da asmoa eta orain arte ezagutu ez dituzten Afrikako parajeetan gozatzea

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Bidaiazalea da Bixente Askasibar elgetarra, baita Afrikazalea ere. Makina bat bidaia egin du hara, eta oraingoan motorrean joango da. "Unai Artaloitia zornotzarra eta biok joango gara. Iaz Afrikan ibili ginen furgonetan, eta, motorra probatzeko aukera izan genuenez, aurten abenturari heltzea erabaki dugu", esan digu.

Kostako ibilbidea egingo dute, zailtasun gutxien dituena. Elgetatik abenduaren 27an abiatuko da eta Mauritaniako mugan elkartuko da Unairekin. "Gauzak nola dauden ikusita, elkarrekin pasatzea hobea da; ausartak gara, baina kontuz ibili behar da".

Mauritaniatik, Senegalen barrena Ginea Bissaura joango dira; han gelditu egingo dira, motorren olio aldaketa egiteko. Ondoren, Mali, Burkina, Togo eta Nigeria igaroz Kamerunera arteko bidea egingo dute, eta, gurpilak aldatu eta motorra gertu ipinita, beherako bidea hartuko dute pixkanaka; bidaia Lurmutur Hirian amaituko dute.



**PREST** Bixente Askasibarrek (eskuman) Unai Artaloitia izango du zain Mauritanian, anaia Omer eta Kristina lagunarekin. GOIENKARIA

Bi hilabete behar dira, gutxi gorabehera, ibilbidea egiteko, baina eurek bi hilabete eta erdi egingo dituzte. "Bisaturik-eta ez dugu hemendik eramango eta han ateratzeak denbora eskatzen du. Nik 40 argazki eramango ditut, badaezpada, agirietarako".

**PRESTAKUNTZA**

Turismo apur bat egitera eta abentura bila doaz Afrikara. "Afrika gustuko dugu. Jende gutxi ibiltzen dena. Parajeak gustatzen zaizkit, baita ere gauza gutxirekin nola bizi diren ikustea", dio Bixente Askasibarrek.

Motorrean bidaiatzeko ondo prestatu beharra dago. "Gauzak trankil hartzen ikasi behar da. Motorrak zaharrak dira eta erraza da konponketak egitea. Baina motorrak 24 litro ditu eta guk beste 10 eramaten ditugu; horretaz gain, ordezko gurpilak, materiala, jatekoa, mapak, kanpin denda…".

Bi gurpilen gainean Elgetatik Afrikara. Horretarako, ausarta eta bidaiazalea izan behar da.

## ahobero

### "Oso gustuko dut gaua, eta goizeko bostetan jaiki beharra izango banu bihotzeko krisia izango nuke"

**Mara Torres** > 'La 2 noticias'-eko telebista aurkezlea

Ba, langileen gehiengoa goizean goiz esnatzen da eta badirudi horregatik inori ez diola bihotzeko krisirik ematen. Asko eta asko goizean goiz jaikitzeko gertu leudeke baldin eta lana izango balute, baina beste krisi bat pairatzen dute.

## iturri onetik

### Gatzagako auto igoera antolatu nahi dute datorren urteko irailaren 18rako

Euskomotor klubeko lagunek Gatzagako auto igoera gertatzeko asmoa dute irailaren 18rako. Hori da euren nahia, baina 18.000 euro behar dira horretarako eta dirulaguntzen arabera aurrera egingo du ideiak edo bertan behera geratuko da. Orain dela 20 urte inguru egin zen azken aldiz auto eta motor igoera Gatzagara, baina motor lasterketan parte-hartzaile bat hil zen eta ordutik hona ez da berriz egin.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Bertso botika

BECen nintzen domekan. Eta sentitu nituen haize beroaren itolarriak, tarteka benetan larriak. Edo zortzi orduz jarrita egotearen ajeak. Pena ere hartu nuen ikustean bertsogintza oraindik batzuena dela gehiago denona baino. Nahiz esan behar dudan koadroa apurka koloreak hartuz doala, zorionez.

Baina nabarmenena egin zitzaidan milaka pertsona haien euskararekiko atxikimendu eta maitasun jostalaria, nola gozatzen zuten bertsolarien malabar eta piruetekin. Bide ona da hori. Espainian, oro har, gaizki egiten da espainolez eta hori kopiatu dugu Hegoaldean. Frantzian ondo hitz egiten dute frantsesek eta nabari zaie gure euskal senideei. Ederra litzateke bertsolaritzak bihurtuko balu Euskal Herria 'ondo mintzatzen direnen herria'.

## ai, ene!



### Itsas bidaia norberak egindako yatean

Irudimenak eta sormenak bat egiten dutenean horrelako bitxikeriak sortzen dira: merke antzean yate bat egiteko aukera.

www.sarda.es



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51